

# Goienkaria

2007ko ekainaren 15a > Egubakoitza > VII. urtea > 292. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

## G2a

'Gomendatzen  
dizut' lehiaketa  
hasi da > 43-44

**BERGARA**  
Monumentu izendatuko du Irizar  
jauregiko lorategia Jaurlaritzak > 25

**ARRASATE**  
Mojategi kirolgunea asteon  
inauguratu dute > 40-41

Manolo  
Cainzos

Irakaslea > 09



OÑATI > ISTRIPUA

## Bi hildako helikoptero istripuan

Santandertik  
zatorrela Araotzen  
erori zen eguztzen  
eguerdian > 07

ENPRESA > GARAIA GUNEA

## Garaia Gunea aurrera doa

Martitzenean  
inauguratuko du  
lehen eraikina  
Ibarretxek > 07

AISIA > UDA DENBORALDIA

## Kanpoko igerilekuak zabalik

Bihar hasiko dute ibarreko  
igerilekuek uda denboraldia.  
Arrasate da kanpoko igerile-  
kuak dituen bakarra, baina  
gainerako hainbat herritan  
igerileku estalia izan arren,  
belarguneaz gozatu ahalko da.  
Bergaran, belargunea jartzeko  
lanetan dabilta eta hil buka-  
ran irekiko dute > 02-03

## AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Elkarritzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-42  
Kultura > 45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

HAUTESKUNDEAK 07 > UDALBATZA BERRIAK OSATZEKO BILKURAK EGINGO DIRA BIHAR, ZAPATUA

## Bihar hartuko dute kargua lau urteotarako alkate berrieik

**BIHAR** Goiz eta eguerdi aldera  
egingo dira udalbatza berriak  
osatzeko bilkurak,  
Debagoineneko herri guztieta

**ALKATEAK** Ezustekorik ezean,  
bihartik aurrera bost alkate  
izango ditu EAEk; bi Aralarrek  
eta bakarra EAJk

**ZINEGOTZIAK** Alkatea  
izendatzearekin batera, 115  
zinegotzik hartuko dute  
zinegotzi kargua ibarrean > 04



ERREPIDEITIK Oinezkoendako bidea itxita dagoenez, hainbatek errepidetik egiten du tarte hori.

MIRARI ALTUBE

## Itxita dago Aretxabaleta eta Arrasate arteko oinezkoen ibilbidea

Aretxabaletan, CVL lantegitik Arrasate-  
rantz dagoen bidegorri zatia bukatzeko  
lanak hasi ditu Aldundiak. Deba erreka-  
ren eta errepidearren artetik doa tarte hori  
eta 209 bat metro ditu. Ibilbide hori oinez-  
koek erabili izan dute orain arte ere, herri

baretik bestera oinez joateko, baina lanek  
iraun bitartean itxita egongo da. Gainera,  
lanek iraungo duten hiru hilabeteetan ez  
dute ibilbide alternatiborik egokituko. Hori  
horrela, Aretxabaletako udaletxean hain-  
bat herritarren kexua jaso dute > 31

**Škoda Octavia Combi**

NOLAKO BIZIMODUA  
IZANGO ZENUKE BIZITZEKO  
TOKIRIK GABE?

Udalaitz

Gipuzkoako etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SIMPLY CLEVER

SKODA AUTO

**SUPER AMARA**

**DENAK GUTXIAGO BALIO DU**

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkaleku

**AISIALDIA** > UDAKO DENBORALDIA

# Asteburuan hasiko dute udako denboraldia, hainbat berritasunekin



**KANPOKOAK. ARRASATEN**

Arrasate da kanpoko  
igerilekuak dituen herri  
bakarra, nahiz eta Eskoriatzan  
ere baduten haurrendako bat

**XABIER URTZELAI > ARRASATE**  
Udaberri fresko eta euritsuaren ondoren hasi dira temperaturak igotzen, justu-justu ibarreko kirolegietan udako denboraldia abian jartzeko. Hala, datozen egunnotatik aurrera herritarrek beste zerbitzu batzuk izango dituzte kirol etxeetan eskura, eta horien berri emango dugu segidan. Horrekin batera, inguruari bainu freskagarria hartzeko ditugun aukeren gainean egingo dugu herba.

HASIERA, BIHAR

Aurreratu moduan, bihar hasiko da uda denboraldia, eta, batez ere, Eskoriatzan eta Arrasaten igarriko dute hori. Eskoriatzan, 6 urtetik beherako haurrek era-bili ahal duten kanpoko igerileku zabalduko dute, eta baita ige-riileku ondoan dagoen eguzkia hartzeko berdegunea ere.

#### **IGERILEKU BATZUK. LANETAN**

Bergaran belargunea jartzeko  
lanetan dabilta, eta Oñatin  
kiroldegia berritzen ari dira;  
aurten ez da tabernarik izango

**Eguneko sarrerekin  
batera, kiroldegietan  
10eko bonuak edota  
udako bonuak daude  
eskura; Agorrosinen  
egin dute eskaintza  
ona: nagusien hileko  
bonua 18 eurotan**

**BAINUETXEA** Gaur bertan ireki

duten Agorrosingo bainuetxea  
da aurten go berritasunetako  
bat: spa, saunak, dutxak...  
hainbat aukera ematen ditu

tik beherakoek 2,75 euro. Hala, igerilekura joatearekin konformatu ez, eta lehenago kirol apur bat egin gura duenak plus sarra- ra erozi beharko du (8,10 euro). Kontuan hartu, betiere, udarako abonamenduak (gazteek 31,95 euro, nagusiek 53,55 euro) edota 10 sarrerako bonuak ere eskura daudela.

Aretxabaletari dagokionez, abuztuan hiru astez itxita egongo da kirolegia: abuztuaren 6tik 26ra. Dena dela, orain arte, bertako erabiltzaileek denbora tar-te horretan Musakolako kirolegia erabili izan dute, eta, oraindik erabakia hartzeko badago ere, ez dirudi aldaketarik egongo denik.

OÑATIN, TABERNA BARI

Oñatiko kiroldegian berritzelanak egiten dabilzanez, aurtenago udan ez dute taberna eskura

izango, irailean zabaltzeko asmoa daukate-eta. Hori bai, Zubikoa-tik esan digute freskagarrien, jatekoen eta izozkien makinak jarriko dituztela. Horrekin batera, Oñatin, barruko igerilekua baldin badaukate ere, eguzkia hartzeko berdegunea zabalduko dute. Gainera, igerilekurako sarrerarekin (gazteek 2,65 euro, nagusiek 5 euro) gimnasioa ere orabil daitoko.

Horrekin batera, Oñatin bertan hadago beste aukera bat: Usa-



auko denboraldia hasi eta kanpoko igerilekuetako uretan murgiltzeko.

GOIENKARIA

belarra jartzen duen enpresa bat erozi diote belar naturala-, eta, emaitza ikusgarria izango bada ere, itxaron egin behar da: "Kontua da azken egunetako euriteek ez dutela batere lagundu belar berriak sustraiak indarrez bota ditzan; hala, hilaren 25ean irekiko dugu belar-gunea", esan digu Kirol teknikari Unai Asurmendik.

Horrenbestez, Agorrosingo igerilekua barrukoada bida ere, herritarrek aparteko gunea izango dute eguzkia hartzeko: "Komunak eta dutxak izango dituzte kanoan, eta aztertzen gabiltza ea ze aukera dugun kanoan *txirringito* moduko bat jartzeko, freskarriak eta bestelakoak saltzeke". Prezioei dagokienez, nagusiak 3,70 euro ordaindu behar dituzte, eta gazteek 2,65 euro. Hori bai, Bergaran, beste aukera batzuen artean hileko abonamenduaren alde egin dute: 18 euro.

Horrekin batera, gauntik hasita erabiltzaileek beste zerbitzu bat izango dute eskura: bainuetxea. Lau eremu ezberdinan banatuta, herritarrek spa, sauna, dutxak eta atseden gunea erabili ahal izango dute. Zerbitzu hori erabiltzeko bazkideek ez dute gehiago ordainduko, bazkide ez direnek 3,7 euro.

#### UDALA, BESTE AUKERA BAT

Arrasateko Udalau auzoan dagoen igerilekua pribatua da, Uxarteko. Hala ere, bertako prezioak ez dira gainontzeko igerileku batzuetakoak baino garestiagoak. Hala, 16 urtetik gorakoek 5,5 euro ordaindu behar dituzte; 8 eta 15 urte bitartekoek 4,5 euro; eta 4 eta

7 urte bitartekoek 3,5 euro. Udalako paraje ederra kontuan harutta, askorendako merezi du hara gora igotzea.

Bestalde, hasiera batean Udalako igerilekuak bihar bertan zabaldu gura bazituzten ere, azkenean datorren asteburura atzertako dute irekiera; ekainaren 23ra.

#### ARABAN ERE BAI

Egia da AP-1 autobidearekin kostaldea lehen baino gertuago daugakula. Debagoiendar askok aukeratzentzituzte, besteak beste, Debaiko edo Zarauzko hondartzak. Beste askok, baina, nahiago dute Albiñara, Ulibarrira, Landara edota Garaio parkera joan. Alde horretatik, Arabako Diputazioko langile Inazio Ruizk eman dizkigu gune horien gaineko xehetasunak: "Aurten lehenengoz sorosleak zaintze-dorretoak jarri ditugu, guztira zazpi. Horietako lau egongo dira Garaion, bi Landan eta Ulibarrin bestea". Hori horrela, hiru leku horietan sorosleak egongo dira (12:00etatik 20:00etara): "Ulibarrin, baina, sorosleak ezin du kostalde osoa zaindu, eta hori gertatzen den lekuetan kartelak jarri ditugu, jendeak kontuan izan dezan".

Gainera, badirudi udan Arabako urtegiak bikain egongo direla bainua hartzeko: "Izan ere, uda amaieran arazoak egoten dira ur mailak behera egiten duelako. Orain, baina, egoera ezin hobean daude urtegiak, %90 daude-eta beteta". Hori bai, Landan oraindik errepidea konpontzeko lanean dabiltza, eta zaitasunak egongo dira autoak aparkatzeko.

## Debagoieneko igerilekuetako gaineko informazioa

IGERILEKUA	MOTA	ORDUTEGIA	PREZIOA	KONTUTAN HARTZEKOAK
ARRASATE (Musakola)	Kanpokoak	10:00-20:30*	5,55/2,75	Berdegunea, freskagarri makinak, sexologia zerbitzua, gazte bulegoa, sauna...
ARRASATE (Udal)	Kanpokoak	10:00-20:30*	5,5/4,5/3,5	Terraza, hamakak, kafetegia.
ARETXABAleta	Barrukoak	08:30-21:30*	3,8/1,95	Abuztuaren 6tik 26ra arte itxita egongo dira.
ESKORIATZA	Barrukoak	09:00-21:00*	3,8/2,10	Umeendako kanpoko igerileku txikia dute, berdegunearekin, hamakak.
BERGARA	Barrukoak	07:00-22:00*	3,70/2,65	Eguzkia hartzeko berdegunea, Bainuetxea, taberna, hamakak...
OÑATI	Barrukoak	07:30-21:30*	5/2,65	Gimnasioa, eguzkia hartzeko berdegunea, freskagarri makinak.

\* Ordutegia aste barruko da, ekainean eta uztailen. Abuztuan nahiko aldatuko dira ordutegiak.



## TAILERRA: AZTERKETA FINANTZA-EKONOMIKOA

Antolatzalea:



Babesleak:



- Norentzat:** Debagoieneko enpresa txikietako langileentzat, autonomoentzat eta empresarentzat.
- Maila:** Oinarrizkoak.
- Edukiak:**
  - Emaitzen kontua.
  - Egoera balantzea.
  - Diruzaintza.
- Lekua:** Garapen Ekonomikorako Agentzia. Nafarroa etorbidea 23, Arrasate.
- Egunak:** Ekainak 27 eta 28.
- Ordua:** 18:00 – 20:00.
- Antolatzalea:** Debagoieneko Mankomunitatea
- Izenematea:** ekainaren 22a baino lehen 943-79 30 90 telefonora deitu (Unai Kortabarria).

*Anima zaitez parte hartzera !!!*

HAUTESKUNDEAK 07 &gt; UDALBATZA BERRIAK ERATZEKO OSOKO BILKURAK

# Biharko bilkuretan kargua hartuko dute 115 zinegotzik

Zapatu goiz eta eguerdian egingo dituzte udalbatza berriak eratzeko osoko bilkurak

Ezustekorik ezean, bihartik aurrera bost alkate izango ditu EAEk, bi Aralarrek eta bakarra EAJk

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA  
Aramaion eta Aretxabaletan izango dira goiztiarrenak; 10:00etan egingo dute udalbatza osatu eta alkatea izendatzeko osoko bilkura. Ordu horretatik aurrera, Debagoieneko herri guztietan egingo dituzte udalbatzarak, eguerdia bitartean. 12:00etan egingo dituzte herri gehienetan. Guztira, 115 zinegotzik hartuko dute kargua eta horietatik bederatzi alkate izendatuko dituzte.

**EAE-ANV-KOAK ALKATE GEHIENAK**  
Ezustekorik ezean, badirudi EAE-ANV alderdikoak izango direla bihartik aurrera Debagoieneko alkate gehienak. Alderdei euren asmoen berri galdeztuta, horixe da aterta dezakegun ondorioa, honako herrien kasuan: Arrasate, Bergara, Esko-

riatza, Antzuola eta Aramaio. Aretxabaletako kasua, bestalde, berezia da; izan ere, Alderdiene Legeak legez kanpo laga ez balu, EAE-ANVko zerrendaburua izango litzateke han ere alkate. Oñatin ere legez kanpo laga zuten EAERen zerrenda eta lortu zituzten lau zinegotziek ezin izango dute kargua hartu.

Horrekin lotuta, hainbat herrian kale agerraldiak egingo dituzte herritarren hitza errespetatu dadila eskatzeko: Aretxabaletan, osoko bilkura bukatzen denean; Oñatin, goizeko 11:00etan eta Bergaran, 11:30ean.

**ALARREKO BI ALKATE**  
Aralarrek, bestalde, badirudi bi alkate izango dituela aurrerantzean. Elgetaren kasuan, Aralar izan zen zerrenda bozkatuena

eta Oxel Erostarbe izango da alkate berria, ezustekorik gertatzen ez bada. Aretxabaletan ere badirudi horixe gertatuko dela, Aralarreko Inazio Garro izendatuko dutela alkate. Dena dela, adierazi dutenaren arabera, hiru zinegotzik hartuko dute kargua, legez, lau zinegotzi lortu zituzten arren. Horrela, EAERen eserlekurik ez dute hartuko.

EAJ alderdiak, azkenik, alkate bakarra izango du ibarrean, Oñatin, hain zuen ere. Lourdes Idoiaga izango da alkate, orain ere kargu hori izan duena.

## Osoko bilkuren ordutegia

Arrasate	12:00
Bergara	12:00
Oñati	12:00
Aretxabaleta	10:00
Eskoriatza	12:00
Antzuola	12:00
Aramaio	10:00
Elgeta	12:00
Leintz Gatzaga	11:00

ITURRIA: UDAKAL

## ALKATEA BOZKATZEA

Biharko osoko bilkuren helburua da, batetik, maiatzaren 27an aukeratuak izan ziren zinegotziek euren kargua hartzea eta bestetik, alkatea izendatzea.

Udal eratzeko mahaia osatzen dute ordezkarri nagusienak, gazteenak eta udal idazkariak. Hauteskunde Batzordeak bidali-tako kredentzialak jasoko dizkiete ordezkariei eta kargua hartuko dute, banan-banan. Ondoren, alkatea aukeratzeko bozketa egingo dute, bozketa bakarra. Gehiengo absolutua eskatzen du legeak alkate izateko; hori lortu ezean, zerrenda bozkatueneko zerrendaburua izendatuko dute alkate.

## BATZARREN BERRI GOIENAK

Goienako komunikabideetan zapatuko osoko bilkuren jarraipen zehatza egingo da. Batetik, Asteleheneko Goienkarian jasoko dugu zapatuan gertatutako gora-beheren berri. Bestalde, GOITBn, 11:30etik aurrera saio berezia egingo dute; saio bera Arrasate Irratian entzuteko aukera ere egongo da.

## BAKEGINTZA

# Lokarriren sinadura bilketa gurean

Eguenean, hilak 21, Paul Riosek berbaldia egingo du Antzuolan

**A. I. > ANTZUOLA**  
Lokarri Herritarren Sareak sindura bilketa bat ekin zion martxoan eta kanpaina horrekin datozkigu Debagoienera. Sinadura bilketa horren helburua honakoa da: EAEko eta Nafarroako Legebiltzarrrei eskatzea herri kontsulta bat deitzeko.

Batetik, hilaren 21ean, eguna, Paul Rios Lokarriko koordinatzaileak berbaldia egingo du Antzuolan, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, herri kontsultaren gainean. Bestetik, Euskal Herrian zehar sinadurak batzen dabilen furgonea Bergara eta Arrasatera etorriko da. Bergaran, 26an, San Martin Plazan egongo da sinatzeko aukera, 18:00etik 20:00etara. Arrasaten, Seber Altube plazan, hilaren 27an.

## 2007/08 Nazioarteko programetan parte hartzen dutenentzako laguntzak

gizarte ekintza

berrikuntza

# MUNDUA ZURE ESKU.

Gustatuko al litzaizuke zure ezagupenak atzerriko unibertsitateetan eta irakaskuntza-zentroetan zabaltzea? Orain, **Gaztekutxaren bitarbez** eta **kutxaren Gizarte Ekintzari** esker, **hainbat laguntza** eskura ditzakezu **atzerriko ikasketa-programetan eta praktiketan** parte hartu ahal izateko... eta, bide batez, mundu osoko ikasleekin **esperientzia paregabea eta errepikaezina** bizitzeko.

**Izena emateko epea:** maiatzaren 15etik ekainaren 30era.

**Ez utzi biharko; oraintxe bertan lor dezakezu informazioa.**

Sar zaitez gure web orriari eta ikus itzazu zuretzat prestatu ditugun berritasunak: programak, laguntzen zenbatekoak eta abar.

[www.gaztekutxa.net](http://www.gaztekutxa.net)

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**

EKONOMIA > IAZKO EMAITZAK ETA 2007RAKO AURREIKUSPENAK ERE AURKEZTU DITU

# Ulma Taldeak Oñatiko instalazio berriak inauguratu zituen atzo

Hiru urtetan 500 milioi inbertitu eta 1200 lanpostu berri sortu gura ditu

MIRIAN BITERI > OÑATI

Ulma Taldeak Packagingeko Zentro Teknologikoa, Sustapen Zentroa eta egoitza nagusia harituko dituen eraikina inauguratu zuen atzo, Oñatin. Instalazio horiek hasiera eman diote Oñatiko Udala eta Ulmak sustatutako Oñati Unibertsitate eta Teknologi Hiri proiektuari. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria izan zen inaugurazio eki-taldian.

Packagingeko Zentro Teknologikoa oinarri teknologikoa duten jarduera berriak abian jartzea du helburu. 48 langile ditu. Sustapen Zentroak, berriz, negozio berrien bultzatzai-le izan gura du.

## AURREIKUSPEN "BIKAINAK"

Eguaztenean, bestalde, iazko emaitzak eta aurtengo aurreikuspenen berri eman zuten. Pozik daude Ulmakoak. 2006ko ekitaldia "bikaina" izan dela eta, 2007koa ere "antzkoak" izango dela aurreratu zuen taldeko zuzendari nagusi Txomin Gartzia.

Urte erdia pasa da eta hasieran egindako aurreikuspenak hobetu egingo direla gaineratu



INAUGURAZIOA Oñatin duen planta berria inauguratu zuen atzo Ulma Taldeak.

GOIENKARIA

## 2006KO EKITALDIKO EMAITZAK DATUETAN

### > SALMENTAK

Salmentak 624 milioikoak izan ziren iaz, urtetik urterako hazkundea %23koa izan da.

### > NAZIOARTEKO SALMENTAK

Pisu handia dute horiek. Salmenta guztien %43 suposatu zuten, 265 milioiekin. Hazkundea %26koa izan zen.

### > INBERTSIOAK

141 milioi euro inbertitu zituzten. Konpromiso zehatzak hartu ziren Legazpiko Precinox inguruan eta Oñatiko ULMA Forja handitzeko.

### > ENPLEGUA

331 langile berri sartu ziren. Guztira, 3.513 langile zituen ekitaldiaren amaieran.



ULMA Taldea, Koop. E.

Oñati

## OHIKO BATZAR NAGUSIA

### D E I A

Eguna: 2007ko ekainaren 21a

Ordua: 15:00etan lehen deialdia eta 15:30ean bigarrena

Tokia: ULMA Taldeko auditorioa – Garagaltza auzoa 51 - Oñati

### GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena
2. 2006ko ekitaldiko Memoria irakurtzea eta onartzea
3. 2006ko ekitaldiko Balantzea eta Kontuak onartzea
4. Emaitzak banatzeko proposamena
5. ULMA Talde mailan aplikazio orokorreko eta araudi izaerako gaiei buruzkooperatiba bazkideen Ohiko Batzar Nagusiek hartutako erabakiak berrestea
6. Kapitala gehitzea
7. POGUko III. Tituloko 2.1.2 eta 2.2 ataletan onartutako aldaketak berrestea
8. ULMA Taldea Kooperatiba Elkarteko bazkideen Estatutu Sozial Homogeneotuen 13 eta 28. artikuluetan onartutako aldaketak berrestea
9. ULMA Taldea Kooperatiba Elkarteko bazkideen Barne Araudi Homogeneotuen 6 eta 82. artikuluetan onartutako aldaketak berrestea
10. ULMA Taldea Kooperatiba Elkarteko Estatutu Sozialak 2 eta 3. artikuluak aldatzea
11. ULMA Agricola Kooperatiba Elkarteko eta ULMA Precinox Kooperatiba Elkarteko bazkide berrien onartze erabakien berri ematea
12. Kontseilu Errekoreko kideak berrestea
13. Zaintza Batzordeko kideak berrestea
14. Kontseilu Sozialeko kideak berrestea
15. Galderak eta eskaerak

Oñati, 2007ko ekaina

OHARRA: Bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da, kontabilitate liburuak eta deialdi horietan proposatutako estatutuen, Barne Araudiaren eta POGU IIIren aldaketen testuak eta zergatien txostenak egoitza sozialen aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.



## TXANTXIKU IKASTOLA Kooperatiba Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA

## OHIKO BATZAR NAGUSIAREN EGITARAUA

- 1.- Aurreko aktaren txostenen irakurri eta, hala badagokio, onestea.
- 2.- Kudeaketa txostenen.
- 3.- 2006. urteko kontuak eta 2007. urteko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
- 4.- 2006. urteko gaindikinen banaketa onartzea.
- 5.- Kontseilu Errekoreko eta Zaintza Batzordeko kide berriak aukeratzea.
- 6.- Akta onartze bi kide izendatzea.
- 7.- Eskariak eta galderak.

**EGUNA:**  
EKAINAREN 26a, ASTEARTEA

**ORDUA:**

18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean

**LEKUA:**  
Ikastolako aretoa (San Juan kalea 1)

> EROSKI  
**Hilaren 20an irekiko  
dute Bergarako  
supermerkatu berria**

Eroski Center berriak 1.756 metro karratu ditu eta jateko zein garbiketa egiteko produktuak salduko dituzte, 3.500 produktutik gora, hain justu. Bestetik, 53 lagun kontratatu dituzte supermerkatu berrian, erdia baino gehiago inguruko herrietakoak. Orni eta Carpinsa lantegiak zeuden eraikinean kokatu dute eta kanpo aldean 180 bat auto aparkatzeko lekua egokitu.

Zentro berriaren jardueremua Bergarari berari eta inguru hurbileko kontsumitaileei zuzenduta dago.

> ALDUNDIA  
**Aldundiak Elgeta eta  
Bergara arteko garraioa  
finantzatuko du**

Aldundiak Elgeta eta Bergara autobusez eta taxi kolektiboarekin lotzen dituen garraio zerbitzua finantzatuko du. Aldundiak zerbitzuaren kostuaren %70 finantzatuko du, lehen urterako 24.304 euroko muga ipinita, eta Elgetako Udalak gainerako %30 jarriko du. Txartelen salmentatik ateratakoa Udalak jasoko du.

Autobus zerbitzua ikasturteko eskola egunetan izango da, Elgetatik 07:40an eta 14:55ean irtengo da. Bergaratik, berriz, 14:40an. Taxi zerbitzuari dagokionez, lan egunetan astelehenetik egubakoitzera ibiliko da, urte osoan, abuztuan izan ezik. Bergaratik 11:30ean aterako da eta Elgetatik, 11:45ean. Ibilbidean ere geldialdiak egingo diru.

> HEZKUNTZA  
**Enpresa Zientzietako  
fakultateak  
Zilarrezko Q-a jaso du**

Euskalitik MUko Enpresa Zientzien fakultateko langileak eta erakundeak omendu zituen atzo Zilarrezko Q-a lortzeko egindako lanarengatik. Jaurlaritzako Unibertsitate sailburuorde Ibone Amegaga MUko errektore Josu Zabalak eta Enpresa Zientzien fakultateko dekano Lander Belokik hartu zuten parte ekitaldian, besteak beste.



Lander Beloki agiria jasotzen.

AURKEZPENA &gt; ARGAZKI LIBURUA

# Aretxabaletaren gaineko argazki liburua argitara eman dute

'Urkulu leho irekia. Naturalmente Aretxabaleta' izenburuaren pean eman du argitara argazki liburua Aretxabaletako Udalak

**ANTZANE IRIZAR > ARETXABALETA**  
Aretxabaletako Udalak argitaratu du *Urkulu leho irekia. Naturalmente Aretxabaleta liburua*, Naturgintza Fundazioaren laguntzarekin. Artxaman komunikazio enpresaren gidaritzapean egindako liburua da.

Atzo, eguna, egitekoak ziren liburuaren aurkezen ekitaldia, Urkuluko Otalora dorretxearen.

Liburuak 110 orrialdetan zenbait aretxabaletarren artikuluak batzen ditu argazkiekin batera; besteak beste, Aitor Antxiak, Juanan Gutierrezak eta Jose Ramon Intxauspek idatzi dituzte artikuluok.

#### HAINBAT KAPITULU

*Ur tanta baten istorioa* izeneko kapituluarekin ematen zaio hasiera liburuan. Aitor Antxiak,

era literarioan, Urkuluko urtegiaren sorrerara garamatzatik kapitulu horretan, bere artikuluarekin. Hurrengo hiru kapituluetan, Urkuluren balio naturalen gaineko artikuluak aurkituko ditugu; Juanan Gutierrezak eta Kiko Alvarezenak. *Atxabala eta atxabaltarrak* kapitulua Gorka Etxabek idatzi du eta Jose Ramon Intxauspek *Urkulu ezagutzen*.

#### ARGAZKILARIAK

Argazkiek dute protagonismoa liburuan; esan bezala, argazki liburua da. Argazki gehienak dira Ane Idigoras aretxabaletar argazkilari gaztearenak; Aretxabaletako Argazki Taldearen zenbait bildumatako argazkiak ere jaso dituzte, baita Santiago Yaniz bilbotarrarenak ere.



LIBURUA Aitor Antxik liburuaren egileetako bat, liburua eskuan daukala.

IKER BARANDIARAN

#### HERRIAN ETA IBARREAN SALGAI

Aretxabaletako Udalak 3.000 aleman ditu argitara. Dagoeneko eskura daiteke liburua; salgai

daude herriko zein ibarreko liburu denda, kiosko, turismo bulego zein museotan. Liburuan prezioa da 15 euro. Udalaren hel-

burua liburu horrekin izan da Aretxabaletaren beste ikuspegi bat eskaintza; ikuspegi turistikoaga, hain zuzen ere.

## UZTAILEAN IGERILEKURA!!

#### IGERILEKUAN, 17:00etik 19:00tara:

- Astelehenetan: Gazte Bulegoaren informazio gunea
- Martitzen eta eguenetan: bitxigintza ikastaroa, Dunixe Royoren eskutik
- Eguaztenetan: Sexologia Zerbitzuaren informazio gunea

#### BARRUAN (kiroldegian):

- Gaur egungo dantza ikastaroa, Saioa Ibañezzen eskutik
- Astelehena eta eguztena: goizean edo arratsaldean



## GAZTE IKASTAROAK

#### GAUR EGUNGO DANTZA:

Saioa Ibañezzen eskutik  
Uztailaren 2tik 25era  
Astelehen eta eguztenetan  
Goizean edo arratsaldean  
Musakolako kiroldegian



#### BITXIGINTZA:

Dunixe Royoren eskutik  
Uztailaren 3tik 26ra  
Martitzen eta eguenetan  
17:00-19:00  
Igerilekuaren  
(asteka izena emateko aukera)



#### ARGAZKIGINTZA

Antonio Murilloren eskutik  
Uztailaren 3tik 19ra  
Martitzen eta eguenetan  
Goizean edo arratsaldean  
Kultur Aten

Matrikula: 20 euro / 12 euro ikasle edo langabeentzat

Izena emateko: Gazte Bulegoan (943 77 00 65)

[www.gaztebulegoa.com](http://www.gaztebulegoa.com)



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila

ISTRIPUA > HELIKOPTEROA JAUSI ZEN ARAOTZEN, OÑATIN

# Bi lagun hil ziren Araotzen izandako helikoptero istripuan

Eguazten eguerdian gertatu zen istripua; Santanderretik zetorren helikopteroa Oñatiko Araotz auzoko pinudi batera erori eta bi lagun hil ziren

**AINTZANE IRIZAR > OÑATI**  
Santanderretik Teruel eta Albaceteako bidea egiten ari zen helikoptero batek istripua izan zuen eguztuen eguerdian Oñatin, Araotz auzoan, hain zuzen ere. Auzo horretako pinudi batera erori zen helikopteroa eta barruan zihoaen bi lagunak hil egin ziren. Hildakoak bat Las Palmasekoak zen eta bestea Murciakoa, 51 eta 37 urtekoak, hurrenez hurren. Hilabetez Kantabrian Babes Zibilaren dako lanean jardun eta gero, bueltan zihoa helikopteroa.

**AUZOTAREN DEIA**  
Goizeko 10:00etan irten zen helikopteroa Santanderretik, eta Bilbao geratu zen erregaa hartzen. Santanderko kontrol dorretik 12:00ak inguru jakinarazi zuten helikopteroaren pista galdu egin zutela; ordu inguru horretan, Araozko bizilagun baten deia jaso zuten SOS Deiak-en, istripua-ren berri emateko.

Maximo Zumalde Araozko baserri batean bizi da eta horrelaxe eman du berak ikusi eta entzundakoaren berri: "Ni etxe ondoan nengoentzako helikopteroa behetik gora azaldu da; lainotara sartu denean jo du pinudiaren kontra. Zarata handia, beldurarrria, entzun dugu orduan".

**ERRESKATE LANAK**  
Ertzaintzaren arabera, deia jaso eta segituan hasi zituzten erreskate lanak; 13:00ak inguru aurkitu zuten helikopteroa pinudi malkartsu batean, barruan bi hildako zituela. Mikeletetxe ondoan, hain zuzen ere, erori zen helikopteroa.



PINUDIA Araotz auzoko pinudi baten erori zen helikopteroa, Mikeletetxetik gertu. ARRITXU BARRUSO



GORPUAK Ertzaintzaren helikopteroan eraman zituzten bi hildako gorpua. ARRITXU BARRUSO

14:00ak inguru, Oñatiko medikuak iritsi ziren istripua gertatu zen tokira; 14:00etan, berriz, auzitegietako medikuak. Behin egin beharreko azterketak

eginda, 16:00ak inguru, Ertzaintzaren helikoptero baten eraman zituzten bi gorpua Arantzazura; hantxe, hileta-auto bat zegoen zain.

Badirudi behe-lainoa izan zela istripuaren arrazoia, baina, abiazio zibileko teknikariak inguruak ikertzeoak dira, arrazoi horiek argitzeko.

INAUGURAZIOA

## Garaia Guneak ateak irekiko ditu

Martitzenean inauguratuko du lehen eraikina Ibarretxek

**AMAIA ZALDUA > ARRASATE**  
Sei urte eraikuntza lanetan pasa ondoren, eta aurreku-si bezala, Garaia Berrikuntza Guneko lehen eraikina inauguratuko du martitzenean Ibarretxe lehendakariak.

Lehen eraikin horrek 200 langilerendako lekua du. Bestalde, Garaia Gunera, ibarretako hainbat empresetako langleak joango dira: Garaia-koak, MCCkoak, ATEGIkoak, Dualiakoak, ESAIkoak, etab.

Gunea Aramaiorako bidean kokatzen da, Olandiox mendiaren parean.

**AURKEZPENA, ASTELEHENEEAN**  
Inaugurazioa martitzenean bada ere, astelehenean, prentsurreko egingo dute Garaiako arduradunek gunearen berri emateko. Ektaldian izango dira: Jose Ramon Guridi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ezagutzaren Gizartearen Departamentuko zuzendari nagusia; Julian Sanchez, Euskadi Parke Teknologiko-en Sarearen Zuzendarria; eta Andoni Gartzia, Garaia Guneko zuzendarria.

Aurkezpenean berrikuntza guneari buruzko alderdi nagusiak, gaur egungo egoera eta etorkizuneko proiektuak azalduko dituzte.

**ORAINDIK BUKATZEKE**  
Lehen eraikina inauguratu arren, oraindik bada egitekorik Garaian. Bihotza bukatzeko, adibidez, ez da asko falta.

Horrez gain, beste bi eraikin ere ireki gura dituzte. Bata zerbitzu orokorrak emateko; bestea, lan edo ikastera doazenendako egoitza.

Guztira, 10-12 urtera begirako egitasmoa da.

Egurraren tratamendua (pipiak, termitak...)

Orain hezetasunaren tratamenduak egiten ditugu



**Garbi®**

Ibarluze poligonoa, B-12. pab.  
20120 Hernani  
Tel.: 943 33 18 37  
[www.garbicontroldeplagas.es](http://www.garbicontroldeplagas.es)

**gure artekoak**

**DACIA LOGAN BREAK** > Automobil berezia dakarkizuegu oraingoan; familiar erakoa da, baina, ohikoak baino altuxea goa eta zazpi bidaia rendako tokia eskaintzen diguna.

Kontxi Etxeberria > Autoberriko arduraduna

## "Simplea, baina, era berean, kalitatezko automobila da"

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Aurten merkaturatu du Dacia etxeak Logan automobilaren ber- tsio berria, Break bertsioa, hain zuen ere. Automobil berezia da eta hori ikusten dugu begiratu batera. Familiar erako automobil da, baina, ohikoak baino altuxea goa. Gainera, zazpi bidaia rendako tokia ematen digu. Bi modelo dauzkagu aukeran: bost plazakoa edo zazpi plazakoa.

**SINPLEA, BAINA, KALITATEZKO**

Horrelaxe deskribatu daiteke Dacia Logan Break automobia, bi hitzetan: "Simplea, baina, kalitatezko automobila da", diosku Kontxi Etxeberriak. Simplea, luxu eta konplexutasun handi barikoa delako. Baina, era berean, kalitatezko ere bai; Frantzian, esaterako, kalitate saria eman diote. Simpletasunak berak ematen dio, gainera, kalitatea. Batetik, kalitatezko motorra dauka, eta bestetik, hona hemen kalitatearen beste erakusgarri bat, Kontxi Etxeberriaren hitzetan: "Saldu ditugun Logan Break automobilek ez digute batere arazorik eman, talierra ez dute asko eza- gutzten automobil horiek".

Logan berriarekin jauzi garrantzitsua egin du Dacia etxeak; aurrez, berlina modeloa bakarrik zegoen automobil hori.



Kontxi Etxeberria Dacia Logan Break automobila erakusten.

A.I.

### Ambiance 1.6 90 ZP

Prezioa	11.950 euro
Luzera	4,45 metro
Zabalera	1,99 metro
Maletategia	1.500 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	7,8 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	167 km/h <sup>(3)</sup>
Otik 100era	13 seg.
CO2 isurketa	175 g/km

(1) Gehienezko edukiera

(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta

(3) Gehienezko abiadura

### ESPAZIO HANDIA

Batetik, bidaia rendako espazio handia eskaintzen digu: zazpi edo bost bidaia rendako tokia, eroso joateko moduko tokia. Bestetik, maletategi handia lortzeko aukera ere ematen digu. Izen ere, bost eserleku jarrita dauzkagunean, 700 litroko maletategia dugu; atzoko bost eserlekuak kenduta, bestalde, 1.500 litro inguruko maletategia geratzen zaigu.

Familia handiendako, espazioa apreziatzen duten familia ez hain handiendako edo norbanakoendako oso automobil egokia, eta prezio oso egokia duena.

**begi-bistan**

**Igerilekuak Ondarren  
(Antzuola)  
2007/06/09**

Argazkia: Beñardo Kortabarria.  
Testua: Aintzane Irizar.

Irudi bitxia laga ziguten Ondarre auzoko jaiet aurreko asteburuan. Hiru igerileku jarri zituzten eta bero sargoriarri aurre egiteko aukera polita izan zuten neska-mutikoek.

**Har ezazu parte:**

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiena.com

**etxeko leihotik**

Eneko Azkarate > GOIENKARIAko zuzendaria

## Hiru emakume alkate Debagoienean

**A**urpegi berriak ikusiko ditugu alkatetzatan bihar. Ezus-tekorik ezean, oraingo alkate bakarrak eutsiko dio: Lourdes Idoigak, Oñatin. Hura izango da, gainera, EAJKo alkate bakarra, orain arte ibarreko 7 herritan izan dituzte-nean. Aramaion, lehenengo aldiz izango dute ezker abertzaleko alkate bat: EAEko Asier Agirre. Elgetan, lehenengo aldiz Aralarreko bat: Oxel Erostarbe, orain arteko Patxi Basaurik karguan eman dituen urteak baino gazteago denak.

Arrasaten eta Bergaran, lehenengo aldiz emakume bat alkate eta, hala, hiru emakume alkate izango ditugu ibarrean, hiru herri nagusietan, gainera. Ea hiruron artean eta bes-teen laguntzaz, eskualderako proiektu garrantzitsuak bultzatzeko gauza diren.

Baina batez ere Aretxabale-tara begira egongo gara bihar. Baliogabetutako EAEko burua, Anjel Bergaretxe, izan baita bozkatuena, baliozko botoen arabera Aralarreko Inaxio Garro izan den arren irabazole. Eta hura izango da seguruen alka-te. Ez du lan erraz eta eskerronekoia izango. EAEkoie Udal berrian leku egitea izango da alkate berriaren eta gainera-ko alderdien erronka nagusietako bat. Oñatin ere bai.

**> Ongietorri** eta zorte on alkate eta zinegotzi berriei eta eskerrik asko egindakoagatik orain artekoei. Oker eginda-koez gain, ondo eginda-koak ere badira-eta: Arrasate, esaterako, politago dago orain.

**> Bergarako EAJKo** zerrendaburuak, Ger-man Muruamendiarazek, buru-belarri jardungo du Udalean, oposizioan bada ere. Asmo horrekin laga du aurreko jarduna: Kalitatea Fundazioko zuzendaria zen.

**izen propioak**

**Mikel Carmona**

IDAZLEA



**Isaias Sandino**

TABERNARIA



**Gurutz Larrea**

TXIRRINDULARIA

Mikel Carmona Tabernarien I. Txapelket-a jokatu dute Donostian eta bigarren postuan sailkatu da Isaias Sandino oñatiarra; gaur egun, Oñatiako Aloña Mendi tabernan dihardu lanean; bai-ta Gasteizko Copa Cafe La Parada tabernan ere. 25 profesionalek hartzutzen parte.

Gipuzkoako Erlojuaren Kontrako Txapelketan hirudarren sailkatu zen eguztenean, Aizarnazabal, Gurutz Larrea antzuolarra. 23 urtez azpikoen artean, bigarrena izan zen Bidelan taldeko. Unai Arantza-zabal talde bereko bergararrak, bestalde, laugarren pos-tua eskuratu zuen.

Bergarako UNEDeko irakasle den Manolo Cainzosen *Herri mugimendua. Bergara 1970-*

1980 liburuaren aurkezpena egin zuten atzo, eguna. Garai hartan hainbat ekimen abian jar-

tzeko bergararen partaidetza eta inplikazioa ezinbestekoa izan zen. Ehun lagun inguru

elkarrizketatu ditu Cainzosek; orduko protagonista ugari bildu zen atzoko aurkezpenean.

Manolo Cainzos > Irakaslea

# "Zoritzarrez, gaurko gizartea ito egin ditu garai bateko herri mugimenduak"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Coruñako Curtis herriko sortzez, orain dela 40 urte etorri zen Bergarako Manolo Cainzos. 1976. urtetik, UNED ikastetxea sortu zutenean, bertako psikopedagogia departamentuan ibili da lanean. Erretiroa hartzean ordua heldu zaio orain. Agur modura, *Herri mugimendua. Bergara 1970-1980* izenburuko liburu eman du argitara. Sasoi harta-ko lekuko zuzena da Cainzos.

Zer jaso duzu aurkeztu berri dugun liburu honetan?


1970eko hamarkadan Bergarako eman zen herri mugimenduaren esperientzia historiko jaso nahi izan dut. Bergarak sasoi hartan zituen beharren kontzientzia hartu zuen herriak, eta herri mugimenduari esker hiru arlotan nagusiki hobekuntza nabaria eman zen: bizitza kalitatean, kultur mugimenduaren dinamizazioan eta demokrazia politikoen aldeko ekimenetan. Herritarren artean egon zitezkeen kultura eta ideologia differentzien gainetik, arazo konkretuei lehentasuna eman zitzaien. Errepresio politiko eta sozialaren testuinguru hartan jaiotako esperientzia herri-tarra guztiz berezia izan zen.

Zein izan zen hain egoera zai-lean herri mugimenduak horrenbeste indar izateko kla-bea?

Herri mugimenduak hiru oinarri sendo izan zituen: Promoción Cultural elkartea (besteak beste, ikastetxeen hobekuntzaren eta kultur ekitaldien alde lan bikaina egin zuena); Alkartu-Nai elkartea (nagusien, gazteen eta gutxituen beharrekiko sentsibilizazioa erakustearaz gain, autogestio ekonomiko eta kolektiboa bultzatu zuena) eta Udala. Krisi ekonomikoaren eta egoera politikoaren ondorioz, adminis-trazioa heltzen ez zen esparruetara iritsi zen herri mugimendua, arazo konkretuei irtenbidea topatuz. Goraipatzeko da herriak momentu horretan erakutsi zuen kohesio soziala.

Demokrazia ezarri aurretik, ez zen erraza gertatuko herri mugimenduari protagonismoa ematea, ala?

1970eko hamarkadaren aurretik, jarrera demokratikoa zuten hainbat zinegotzi ziren udalbatzan. Eta 1976ko lehen hauteskunde aurre-demokratikoekin Udalak jarrera irekia erakutsi zuen, batzordetan herritarren partai-



Manolo Cainzosek *Herri mugimendua. Bergara 1970-1980* izenburuko liburu aurkeztu zuen atzo, UNEDen.

E.M.

detza sustatzetik eta ordurako martxan ziren herriko elkarteei protagonismoa emanetik. Era berean, kanpora begira, Debagoieneko Mankomunitatearen sorreran era-gile nagusietako bat izan zen eta *Grupo de alcaldes de Bergara* ize-neko taldea bultzatu zuen, alda-rrikapen askoren protagonista izan zena: foruen berrintegralea Euskal Herriaren eskubide historiko bezala, giza askatasunen berreskuratzea, Ikerriñaren legezatzea, euskararen koofizialtasuna eta Nafarroaren integratza Euskal Herrira.

Zein beste ekintza nabarmen-duko zenuke garai hartatik?

Herritarren partaidetza bultzatu nahi zuen autogestio popularraren modeloia aipatu beharko genuke. Hilero, lanordu bateko ekarpenarekin, proiektu solidarioei aurre egin ahal izateko fondo komuna sortzea zen helburua. Botazio bidez aukeratutako asan-blada batek gestionatzen zuen dirua, aurretik zehaztutako

1970-1980 URTE BITARTEA

**"Errepresio politiko eta sozialaren testuinguru hartan jaiotako esperientzia herritarra guztiz berezia izan zen"**

IRTENBIDEAK

**"Administrazioa heltzen ez zen esparruetara iritsi zen herri mugimendua, arazo konkretuei irtenbidea topatuz"**

HERRI EKIMENAK

**"Minusbaliatuekiko sentsibilitatea eta konpromisoa erabatekoia izan zen Bergaran"**

proiektuetara bideratuta. Bi urtez irauen zuen ekimen honek. Hainbat alderdi politiko eta sindikatu kontra azaldu ziren, *ezku-tuko inpuestotzat* jotzen zutelako. Bestalde, herriko ikastetxean egindako hobekuntzak nabarmentzekoak dira eta batez ere gutxituen arazoekiko Bergarak erakutsi zuen sentsibilitatea azpi-marratuko nuke.

**Zeintzuk izan ziren ekimen nagusiak zentzu horretan?**

Minusbaliatasunen bat zute-nekiko sentsibilitatea eta konpro-misoa erabatekoia izan zen. Kasu benetan harrigarria da Bergarako: 1960. urtearen aurretik ez zen apenas ezer egiten minusbalia-tuen alde eta Gipuzkoa izan zen aitzindarietako bat. Ziurrenik, Espainia mailan, minusbaliatuei zuzendutako zentro gehien iza-tera iritsi zen Bergara 1970eko hamarkadan: gaurko Gureak, Elbarri Lan (gaurko Katea), Arans-gi, Patronato San Miguel eta Aspace. Seminarioko eraiki-

na erabakigarria izan zen horren-bestetik entitateri lekua topatzeko orduan, 14 entitate jasotzen iritsi zen eta. Ikastetxean zuzendutako psikologia gabinetea ere era-tu zen, ikusmena erre-kuperatze-ko sekzioa baita... Eta 1977an plan guztiz berria jarri zen martxan, Debagoienari eta Debabarrenari psikopedagogia zerbitzua eskaintzeko. Guztira, 35 tekniko zeuden lanean. Esfortzua ikaragarria zen.

**Zein da liburu honekin plaza-ratu nahi izan duzun mezuak?**

Azken batean, gure gizarte-an herritarren partaidetza defen-datu nahi dut. Elkarteek eta herri mugimenduak protagonis-mo handiagoa behar dute; legalki beraien partaidetza erregula-tza beharrezkoa ikusten dut, haien iritzia kontuan izateko eta haien botoari bidea emanez. Gaur egun, zoritzarrez, gizarte-ak ito egin ditu herri mugimenduak. Botere guztia alderdi poli-tikoek esku dago.



zabalik

Maite Aristegi

## Erantzun bila

Zergatik egin dugu porrot ziklo politiko honetan ere? Zeintzuk ez dituzte etxeko lanak bete 14 hilabete luze hauetan? Su-etenaren hausturara gindoazela hain argi bazegoen, zergatik ez da lan gehiago egin hori gerta ez zedin? Edozein gatazkenen konponbide prozesuan oinarrizko printzipio jakin batzuk badaude, eta hala adierazi dute etorritako hainbat adituk, zergatik ez du Espainiako Gobernuak horietako bat ere garatu su-etenan zehar? Are gehiago, zergatik izan da hain erasokorra, eta bere jarreraz harro azalduz gainera? Alderdi instituzional euskaldunek ere zergatik ez dute ezer egin horiek errebindikatzeko, ganora gehiagoz salatzeko? Gizartearren %94 konponbide elkarrizketaurren alde bagaude, zergatik ez dugu prozesua gehiago bultzatu? Zergatik ez da aintzakotzat hartu ezker-abertzalearen ahalgina bake bidean? Zer gertatzen da EAJ barruan, ezezkoaren ahotsa hala nagusitzeko? Baldin bada, non da Zapaterok ordezkatzen ei duen Espainia antifrankista hori? Zer espero dezakegu aste honetako Espania bien arteko besarkada eta erregetza zaharrez, azken aldian majo sufritutako errepresioa areagotzeko mehatxuaz? Noraino iritsi daiteke orain mendeku gosea? Nola babestuko ditugu, besteren artean, 18/98ko epaiaren zain dauden eskuhibide zibil eta politikoak? Galderak galdera, hauteskunde-emaizta hauetatik ere atera daiteke erantzunik, gure bailaran inon baino gehiago: aukera egon denetan herritarrek prozesuaren alde bozkatu dute.

**"Aukera egon denetan herritarrek prozesuaren alde bozkatu dute"**

**"Itxaropenerako atea irekitzen saiatu beste biderik ez dago. Eta denok gara beharrezko"**

Gauzak erabat okertzen bazaizkizu, kantuan egin

### BERGARAKO AGORROSINGO ATLETISMO PISTEN ORDUTEGIA

**Bergarako emakumezko batek idatzi digu oraingo honetan. Jakin nahi du Agorrosingo atletismo pistak ze ordutan egoten diren irekita. Haren esanetan, "senarra 06:30-07:00 inguruaren joaten da korrika egitera. Gehienetan zabalik aurkitzen du atea, baina batzuetan itxita ere topatu izan du. Ze ordutegi dauka?"**

Bergarako Kirol Elkartera jo dugu erantzunaren bila eta elkarteko ordezkarien esanetan ez dago ordutegi finkorik. Bergarako Kirol Elkarteak jarritako pertsona bat dago atletismo pisten erdian dagoen futbol zelaiaaz arduratzeko.

Hark beharren arabera atontzen du zelaia, egiten ditu beharrezkoak diren konponketak... Hori horrela, ez du ordutegi finkorik. Bestalde, Bergarako Kirol Elkarteko ordezkarien esanetan inoiz instalakuntzak zabalik laga izan dituzten arren, gaur egun ez dute halakorik egiten: "Ez ditugu instalakuntzak zabalik lagatzen inoiz hainbat gauza

apurtuta agertu izan direlako, eta halakoetan nor egiten da erantzue?", azaldu dute.

### BASERRIETAKO PLASTIKOA BATZEKO EGUNA

**Irakurle batek galduen base-rringurunean sortutako plastikoa batzeko eguna noiz izango den.**

Bada ekainean ez da halako zerbitzurik izango. Hurrengo batzea eguna uztailaren 24a izango da.

#### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

SAN MARTZIAL EGUNERAKO MAHAI ETA AULKIAK

**Bergarako irakurle batek jakin nahi du noiz jarriko dituzte alo-kagai San Martzial egunerako mahai eta aulkia.**

Kultura zerbitzuak astean eman du horren berri. Hain justu, hilaren 19tik 25era (biak barne) alokatu ahalko dira, astegunean, 17:00etatik 20:00etara, kultura etxeen. Mahai bakoitzaren alokairua 20 euro dira eta eska-tzaile bakoitzak 100 euroko fidantza jarri beharko du (egindako eskaerarekin agiria emango dute). Era berean, eska-tzaile bakoitzak ezingo ditu bost mahai baino gehiago eskatu eta mahai bakoitzeko ezingo dira zortzi aulki baino gehiago hartu.

Ekainaren 30ean hartu ahalko dira alokatutako mahai eta aulkia, 17:00etatik 20:00etara, San Martzialgo kantina ondoan. Itzuli, berriz, leku berean egingo dira, jaiaaren ondoren, 19:00etatik 21:30era.

Fidantza jasotzeko, uztailaren 3tik 9ra pasatu beharko da kultura etxetik, 17:00etatik 20:00etara.

## marrakiz

Alex Ugalde



## Goienkaria

**Argiratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendarri nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herrrik), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Iriar **Oinarrizko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiniano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereziar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarin, Ane Bereziar, Mariu Unamuno.

**EGOTZA NAGUSIA**  
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goienna.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goienna.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goienna.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goienna.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak  
ikuskaritutako astekaria

### LAGUNTZIALEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiako  
Udala



Aretxabaleta  
Udala



Eskoriatzako  
Udala




Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## Zergatik hain ezberdin?

Pello Urzelai

www.berria.info/blogak/pello

**B**akoitzak ardura eta esparru ezberdinak dauzka. Baina zergatik dira hain ezberdinak Juan Jose Ibarretxe eta Josu Jon Imazen diskurtsoak. Biek hitz egin dute ETAren su-etenaren hausturaz, eta konparazioa saihestezina da. Ibarretxeren adierazpenetik honako gakoak nabarmenduko nituzke:

- "Inor baztertu gabe, elkarriketa politikoa erabil behar dugu gure bizikidetza arazoei irtenbidea bilatzeko. Elkarrizketarik gabe ez dago konponbiderik".

- "Gure konfiantza euskal gizartean dugu, euskal gizarteak erabaki sendoa hartu duelako etorkizuna erabakitzeko eskubidea erabiliko duela, babesik, mehatxurik, koakziorik eta debekurik gabe. Eta etorkizun hori batea da halabeharrez".

- "Badakigu beharbada norbaitek pentsatuko duela ETAk indarkeria berriro erabiltzea erabaki duenean

politika egiteko garaia ere bukatu dela. Bada, ez. Argi eta garbi, ez".

Orain behar da, inoiz baino gehiago, ekimen politikoa, indarkeria gainditu eta euskal gatazka konpontzeko".

Imazen hitzalditik honako hauetek:

- "Batasunak erakutsi du ez duela autonomia politikorik. Une batzuetan itxuraz adierazten duen basakeria, erailtzan hasteko asmoa dutela esanez mehatxatzen dutenen eta beren intolerantziaren jomuga zenbait gizaki bilakatzen dituztenen aurrean, otzantasan eta mendekotasun bihurtzen

plazara

Jaurlaritzak ingurumena zaintze-  
ko 44 konpromiso hartu ditu 11  
helburu estrategikotan batuta.  
Arroabek, baina errezeloz hartu

du egitasmoa; hain justu, "ingu-  
rumena errespetatzen ez duten  
proiektuak inposatzen dizkigula-  
ko". Klima aldatzen ari dela dio,

eta neurriak lehenbailehen har-  
tu behar direla ere uste du, bai-  
na aldaketak baino, beste proiek-  
tu batzuek izutzen dute gehiago.

Mikel Arroabe \*

## Haitzuloaren mitoaren beldur

Liga amaitzean daukagu eta gauzak ez doaz ondo. Euskal Herriko giro politikoak irakiten ari da, nola ez. Ekainen seian Nazioarteko Ingurugiroaren Eguna "ospatu genuen". Mundu osoko gobernuak bilku-  
ra bereziak egin zituzten alda-  
keta klimatikoaz eztabaidatzeko.  
Hala ere jendearen burmuinetan futbolak eta politikak baino ez  
daukate tokirik. Normala da.

Eusko Jaurlaritzak 11 pun-  
tutako proposamena plazaratu  
zuen egun hartan Gernikan egin-  
dako bilkuran. Karbono dioxido-  
aren isuriak gutxituko ditu, aire  
eta uraren kalitatea hobetuko  
du, baliabide naturalen eta ener-  
gia iturrien kontsumoa kontro-  
latuko du, hondakinak murriz-  
tuko ditu, eremuene "artifizi-  
zazioa" saihestuko du... Eta  
asmo hauek denak lortzeko 44  
konpromiso hartu ditu Jaur-  
litzak, 11 helburu estrategikotan  
bilduta.

Itxura zoragarria dauka eta biologo naizen aldetik biziki txal-  
lotu beharko nuke egitasmo hau.  
Baina zergatik sortzen ote diz-  
kit hain errezeloz sakonak?

Ezagutzen duzue Platonek aipaturiko Haitzuloaren mitoa?  
Filosofo greziar honek parabo-  
la baten bidez azaldu nahi izan  
zituen gizakiak mundua uler-  
tzeke dituen mugak. Berak zio-  
neze gu leize baten barnean bizi  
gara eta kanpotik sartzen den  
eguzkiaren bidez gure gorpu-  
tzek sortzen dituzten itzalak  
interpretatuz saiatzen gara mun-  
dua ulertzen, itzal txinatarren  
antzezlan batetan gertatzen den  
antzera. Noizean behin ikusleo-  
tako batek buelta eman eta eguz-  
kirantz begiratzen du egiazen



MIKEL ARROABE

bila, baina ez dago prestaturik  
eta argiak txiribitak sortzen diz-  
kio begietan.

Ez al da berdina gertatzen  
oraingo honetan ere? Eusko  
Jaurlaritzak linterna handi bat  
dauka eta plan ponposo bat pro-  
posatzen digu kabernikola guz-  
tioi, baina bitartean autopistak,  
AHT, superportuak eta beste  
hainbat proiektu sartzen dizki-  
gu.

Erregai fosilak murriztu  
nahi dituztela diote. Egiten ari  
diren autopista asmo horren era-  
kuslea al da? Agian auto elektri-  
koek bakarrik izango dute era-  
biltzeko baimena. (txistea zen).  
Azken lau urteotan gure baila-  
ran jo ta sua ibili dira proiektu

**"EZ NAIZ HASIKO ESATEN  
MUNDUAREN APOKALIPSIA  
DATORKIGULA HAINBAT  
SASIEKLOGISTAK  
DIOTENAREN ANTZERA"**

**"Klimaren aldaketak ez  
nau izutzen. Hori bai, gu  
tontotzat hartuz gure  
bizkarrean egiten den  
trapitxeoak izutzen nau"**

erraldoi hori eraikitzen, kontu-  
ratu zarete? Inork aukerarik  
izan du alternatibarik aurkezte-  
ko? Eta orain autopista erdi egi-  
na dagoela atzera bota daiteke?  
Ez nago autopistaren aurka,  
agian beharrezko da. Ziurrenik  
bai. Baina demokratikoa izan da  
eramandako prozesua?

Garraio publikoa ere bultzatu  
nahi dute. Horretarako tran-  
bia egingo digute. Ze ondo! Bada-  
kizue Bergarako jaietan goize-  
ko seietan izugarrizko jende pila  
zegoela autobus geltokian? Auto-  
busak falta ziren. Ez du honek  
jendea autoa hartzera bultzatzen?

Lurzoruaren artifizializazioa  
saihestu nahi dute. Ez dut ongi  
ulertzen hitz honen esanahia.  
Urkulurako pentsatuta duten  
super-proiektua eraikitzen dute-  
nean hobeto ulertuko dut.

Klima aldatzen ari da, argi  
dago. Neurriak hartu beharko  
genituzke lehenbailehen. Ez naiz  
hasiko esaten munduaren apo-  
kalipsia datorkigula hainbat  
sasieklogistak diotenaren  
antzera. Mundua aldatu egingo  
da eta gu moldatu egingo gara.  
Besterik ez. Lurrik glaziazioak  
ezagutu izan ditu, bueno, orain  
lehorteak datorkigu. Eguzkitako  
krema gehiago gastatu eta kitto.

Klimaren aldaketak kezka-  
tzen nau, bai, baina ez nau izu-  
tzen. Hori bai, gu tontotzat har-  
tuz gure bizkarrean egiten den  
trapitxeoak, horrek bai izutzen  
nau.

\*Mikel Arroabe, biologoa eta  
irakaslea da

## zer deritzozu?

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Zer deritzozu  
ETAk su-eten  
iraunkorra  
hautsi izana?

### > PENA

Izugarrizko pena hartu  
nuen. Ezker abertzalea ere  
hainbat udaletara iritsi da  
eta ez dakit ETAk su-eten  
hautsi izanak onurarik  
egingo dion.

Ainara

### > EZ NAU HARRITU

Ez dut esango poztzen  
naizenik, ezta gutxiagoik  
ere. Hala eta guztiz ere,  
harritu ere ez nau egin.  
Batez ere, Espainiako  
gobernuak prozesuarekiko  
izan duen jarrera ikusita.  
Benetan izan dute bake  
prozesurako jarrera?

Miren

### > NI ERE SINPLISTA

Galdera sinplea da. Gaizki  
iruditzen zait eta espero  
nuen, Euskal Herriko  
jendartearen gehiengoak  
bezala. Baina, zergatik ez  
diogu gure buruari galde-  
zen zer iruditzen zaigun  
PSOE eta EAJ alderdien  
proto-mahaitik altzatu eta  
Batasuna bakarrik utzi  
izanaz? Noski, hobe holako  
hausnarketarik ez egitea,  
zabor guztia irentsi eta  
aurrera?

Gaztoki

### DATORREN ASTEKOAK: Udako ikastaroetan parte hartzen duzu?

Eman zure iritzia  
[www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian.  
Datorren astean  
argitaratuko ditugu  
hemen erantzun  
interesgarrienak.

## koplak

Egoitz Aizpuru

### Animo!

Badut lagun bat aparta  
berari nahi diot kanta  
humore gabe dabil tipoa  
Errealekoa da ta.

Sailkapenari begira  
ezin joan urrutira  
azkenaldian futolarekin  
gaizki pasatzen ari da.

Kuadrilan kriston problemak  
lantegian gogorenak  
etxearen ere ez omen ditu  
bere garairik onenak.

Edana erremedio,  
ardo beltzetik serio,  
ardo gorriak edo txuriak  
kalte egiten bait dio.

Lagun mina, lagun triste  
azalpen on baten eske,  
ta igandean oraindik ere  
okerrago jar daiteke.

Tipoa ikusten baduzu  
aupadak emaizkiozu,  
hau gainditzeke beharko du ta  
berak eskertuko ditzu.

da. Gaur egun ez dago solaski-  
de onargarririk Batasunen".

- "ETArentatua ezin  
gaitu zubiak apurtuta harrapatu.  
Aipatutako atentatuak ezin  
du gizartearren eta ordezkarri  
politikoaren artean istilurik  
sortu. Terrorismoari aurre  
egiteko gutxieneke oinarriak  
bilatzeko gure konpromisoa  
nabarmendu nahi dugu".

- "Bakea lortzeko itxarope-  
nak ez ditugu galdu. Gizartea-  
ren nahia bideratu behar dugu,  
bakean oinarritutako eszenato-  
ria lortzeko. Baina, horretaraka-  
ko, beharrezkoak dira elkarri-  
keta demokratikoa eta parteka-  
tutako estrategia garbiak.

Borondate irmoarekin, baina  
boluntarismorik gabe".

### Errealitatea eta itxaropena

Luis Aranberri 'Amatino'  
[www.eibar.org/blogak/amatino](http://www.eibar.org/blogak/amatino)

Eskuin olatuak Frantzian  
izan duen indarra ikusi os-  
tean, hainbatek esango du  
ideologiarenak egin duela eta  
besteren batek ezkerraren eta es-  
kuinaren arteko aldea modaz  
kanpo dagoela. Baina, segurutik,  
bada beste aukeraren bat: ezke-

## Baliorik gabeko ezagutza teknologikoa

**Maitane Igartua**  
Aretxabaleta

"Eta galdezen didate zergatik ez naizen nire herriko bueltatzen, hartutako trebeziak praktikan jartzera. Baino zer uste dute? Horren erraza dela? Noski nik bueltatu nahiko nukeela, baina, orain, ez zait horren erraza egiten bertara bueltatzea.

Izan dudan suerte eta trebezia itzela izan da, 2.000 pertsona geunden fundazio batek ematen zituen 6 beken-tzat hautagai, eta onuraduneta ko bat izan nintzen. Hala, gobernuak beharrezkoztat jotzen zituen materietako bat ikasteko parada izan nuen, geografia eta lurraldetako hiri plangintza. Hasierak zailak izan ziren arren, klasoko onenetakoia izatea lortu nuen urtero, eta informazio geografiko sistematan espezializatzeko aukera eman zidaten. Hain baliagarria eta interesgarria iruditzen zitzaidanez, ezin izan nion aukerari uko egin, baina zalantzak ere izan nituen berau proposatu zidatenean, oraingo ezinegon hau sortuko zitzaidala nekielako.

Alde batetik horretan egin nahi dut lan, teknika hori aplikatuz, izugarri interesgarria iruditzen baitzait lurraldetako hirien garapen jasangarri baten alde lan egiteko, baina bestalde, nire herrian egin nahi dut lan, nire herriaren alde egin nahi dut apustu. Eta gauza biak ezin dira aurrera eraman, nire herrian, ez baitaude sistema hau aplikatzeko teknologiak eskura, ezagutzen berriztapena ezinezkoia izango zelarik baita ere.

Pobretutako herriok teknologiaren beharra dugu, guk nahi eta guretzat apropos den garapen jasangarria aurrera eraman ahal izateko. Teknologia hauetako eskura izan gabe, ezinezkoia izango da, nik bezala, beste askok gure herrietara bueltatzea lortutako ezagutzak praktikan jartzera".

Arrazoi osoa du Antoneta Djoló-k, teknologia guztiak esku egotearen alde egin beharko dugu, herrialde bakoitzak berarentzat egokia eta jasangarria den garapena-ren alde egin dezan nahi badugu.

(Milurteko 8. helburua: Garapenerako Munduko Elkartea Sustatzea. 18. helmu-ga: Sektore pribatuarrekin batera, teknologia berrien onuren ustiapena erraztea, batez ere informazio eta komunikazio-koak).

## Rekarteren agurra

Lander Martinez > Arrasate

I txura guztien arabera domekan esango dio agur Realari Aitor Lopez Rekarte. Gazte zela egin zuen debutua lehen taldean eta azken urteetan taldeko kapitain izan ostean, maletak hartu eta beste toki batean jardun beharko du aurrerantzean. Joan zen zapatau jokatu zuen azkeneko Anoetan, etxeko zaleen aurrean, eta hori izan da arrasate-rraren denboraldiko eta azken urteetako partidurik onena. Hala jokatu izan balu beti...

Jokalari ona izan da Rekarte Realarenak, etxeko zale batzuk aurka eduki eta txistuka ibili bazaie ere. Guztiz onartezina zale horien jarrera. Halere, kapitain moduan, kanpora begira behin, hainbatean ez du neurririk eman. Egua-ztenean, esaterako, zera esan zuen kazetarien aurrean: "Ezin dezaket itxaropena sorrarazi, ez dudalako sentitzen". Realeko kapitain batek ezin dezake hori esan, klubaren historiako partidurik garrantzitsuenaren atarian.

## Guztioa artean lortuko dugu!

Aitor Urizar Nafarrate

(Portaloirako topagunea)

Arrasate

Bi estatuen mendekuzko espelte politikaren ondorioz, zigorra beteta izan arren, espeltean mantentzen dute *Gazta*. Mendekuzko espelte politika horrek kartzelan mantentzen du larri gaixo larri dagoen Josu Uribetxeberria ere. Gobernu espainiarren espelte politikaren ispi-lua, halere Jon Agirre da. 26 urte preso, 62 urterekin, eta larri egon arren eta zigorra beteta izanda ere, beste 5 urtez espeltean eduki nahi dute.

Herriko gainontzeko preso politikoak dispertsaturik dituzte, beraien eskubide guztiak sistematikoki urratzen dituztelarik.

Jon, Josu eta *Gazta*-ren berehalako etxeratzea eta gainontzeko euskal preso politikoak eskubide guztiak jabe Euskal Herritarrea eskatzeko salaketa eta elkartsun egun bat antolatu genuen larunbatean Arrasaten. Guk antolatu genuen bai, baina zuen laguntzarik gabe ez zen eguna aurrera aterako:

Eskerrik asko herri kirolen antolakuntzan aritu zen lan taldeari. Animuak Egoitz! Eskerrak baita ere, haurren txokoko laguntzaileei. Interpelazio taldeari, hain bazkari gozoa prestatu zenutenoi, tabernari eta tabernei, ekitaldoi aurkezleei, txalapartariei eta bertsolariei. Irrintzilariairi, hain dantza ikuskizun ederra eskaini zenutenoi dantza-ri gazteei, abeslariei, prentsari gure mezua agertzeko lan egin duzuenoi...

Arrasateko gaztetxeari besarkada bero bat, ekaitzaren ondorioz kontzertuak leku

aldatu behar izan genituenean erakutsitako prestatasunagatik. Eskerrak baita ere tarte horretan muntai guztia Monterronetik gazttxera eramaten lagundu zenuten guztioi.

Eskerrik asko tabernetan aritu zineten musika talde eta bakarlariei, eta nola ez gazttxean aritu zinetenoi. Honez gain, gure babesak eskaini nahi diogu Des-kontrol taldeari, azken aldian jaso dituen mehatxengatik. Ezagutzen zaituztegunok badakigu esamesa horiek ez dutela ez hanka eta ez bururik. Gure aldarrikapenetan zuek gure ondoan zaudenten moduan, gu ere zuekin gaude!

Eta nola ez eskerrik asko txanda desberdinaren lan egin zenuten ia 100 herriarrei. Bukatzeko atxikimendua eman duten eragileengana zuzendu nahi genuke. Jarrai dezagun eskubide hauen inguruan indarrak metatzen. Bakoitzak bere inguruan eragin dezala, bakoitzak espelte politika honen kruzelkeria azal dezala. Guztioa indarrarekin Jon, Josu eta *Gazta* berehalako aska ditzagun. Gainontzeko presoak berehalako herriatu ditzagun. Guztioa lana beharrezkoia izango da!

## AHTren aldeko jarrera zigortua

Mila Elortza

(AHT Gelditu! Elkarlanaren izenean)

Angiozar

AHT Gelditu! Elkarlanak, hauteskundeen ondorengo emaitzen balorazio eta irakurketa egin nahi du. Herriarrek AHTren aldeko jarrera zigortu dute:

M-27ko hauteskundeen emaitzak ikusi ondoren, zalantzarak gabe, AHTren

gatazkan egoera aldaketa bat eman dela esan dezakegu. Oso positiboki baloratzen dugu AHTren aurka dauden alderdiak herriko kaltetuetan lortutako emaitzak, eta ziur gaude pauso garrantzitsu bat suposatuko duela AHTren aurkako borrokan.

1. Abiadura Handiko Trenaren aldeko apustua egin duten agintariekin, herriarren zigorra jaso dute. Inposaketa eta gutxi batzuen negozio gosean oinarritu den agintaldiak erantzun indartsua jaso du, eta aldaketaren beharra gailendu egin da. Horrela ulertzen ditugu Aramaion, Abadion, Atxondon, Elorrion, Izurtzan, Bergaran, Arrasaten, Hernanin, Oiartzunen, Urretxun, Ordizian, Legorretan, Ikaztegietan, Anoetan, Aretxabaletan, besten artean, eta AHT pasatzen den hainbat herritan egon den aldaketa nabarmena.

2. Herri kontsultak egin dituzten herriak indartuta atera dira.

AHT Gelditu! Elkarlanetik, herri mugimendua egin duen lan eredugarria azpimarratu nahi genuke. Izan ere, agerian geratu den beste datu bat dugu, informazioa, eztabaidea eta partehartzea bultzatu duten herriek, herri kontsultaren ariketa praktikan jarri den herriean, AHTren aurkako jarrera indartu egin da. Geroz eta informazio gehiago, aurkakotasuna geroz eta nabarmenagoa. Borroka eta salaketa etengabeak fruituak eman ditu, eta hau asko nabaritu da obrak hastear dauden eskualdeetan: Goierri, Durangaldean eta Debagoienean ikusi den bezala.

3. Herri kaltetu askotan, lehenengo indarra AHTren aldekoia izatetik aurkakoa izatera pasatu da.

Herri mugimendu bezala baldintzak hobetu egin direla ulertzen dugu. Hala ere, argi utzi nahiko genuke, azkeneko urteetan egin dugun bezala, exijentzia berdinak egingo dizkiegula emaitza hauetan lortu dituzten Udal guztiei, eta konpromiso garbiak eskatuko dizkiegula hurrengo hilabeteetan. AHT Gelditu! Elkarlanak bere lana egiten jarraituko du, alegia, agintariekin ezkutatzenten duten informazioa kaleratzen eta proiektu antiekologiko eta antisozial honen aurkako mobilizazioak bultzatzen.

4. Gogor salatzen ditugu Nuria Lopez de Gereñuren adierazpenak:

Izan ere, hauteskundeen emaitzak jakin eta gutxira obrak ez zirela ezer aldatuko eta dena erabakita dagoela esan baitzen. Zentzu horretan, argi geratu da herriarren

nahia ez duela errespetatzen eta inposaketa eta errepre-sioaren aldeko hautua egiten duela. Berriz ere gogor salatu nahi dugu Ertzaintza bidali izana herritarra isilaraztea. Udalaitxeko magalean izan zuen jarrera, eta ikusi geni-tuen gertakariak ezin direla berriro errepikatu.

## Berezko etxe okupatua

Ander Lizarralde

(Oñatioko okupen asanbladaren izenean)

Oñati

Joan zen ekainaren 9an gazte talde batzuk Oñatioko Berezaoko industrialdean dagoen etxe bat okupatu dugu. Lau urte daramatzatza hutsik etxeak. Jabeak honako hauek dira: Oñatioko Udala, Gipuzkoako Diputazioa eta SPRI. Okupazio honen bidez etxebizitza lortzeko gazteok ditugun arazoak salatu nahi ditugu, eta bide batez arazoari berari irtenbide praktikoa eman nahi diogu bertan bizitzen jarri. Gurea ez da inoren kontura bizi nahia, gurea ez da alferkeriaren ondorio, eta ezta inori egindako lapurreta ere; ez ditzagun gauzak nahastu.

Etxebizitzaren egoera tamalgarria da: etxeak 60 milioi pezetatan, alokairua oso garesti eta etxe mordoa hutsik. Gazteok gurasoekin bizi edo leporaino hipotekatzea beste aukerarik ez dugu. Hitzetik ekintzeta pasatzenko unea da.

Babes ofizialeko etxeekiko kritikoak gara. Izan ere, eskubideek ez lukete zozketan zortea izan duten gutxi batzuen luxua izan behar.

Etxea hutsaraziko baliguke, erantzule zuzenak erakunde publikoak lirateke: Gipuzkoako Diputazioa eta batez ere Oñatioko Udala. Gizartean gai honi buruzko eztabaidea eta jarrera kritikoa bultzatu nahi dugu.

## ZUZENKETA

Joan zen asteko GOIENKARIAN ETAK su-eten iraunkorra hautsi zuela-eta, hainbat iritzi jaso genituen laugarren orrialdean. Bertan adierazitakoak, beren izenez esan zituzten iritzi emai-leek eta ezordezkatzen dute edo kide diren elkarrenez izenean. Rufina Olasagastik, esaterako, ezzuen Ekin Ema-kumeak elkarrearen izenez berba-egi, kide den elkarrearen inplikazio-izan gabe. Horixe argitzeko esku-tu digu Rufina Olasagastik.

GOIENKARIA

# ETXEBIZITZAK ETA GARAJEAK SALGAI URIBARRI AUZOAN (ARRASATE)



San Juan  
jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!



943 79 20 48



943 31 65 85



[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

### ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

### LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealeku 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

### ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

### ETXEERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

### LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

### IRIGOEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

### ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparagirre 1, behea / 943 76 27 95

### BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfonso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

## DIETISTAK

### ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behea / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

### RAQUEL PEREIRA GALDOS (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Nafarroa etorbidea 3 / 943 79 44 22

## ENTZUMEN ZENTROAK

### GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

### INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

### ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate / Arrasate Pasealeku 35-37 / 943 08 26 87

## FISIOTERAPEUTAK

### ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

### ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

### BASTERRETXEA MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

### EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64

### IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

### IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90

### UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### IRATZARRI LOGOPEDIA FISIOTERAPIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri Etorbidea7 / 943 53 39 90

## MASAJISTAK

### ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kirolegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

### ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

### ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

### CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

### ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

### ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

### BEGIENDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

### INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

## ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealeku 35-37 / 943 08 26 87

## MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

## PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

## ORTOPEDIA

### ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

### ETXEERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerlekuzeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### GARMENDIA LANDER

# Herriak

Arrasate > 12-13 Bergara > 14-16 Aretxabaleta > 17-19 Eskoriatza > 20  
Antzuola > 21 Elgeta > 22 Aramaio > 23



> ARRASATE  
Udalak 100.000 euro inbertituko ditu iragarritasuna bermatzeko > 19

> ARETXABAleta  
Datozen lau urteotarako Udala 10:00etan eratuko dute, bihar > 31

> OÑATI  
EAJ eta EAk ez dute argitu elkarrekin gobernatuko duten edo ez > 33

> ANTZUOLA  
'Ura Antzuolan' liburua argitara emango dute gaur, egubakoitza > 36

DEBAGOIENA > UDALEKU IREKI

## Ikasturtea bukatzean datozen udaleku irekiak, uztailaren amaierara arte

### EUSKARAREN ALDE

Herri guztieta lantzen ahalegintzen dira euskaren normalizazioa

### 80KO HAMARKADA

Aurreneko udaleku irekiak Aretxabaletan egin zituzten, 1986an, frogatua moduan

### UBANE MADERA > ARRASATE

Datorren astean bukatuko da, eskola gehienetan, 2006-2007 ikasturtea. Eta hura bukatu eta ia segidan hasiko dira gure ibarrean udaleku irekiak.

Herri guztieta egingo dituzte, uztailaren 2tik hasi eta hilaren amaierara arte. Herri bakoitzaren berezitasunak berezitasun, 3 urte dituzten neska-mutikoetatik hasi eta 14 urterera arterainokoak ibiltzen dira udaleku irekiak.

Gehienetan, tokian tokiko udalek antolatutako udalekuak dira. Bergaran, Arrasaten eta Gatzagan izan ezik; hiru herri horietan Xipizaro eta Txatxilipundi elkartek eta Gurel guraso elkartek antolatzen dituzte udalekuak, hurrenez hurren. Eta Aramaion, Udala arduradun izan arren, hango Ostadar elkartek egiten ditu koordinazio lanak.

### BERGARAN GEHIEN

Ume kopuruari dagokionez, berriz, Elgetan oraintxe zabaldute izenemate epea, beraz, oraindik ez dakite zenbat neska-mutikok jardungo duten. Eta Gatzagan ere orain dabilta antolatzen.

Beraz, bi udalerri horietako datuak albo batera, gainerako udalerrietako datuak batuz gero, 1.300 neska-mutiko baino gehiago eman dute izena udalekuetan.

Herriz herri begiratuta, Bergara da neska-mutiko gehien batuko dituen udalerria: 326. Arrasaten, berriz, 275 bat ibiliko dira, Oñatin 225 eta Aretxabaletan, 200. Herri txikiagoetako



HASIERAKOAK Aretxabaletako Udala bultzatutako udaleku irekietako argazkia, 80ko hamarkadakoak.

ARETXABALETAKO UDALA

datuak honakoak dira: Eskoriatzan, 150 neska-mutiko, Antzuolan, 110 eta Aramaion, 65.

Salbuespenak salbuespen, gaztetxoak ibiltzen dira, batez ere, udaleku irekietan, 7-8 urterera arteko neska-mutikoak. Hortik gorakoek beste aukera batzuk ere badituzte uztailerako eta horrez gainera, autonomia handiagoa ere izaten dute eta bestelako ekimen batzuk nahiago izaten dituzte askotan.

### BEGIRALEAK, FORMAZIODUNAK

Bestalde, udalekuetan, ume horiek guztiak zaintzen begiraleak ibiltzen dira. Eta ez gutxi, gainera, 150 gaztetik gora.

Azken urteetan, begirale guztiak formaziodunak izaten dira. Are gehiago, herri batuetan ume txikienen gurasoekin batzarra egiten dituzte udalekuak hasi baino lehen; bestetan eskolako irakasleekin ere bai eta guzti-guz-

tietan aldez aurretik eskola modukoak egiten dituzte, esperimentziadun irakasle edo bestelako aditurekin.

### EUSKARA, AISIA ETA KIROLA

Udaleku irekiak helburuei dagokienez, berriz, orokorrean, neska-mutikoei oporretan aisiaidirako tartea eskaintzea da, beti ere, euskararekin lotura zuzenean.

Adibidez, Arrasateko Txatxilipundi elkartek argi utzi gura izan du euskaren normalizazioa dela helburu oso garrantzitsua: "Zentratzen gara hezitzaileek izan dezaten euskara suspetzailearen profila, eta euskaren normalizazioa kontuan hartuta, helburuak lortzeko estrategiak finkatzen ditugu eurekin. Adibidez, aurten, euskal kantuak eta jolasak (berriak eta betikoak) lantzeko asmoa dugu".

Oñatin ere oso kontuan harzen dute euskararen erabilera.

Labur esanda, euskararen erabilera udako oporretan etenik gerita ez dadin ahalegintzen dira, bereziki, ume etorkinei begira: "Ikasturtean zehar, arratsaldez, erreforzuzko programa lantzen dugu ume etorkinendako. Bada hor, gomendatzentz dugu horiek sistemotikoki udalekuetan ibil daitezten. Modu horretan, hizkuntza praktika ziurtatuta izaten dute. Bestela, etenaldi handia izaten da irailera arte eta asko galtzen dute".

Bestalde, Elgetan, adibidez, aisialdia lantzen dugu eta hortik aurrerakoendako, berriz, kirola". Hala, multikirola, tenisa eta taitzia egiteko aukera dute, besteak beste, gazteek.

Orokorrean, ahal duten guztieta, kalean edo kanpoan egin beharreko ekimenak lantzen dituzte, umea naturarekin harremanetan ipintzeko, batez ere.

DATUA

1.300  
NESKA-MUTIKO

Elgetako eta Leintz Gatzagako datuak faltan, 1.300 neska-mutiko baino gehiago ibiliko da aurtengo udalekuetan. Herri gehienetan 3 urtetik hasi eta 14 urterera arteko neska-mutikoak ibiltzen dira.

AURRENEKOAK

> ARETXABALETAN LEHENENGOKo  
Aurreneko udaleku irekiak Aretxabaletako Udala bultzatzen hasi ginen egiten. Sasoi hartan ez ziren existitzen. Guk pentsatu genuen egitea eta hasieran udaleku zabalak izena ipini genien. Gero aldatu, eta udaleku irekiak izena ipini genien"; hala kontatuta dute Kultura Saitetik.

Aretxabaletako esperientzia ikusita ibarreko gainerako herrietan gero hasi ziren udaleku irekiak egiten. Arrasaten, adibidez, 1987an egin zituzten lehenengoak, Txatxilipurdirek eskutik. Eta apurka-apurka ibarreko herri guztieta zabaldu dira udaleku irekiak.

KONTUAN HARTZEKOAK

### > ELGETA

Oraintxe zabaldutu dute izenemate epea, ekainaren 26ra arte. Informazio gehiago behar duenak dei dezake honako telefonora: 943 76 80 22. Elgetako udalekuak izango dira uztailaren 2tik 20ra arte.

### > LEINTZ GATZAGA

Gatzagan ere oraintxe dabilta udalekuak antolatzen. Begiraleak lortuta dituzte; eta umeen izenak hartuko dituzte egunotan. Gatzagan udalekuak dira uztailaren 9tik 13ra eta 16tik 20ra.

### > ARRASATEKO TXATXILI

Arrasateko Txatxilipundi elkartek herri udalekuak antolatzeaz gain, Galdakao, Urretxu, Zumarraga, Gabiria eta Ezkio-Itsasoko udalekuetan arduratzen dira.

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapataua, 16	Azkoaga	Ferrieras 1	943 79 15 15
Domeka, 17	Azkoaga	Ferrieras 1	943 79 15 15
Astelehena, 18	Azkoaga	Iturriozt 17	943 79 79 99
Martitzena, 19	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Eguaztena, 20	Irizar	Erguia 11	943 79 12 39
Eguena, 21	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Egubakoitz, 22	Español	Araba 14	943 79 18 65

**BERGARA**

Zapataua, 16	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Domeka, 17	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Astelehena, 18	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Martitzena, 19	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguaztena, 20	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 21	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Egubakoitz, 22	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74

**ONATI**

Zapataua, 16	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 17	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 18	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 19	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztena, 20	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguena, 21	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Egubakoitz, 22	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

**ARETXABAleta**

Zapataua, 16	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Domeka, 17	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Astelehena, 18	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 19	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 20	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 21	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitz, 22	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia)	943 46 11 11
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)	943 76 55 76
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertsaindia	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramai	945 44 53 40
Arretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Onati	943 03 54 30
Udalzainoak	
Antzuola	943 76 62 46
Arrasate	943 79 14 39
Arretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Onati	943 78 04 11

**GARRAIoAK**

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate .....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Arretxabaleta	943 77 12 64
Bergara .....	943 79 12 22
Eskoriatza .....	943 71 40 59
Onati .....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate .....	943 77 11 43
Bergara .....	943 76 44 42
Onati .....	943 78 36 67

**LORAMENDI**

Arlutz tabernak eta	Loramendi elkartea
Loramendi elkartea	antolatu dute. Izenematea ekinaren 26a aurretitik egin behar da Arlutz taberna n.a. Taldeak gutxienez hamar lagunez osatuta egon behar du eta kideek 16 urtetik gora izan behar dute. Izenematea hamar euro da taldeko. Izena ematerakoan, taldearen izeana eta harremanetarako zenbakia eman beharko dira. Egutegi
Antzuola .....	943 76 62 46
Aramaio .....	945 44 50 16
Arrasate .....	943 79 09 00
Arretxabaleta	943 71 18 62
Bergara .....	943 77 91 00
Elgeta .....	943 80 22
Eskoriatza .....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga .....	943 71 47 46
Onati .....	943 78 03 53

**BERGARA**

Arrasate .....	943 77 16 77
Arretxabaleta	943 71 26 28
Bergara .....	943 76 56 41
Elgeta .....	943 76 82 84
Eskoriatza .....	943 71 53 28
Onati .....	943 71 63 75

**ARMAIAKO AUTOBUSAK**

Arrasate .....	Aramaio .....	Gasteiz .....
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	

Arrasate .....	Aramaio .....	Arrasate .....
08:30	09:00	09:15
10:15	10:30	10:45
11:30	11:45	11:30
12:45	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
17:35	17:50	17:50
19:15	19:30	19:30
19:30	20:10	20:25

**URBANOAK****ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.

**IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguia B, Arizmubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterri, Legaria, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.

**IBILBIDEA:** Eroski, J. Bengoa, S. Teresia, Obregon, Onerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguia A eta Gorostiza.

## kale inkesta

# Liburutegi berriaren proiektua aurkeztu dute. Zer deritzoz?



Malu Irizar  
Langilea  
Bergara



Ainhoa Bikuña  
Langilea  
Bergara



Juncal Gutierrez  
Langilea  
Bergara



Gorka Igartua  
Ikaslea  
Bergara



Jesus Lasa  
Langilea  
Bergara

Asko erabiltzen dut liburutegia. Ona da liburutegia handiagoa eta hobea egitea. Baliteke oraingo liburutegia txikiegia geratu izana. Han eskaintzen den zerbitzua, hala ere, oso ona dela iruditzen zait.

Liburutegia handitza ondo ikusten dut. Aspaldi ez naiz joan, baina lehen joaten nintzenean, Bergara baterako txikia zela iruditzen zitzaidan. Ordenagailuen zerbitzua ere han-ditu beharko litzateke.

Oraingoa ondo dago. Hobetzea, hala ere, beti dago ondo, interesgarria eta ona delako. Lanak taldeka egitteko gela bat egokitzea eta ordenagailu gehiago jarritza beharrezkotzat ikus-ten dut.

Oraingoarekin gustura nago, ez da leku txarra. Aspaldi ez naiz joaten, Arrasaten ikasten dut-eta. Baino Bergarako institu-tuan nengoenean hara joaten nintzen eta liburu asko zeuden.

Ondo dago. Kontuan har-tu behar da zenbatek era-biltzen duten liburutegia. Instalazio egokiek jende gehiago erakartzen dutela uste dut. Aspaldi ez naiz joaten, baina oraingoa txi-kiegi ikusten dut.

## txistuak



M.B.

# Aparkalekua egoera txarrean dago

Bergaran, Zubietza eta Mugertza kale artean dagoen aparkalekua oso egoera txarrean dagoela salatu du irakurle batek. Sarreran zulo handiak daudela eta lurra harriz beteta eta asfaltatu barik dagoela dio. Ahalik eta bizkorren konpon dezatela eskatu du erabiltzaileak.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlitzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

1.195

Arrasaten, gaur egun, 1.195 agure daudela jakin dugu egunotan. 80 urte baino gehiago dituzte horiek guztiak. Horietatik, herena gizonezkoak dira. 425 dira, hain zuzen, gizonezkoak. Emakumezkoak, berriz, 770 dira. Esanda-ko kopurua Arrasateko Udalak eskaini du.

## 5 galdera...

# Conchi Tamayo

Dermatologoa  
Oñati

**1.** Eguaiztenean, azaleko minbiziaren nazioarteko beguna izan zen. Zer egin daiteke hori ekiditeko?

Guk, profesionalek, biztanleria hezi eta sentsibilizatu behar dugu. Haurrei ere azaldu behar zaie eguzkia ona dela, baina gehiegizko txarra dela, azalean kalteak eragiten dituelako: azalaren zahartze goitiarra, eguzki-erredurak eta minbizia.

**2.** Eguzkia esaten diguten bezain oldarkorra da? • Beltzaran egotearekin itsutuegi egon gaitezke?

Bai, oso oldarkorra da. Neurriaz hartzen badugu ez da txarra, baina gehiegizko ez da ona. Fro-gatuta dago haurtzaroan jasandako erredurek eta eguzki-bainu eta solariuma larregi hartzek azaleko minbizia eragin dezakete, epe luzera. Beltzaran egotea, bestalde, moda hutsa baino ez da. Beraz, kanonak aldatu behar dira.

**3.** Eguzki gabe belzteko produktuak modan daude orain. Onak al dira?

Gomendagarriak dira, bereziki eguzkia edo solariuma hartu ezin duten pertsonendako. Hori bai, horrek ez du esan gura eguzki gabe belzteko produktuek babes-teko kremak ordezkatzen dituztenik. Biak erabili behar dira.

**4.** Zer izan behar da kontuan babesteko kremak erosteko orduan?

Arazorik gabeko azalak, gutxienez, 15 edo 20 faktoreko kremak behar ditu. Hortik beherakoek ez dute babesten. Besteek 30 faktoretik gorakoak behar dituzte. Alegia, argiak diren azalak edo arazoak dituztenak. Bi orduetik behin eman behar da krema. Jendeak jakin behar du zer azal mota duen kremak erosteko orduan.

**5.** Zeinek dauka arrisku handiagoa azaleko minbizia izateko?

Haurtzaroan eta eguzki-erre-durak askotan izan dituztenek, kalean lan egiten dutenek, azal argikoek eta eguzkia eta solariuma gehiegi hartzen dutenek. Azken 20 urteetan, melanomen kopurua hamar aldiz biderkatu da.



**HAUTESKUNDEAK 07 > UDALBATZAK DATOZEN LAU URTEOTARAKO**

# Bihar 12:00ean egingo dute udalbatza berria eratzeko osoko bilkura

Datozen lau urteotarako udalbatza osatuko duten 21 zinegotziek eta alkateak karguak hartuko dituzte, zin eginez, biharko batzarrean

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
Ezustekorik ezean, bihar, zapata, Ino Galparsoro (EAE-ANV) izendatuko dute alkate. Maiatzean, EAEk eskuratu zituen boto gehien; beraz, bihar, 12:30ean alkatea aukeratzeko egingo duten bozketa gehiengo absoluturik ez lortu arren, bigarren bueltan, bota gehien dituen alderdiko burua izendatuko dute alkate; Ino Galparsoro, beraz. Izan ere, gainerako alderdi gehienek jakinarazi dute ez dutela oztopatuko haren izendapena.

Ino Galparsorok berak adierazi du biharko ekitaldira baino gehiago, gobernu osaketari begira daudela. Horren harira, hauxe aditzera eman du: "Kontaktuak izan ditugu, baina ez dugu ezer berririk. Alderdiek herrietako batzardeetan komentatu behar izaten dituzte halako gaiak; beraz, pentsatzen dugu datorren aste arte ez dugula ezer berririk izango".

Edozelan ere, onartu du EA, EB-Zutik eta Aralarrekin berbertain izan direla, "aukera natura-lena gobernu horiek egitea"

izango litzatekeelako. Dena den, gainerako alderdiekin berba egi-teko asmoa ere badu Galparsorok.

**PSE-EE ETA EAJ**  
Hori bai, bota gehien lortu dituen bigarren indarrak, PSE-EEK, argi dauka ez diola babesik eman go EAERi. Eta Paco Gartzia boz-ramaileak iragarri zuen ahaleginduko zirela EAEk alkatetza ez lortzeko bestelako hitzarmenak lortzen. Baina, oraingoz, ez dute hitzarmenik egin bestelako alderdiekin.

Bestalde, EAJko zerrendaburu Luis Mari Apariztegi adierazi du azken ordukorik ezean, euren zerrendaburuaren alde bozkatuko dutela: "Zapatukoari begira, ez dugu harremanik izan. Gobernuari dagokionez, pentsatzen dut oposizioan izango garela. Oraingoz, ez dugu izan kontakturik EAEkoekin eta hori arraro sammara pentsatu zaigu. Akaso datorren astean hasiko da alkatea bere planteamendua egiten".

## EB-ZUTIK ETA EA

EB-Zutik koalizioari dagokionez, berriz, jakinarazi dute EAERekin izandako batzarrean helarazi dio-tela dokumentu bat euren programaren oinarriekin, "gobernu posible baten gidoi moduko bat". Baino hori da gobernuari dagokionez. Biharko bozketari dagokionez, koalizioak bere hautagaiaren alde bozkatuko du: Joseba Ugalderen alde.

EARI dagokionez, berriz, Pello Urizar zerrendaburuak azaldu du bihar ez dutela EAERen hautagaiaren kontra bozkatuko: "Hortik aurrera, ezin dugu ezer aurreratu; batzarra dugu, eta hortxe erabakiko dugu gehiago. Dena den, argi dugu alkatetza izan behar

duela bota gehien lortu dituenak. Gero, gobernu osatzeko kontuak uztalean argituko ditugu".

## PP ETA ARALAR

Bestalde, Aralarrek hauxe adiera-zu: "EAERen izenean hautatuak izan diren zinegotziei, gure esker ona adierazi nahi diegu: Aralarrek zinegotzi bakarra lortu eta hura erabakigarria ez dela jakinda ere, gure gana zuzendu direlako gobernu batzordean partaide izateko eskaintzarekin. Hala ere, ezin izan dugu baietzik eman, gure egitas-moa ez zaielako kontuan hartze-ko modukoa iruditu. Arrasaten EAek bota gehien lortu duenez, Ino Galparsororen alde emango dugu gure bota bakar hori alkatetza izan dezan, eta hemendik aurrera ere gure egitasmoekin bat datozen ekimen, proposamen eta puntue-tan aldeko bota emango diegu".

Antzeko pentsamendua era-kutsi du Itziar Lamarain PPko zerrendaburuak: "Nire ustez, alkatetza izango du bota gehien lortu dituenak; gero, ikusi behar zein gobernu egiten duten. Proposatzen dutena Arrasterako eta arrasate-arrendako ona bada, nire babesa izango dute". Gaineratu du berarekin ez duela inork berba egin.

**INGURUMENA > ARBOLAPETAKO ZUHAITZA**

## Arbolapetako zuhitzaren %25a moztu egin dute

Segurtasuna bermatzeko, arriskutsuak ziren adarrak moztu dituzte



Indiar gaztainondoa mozten. U.M.

**U.M. > ARRASATE**

Eugen goizean, atzo, izan ziren Arbolapetako zuhitzaren adar arriskutsuenak mozten. Joan den asteburuan zuhitzaren hainbat adar jausi egin direla ikusita erabaki dute mozketa hori egitea.

Monterrono zuhitzak aztertu zituen Gabriel Igñiz adituaren gidaritzapean eta herri-tar ugariren begiradapean moz-tu zituzten zuhitzaren adarrak; "guztira, zuhitzaren %25a", argitu du udal teknikari Amaia Aranak. "Gero, hemendik bi

urtera-edo, ikusiko dugu zuhitzak adar berriak botatzen ditue-nean zela geratzen den, eta horren arabera erabakiko dugu zer egin", gaineratu du.

Arbolapetako zuhitzaz gainera, herriko beste batzuk ere aztertuko ditu Udalak.

**SAN JUANAK > UMEEN DANBORRADA**

## Ia 400 neska-mutiko haurren danborradan bihar, 19:00etan

**U.M. > ARRASATE**  
Bihar iluntzean aterako da hau-ren danborrada, Zaldibartik, Arrasate Musikaleko bandak lagunduta. Honako ibilbidea egin-go du: Zaldibar-Mondragon hote-la-Laubide-Maalako biribilgunea-Maalako Errabala-Portaloa-Erdiko kalea-Herriko Plaza.

Zazpi konpainia osatuko dute danborrada: barril-joleek (bi konpainia), eskoziarrek, danbor-joleek, kantinera-gastadoreek, sukaldari-mikeleteek eta konpaina berriak. Bakotzak izango ditu 25 eta 40 lagunen artean. Hala, ia 400 gaztek parte hartuko du. Honakoek eramango dituzte banderak: Maria Markiegik SUDCEKOa; Maialen Agirrek Iurrena; Aina-ra Gomezek eramango du Arra-satekoa eta Danel Roa izango da jenerala. Bestalde, Donostiako eta



Irudian, banderadunak. SUDC


Debako martxak, Arrasate, San Juan eta Iriyarena kantuak joko dituzte. Karroza ere izango dute; Crisanto Margusinok egindakoa.

**> SAN JUAN JAIAK**  
**'Goienkaria'-k jaietako gehigarria banatuko du martitzenean**

San Juan jaien atarian gaudela eta -datorren aste bukan ospatuko dira-, GOIEN-KARIAk jaion gaineko gehigarri berezia prestatu du. Gehigarri hori martitzenean, hilaren 19an, banatuko dute etxetx etxe.

San Juanetako gehigariak 40 orri ditu eta jaien gaine-ko nondik norakoak batzen ditu: aurten egitarauan dauden berrikuntzak zein herrian erabat errotuta dauden urteroko hitzordua, hain justu. Besteak beste, honako gaien gaineko informazioa aurkitu ahal izango da: Eguzkilatu, nagusien danborrada, txosnetako egitaraua, Errementari dantza...

Horrekin guztiarekin batera, jaietan protagonista izango diren hainbat herritarren elkarritzak ere jaso ditugu.





ESPALEIAK Espaloi ugari egokituta daude zaitasunak dituztenendako, gurpildun aukiendako eta ume-kotxeendako.

U.M.

HIRIGINTZA > IRISGARRITASUN PLANA

## 100.000 euro pasa 2007ko Irisgarritasun Planerako

Udalerriko sei auzotan egingo dituzte irisgarritasuna bermatzeko lanak; guztira, 45 aktuazio egitea aurreikusi dute

UBANE MADERA > ARRASATE

Orain dela hiru urte hasi zen Udala herriko traba arkitektonikoak kentzen, herritarren irisgarritasuna bermatzeko.

Eta aurtengo jardunerako ere onartu du proiekta. Hain justu, Udala arlo horretan egiten duen laugarren aktuazioa izango da.

LANAK ESLEITU BARIK DAUDE

Aurtengo lanak egiteko lehiaketa deitu du Udala eta baldintzak ere onartu ditu. Hala, 104.303,96 euroko aurrekontua aurreikusi dute eta lau hilabeteko epea zehaztu.

Proposamenak aurkezta behar dira Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZ), iragarkia Gipuzkoako Buletinean argitaratu eta 26 egun naturalen barruan.

EGIN BEHARREKO LANAK

Irisgarritasun berbak esaten duen moduan, Irisgarritasun Planaren bitartez herritarren mugikortasuna erraztu gura du Udala. Bestela esanda, egiten duena da espaloietara igo eta jaisteko bidea erraztu, aldapatxoak ipinita.

Aurtengo planaren barruan, udalerriko sei auzotan 45 aktuazio egitea aurreikusi dute. Hain zuzen ere, San Andres, Zigorrola, Erguín, Uribe, Zalduspe eta erdiguneko espaloiak egokitutu gura dituzte.

Adibidez, San Andres auzoan, Araba etorbideko eta Guridi eta Leintzibar kaleetako espaloiak egokituko dituzte. Erdigunean, berriz, Zarugalde, Jose Luis Iñarra, Azeri, Pablo Uranga eta Kale-

aldeko espaloiak konponduko dituzte. Eta Zigorrolan, Gipuzkoa etorbidean eta Sailuente plazan egingo dituzte obrak.

SAILUENTE PLAZAN, OBRA BEREZIA

Azken horren harira, Sailuente plazarako plan berezia prestatu du Udala. Kontua da Zigorrolako plaza horren inguruan dauden etxeetara sartzeko eskailera batzuk daudela. Bada, eskailera guztiak ezabatu egingo ditu Udala eta haien partez aldapatxoak egokituko ditu atarietara sartzeko. Aldapatxo "erosoak" egingo dituzte, hiru bat metro zabal eta lau bat metro luze izango diren aldapatxoak.

LANAK BUKATU BARIK

### Laugarren irisgarritasun plana

Udala 2005ean hasi zen Arrasateko irisgarritasuna bermatzeko herriko traba arkitektonikoak kentzen. Labur esanda, gurpildun aukiak dabilzatenei, ume-kotxeekin dabilzatenei eta, oro har, zaitasunak dituztenei begira, espaloieta aldatxoa ipintzen dabil, guztiengi mugikortasuna ziurtatzeko. Irisgarritasun Planaren arduradun Asier Altuna udal teknikariak kontatu du Arrasaten hasi zirela halako planak lantzen, bereziki herriko hainbat zerbitzuri begira: "Hasierako helburua izan zen eskualdeko ospitalerako eta anbulatoriorako, kiroledegirako eta Abaroa erretiratuen egoitzarako bide nagusiak aztertu eta haitan obrak egitea, irisgarritasuna bermatzeko. Hori bukatuta dago. Orain gabiltza auzoetara iristen". Aurtengo aktuazioa bukatutakoan, berriz, udal teknikariak gaineratu du oraindik badutela zereginha Arrasaten.



- Eguneroko menua
- Bazkariak eta afariak enkarguz aste bukaeretan
- Pintxoak
- Errazioak

Domeka gauetan sukaldea itxita

Gipuzkoako Etorbidea 48 • Tel.: 943 79 65 31 • 20500 Arrasate

UDALA > LANPOSTUAK

## Lan publikoaren eskaintza egin dute

Sei funtzionario behar ditu Udalak, bitarteko funtzionario bat eta hiru lan poltsa osatzea

U.M. > ARRASATE

Funtzionario izateko honako postuak betetzeko deialdi publikoa egingo du Udalak: administraria, informatikaria (Udalera), euskara irakaslea (Udal Euskaltegirako), informatikari laguntzailea (Kulturaterako), hodi iturgina (ur lantalderako) eta bi peoi (obretako lanlderako).

Oraindik ez dute izenematea eperik zabaldu: "Gipuzkoako Buletinera bidali behar dira oinarriak eta gero Madrilera, BOEn argitara dezaten. Beraz, ezin da jakin eperik", esan dute Enplegu Zerbitzutik. Edozelan ere, gaineratu dute prozesua burututakoan Udalera arduraturako dela izenematea epea iragartzeaz. Halaber, esan dute ahaleginduko direla datorren astera-ko lan postuen oinarria k Udalaren webgunean argitaratzen ([arrasate-mondragon.org](http://arrasate-mondragon.org)).

Bestalde, Udalak goi mailako arkitektoa ere behar du, bitarteko funtzionario izateko. Kasu horretan, lanpostua eskuratzeko interesa dutenek uztailaren 4an aurkezta beharko dira udal-letxeen probak egiteko.

HIRU LAN POLTSA

Bukatzeko, hiru lan poltsa osatzeko beharra ere badu Udala. "Bi urtetik behin berritzen ditu-

gu lan poltsak eta orain egitea egokitzentz da", azaldu dute Enplegu Zerbitzutik.

ITURBIDE EGOITZARAKO

Hala, osatu behar dute batetik erizain diplomatuen lan poltsa, Iturbide egoitzan lan egiteko. "Egun bakarra zehaztuko dugu probak egiteko", jakinarazi dute; dena den, egun hori noiz izango den oraindik ez dute erabaki.

UDAL EUSKALTEGIRAKO

Eta bestetik, Udal Euskaltegirako bi lan poltsa osatu gura ditu Udala: bata eskarmenduun irakasleena eta bestea praktikazko kontratuak egiteko irakasleena.

Lan poltsa horren kasuan ere ez dute zehaztu izenematea epea noiz izango den, "baina akaso irailerako utziko dugu kontu hau", adierazi dute Enplegu Zerbitzutik. "Izan ere, ekainean azterketan ibiltzen dira eta askok oraindik ikasketen titulua ez dute eskuratu. Eta beharrezko da titulua gure probetara aurkezteko".

Oraingo, lanpostu eta lan poltsa horiek osatuz gero, Udala zati baterako beteta izango ditu beharrak; dena den, aurrerako, langile gehiago hartzeko beste fase bat izango dela iragari dute.



FUNTZIONARIOAK Udalerriko sei lanpostu bete beharra dute.

GOIENKARIA

**BERGARA AUTOAK**

• AUTO BERRIEN ETA AUKERAKOEN IMPORTAZIOA:  
TURISMOAK, FURGONETAK ETA MONOBOLUMENAK

• GARANTIA IDATZIZ

• FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA

• PREVER PLANA • ELBARRITASUNAGATIK DESKONTUAK

Amillaga, 10 • BERGARA • ☎ 943 76 04 58

**Autoen eskaerak aukeran:** [jlegana@terra.es](mailto:jlegana@terra.es)

BERTSOLARITZA &gt; BERTSO SAIOA AED ELKARTEAREN ESKUTIK

# Bertsolari esanguratsuak zapatuan Monterronen

Zapatuan egingo dute, Monterronen, 22:30etan, eta bost bertsolari arituko dira

AEDk antolatu du, eta Enaitz Alustiza izango da gaiak jartzeko ardura izango duena

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Azkeneko urteotako ohiturari jarraituta, AEDk bertso saioa egingo du bihar, zapatua, Monterronen. 22:30etan igoko dira agertoki gainera eta honako bertsolariak arituko dira: Nerea Elustondo, Xabier Silveira, Amets Arzallus, Angel Mari Peñagarikano eta Jokin Labayen, hain zuzen ere.

Xabier Silveira lesakarra izango da gaueko protagonista bat. Dagoeneko bost txapela eskuratu ditu Nafarroako bertso txapelketan, eta hura da Nafarroan txapel gehien eskuratu dituena. Probokatzaile hutsa da, eta ezustez beteta dago.

**ARZALLUS, OSO MAILA HANDIKOA**  
Amets Arzallus lapurtarra oso bertsolari ona da. Nafarroako txapelketan Iparraldekoek ere



URTEROKO HITZORDUA Azkeneko urteotan, AEDk San Juanen aurretik bertso saioa egin ohi du Monterronen.

GOIENKARIA

esku hartzen zutenean, hainbat txapela jantzi zituen, baina ez Silveirak beste. Hori bai, bertsolari fina da, eta perfekzioaren bila ibiltzen da. Aspaldian kazetari lanean ere badabil, oso fin.

Angel Mari Peñagarikano izango da beteranoena, eskola zaharrekoa. Zirikatzalea da, freskoa, oso estilo berezikoia.

Nerea Elustondo izango da Arrasaten arituko den neska

bakarra. Oso erregularra da eta saio onak egiten ditu; beti uzten du bertso ale bereziren bat.

Arrasateko ordezkaria Jokin Labayen bertsolaria izango da. Fin dabil Labayen aspaldian.

MUSIKA

## Urretxo tronboi jotzailearen emanaldia

**I.B.> ARRASATE**

Unai Urretxo tronboi jotzaile arrasatearrak eta Amaia Zipitria piano jotzaile andoaindarra kontzertua egingo dute hilaren 21ean, eguna, Kulturateko areto nagusian, 19:30ean.

Urretxo tronboi jotzaile oso ezaguna da. Umetan Arrasateko Musika Eskolan ikasitakoa, ibilbide luzea egin du musikaren alorrean: Mondragon Brass-en sortzailea eta Bostongo Unibertsitateko irakasle laguntzaile ere izandakoa da. Gaur egun Bilboko Orkestra Sinfonikoko tronboi jotzaile solista dugu.

Bi musikari horiek Alexandre Guilmant, Sergei Rachmaninov, Franz Shubert, Astor Piazzolla, Lars-Erik Larsson eta Jose V. da Silvaren piezak joko dituzte, besteak beste.



Unai Urretxo. ARRASATEKO UDALA

MARGOLANAK &gt; ERAKUSKETA HARRESI ARETOAN

# Xeli Mendizabalen margolanen erakusketa Harresin

Erretratuak eta loreak dira erakusketa jarri dituen margolanen motibo nagusiak

**I.B. > ARRASATE**  
Xeli Mendizabal arrasatearrak erakusketa jarri du ikusgai Harresi aretoan. Hori ikusteko aukera egongo da hilaren 24rabitarte.

Mendizabal Almengo irakaslea izan da urtetan, eta ezaguna da herrian. Betidanik izan du margotzeko zaletasuna, baina erretiratu denetik askoz gehiago margotzen du.

Are gehiago, Abdon Juaristi eta Luis Laskurain bergarakoak izan dira haren irakasleak;

eta orain dela 11 urte, Mendizabal Arrasateko Margo Taldean sartu zen.

Honako hau da bakarkako erakusketa bat egiten duen lehenengo aldia. Aurretik taldeko erakusketak egin izan ditu Arrasaten eta Hondarribian.

**ERRETRATUAK ETA LOREAK**  
Harresi aretoan egindako erakusketa 30 bat lan batu ditu Mendizabalek, azken hiru urteotan egindakoak batez ere. Bi txikeria moduan, erretratu asko



ERRETRATUAK ETA LOREAK Xeli Mendizabalek erretratuak eta loreak batu ditu erakusketa.

IKER BARANDIARAN

jarri ditu ikusgai: "Arrasateko Margo Taldeko bi kideren erretratuak egin ditut; horrez gain, aldizkarietan eta egunkarietan ikusitako edota nik asmatutako erretratuak ere egin ditut".

Bestalde, erretratuez gainera, loreak ere margotu ditu Mendizabalek.

Lan gehienak akrilikoan egiten dituen arren, badira olioa margotzen du. Etxean badago, akrilikoak,

akuarelak eta bestelakoak egiten ditu; Margo Taldeko lokalean, berriz, olioa margotzen du.

Oso gustura egoten da margotzen, eta guztiaz ahaztea lortzen du oihala esku artean duenean.

# UDAKO CAPOEIRA TOPAGUNEÀ & BATIZADOÀ 2007

Ekainak 21-24



**Festa Brasildarra**  
Capoeira eta Samba erakustaldia Zarauzko Txikipolit jatetxean  
Ekainak 23 larunbata gaueko 11etatik aurrera

**Capoeira eta Maculele erakustaldia**  
Arrasateko Monterron jauregiko eszenatokian  
Ekainak 22 ostirala gaueko 10:30etan

**Capoeira ikastaroak**  
Zarauzko topagunean ikastaro laburrak egiteko aukera  
Urte osoan zehar Euskal Herriko zenbait tokitan ikastaroak  
egiteko aukera

[www.senzalaeuskdicapoeira.info](http://www.senzalaeuskdicapoeira.info) • [senzalaeuskadi@hotmail.com](mailto:senzalaeuskadi@hotmail.com) • Tel.: 625 77 22 95





**iKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48  
BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

**FAGOR** 



ABANTAILA Senior mailan irabazitako partiduak abantaila eman dio Arrasateri (2-1).

JOSETXO ARANTZABAL

**PILOTA > HERRI ARTEKO TXAPELKETA**

# Arrasateko pilotarieiek gaur dute jokoan finalerako txartela (20:30)

Arrasateko pilotarieiek finalerietako itzuliko norgehiagoka jokatuko dute Ataungo pilotarien kontra, Uarkapen

**XABIER URTZELAI > ARRASATE**  
Arrasateko pilotariak finalera bidean daude, baina oraindik azken urratsa egin behar dute, Ataun kanporatu. Joan den asten

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

buruan arrasatearrek sorpresa eman zuten joaneko partiduan (1-2); izan ere, senior mailan lortutako garaipenak asko erraztu du bidea. Uribarrenek bikain defendatu zuen atzealdea -kale bakarra egin zuen-. Axpe, berriz, hasieran behar baino pilotaga egiago galdu zituen, baina jokatzeko modua aldatzearekin batera, egin beharrekoan kontzentratu, eta hortik aurrea kontrarioek ezer gutxi egin ahal izan zuten (12-22).

Aurreikuspenak beteta, kadetan Agirregabiria eta Bolinagak nahiko erraz irabazi zuten, 7-22. Halaber, kadete mailakoak diren baina gazte mailan jokatzen duten Aranak eta Zubizarretak ezer gutxi egin ahal izan zuten Ataungo kontra (22-1).

**ITZULIKOAK, GAUR UARKAPEN**  
Arrasateko pilotarieiek 2-1eko abantailarekin egingo diete aurre gaurko partiduei Uarkapen (20:30): "Gazte mailan ez dauagu ezer egiterik, baina kadetan erraz irabazi genuen, eta senioretan ere okerrik egin gabe jokatzen badugu finalean izango gara. Hala ere, ezin gara kantxaratu dena eginda dagoela pentsatzuz; izan ere, gazte hauek ez dakite

Arrasaten zenbatetan geratu garen finalaren atarian", esan digu Mauri Zubillagak. Seniorrei dagokienez, gainera, maila oneko ordezkoak izatea oso garrantzitsua dela esan digu entrenatzaleak: "Oso gaitza da kategoria berean titularren maila bereko ordezkoak izatea, hori luxua da. Hala, Agirre dauagu ordezko moduan, eta hori ere ona da".

**AZPEITIA FINALEAN?**  
Beste finalerdian, Azpeitiko pilotarieiek 2-1 irabazi zieten donostiarrei, eta Zubillagak dagoeneko herri hori ikusten du finalean: "Egia da bigarren partiduan edozer gerta daitekeela, baina nire ustez Azpeitiko pilotariak hobeak dira".

Hala, finalaren gainean berba egin aurretik, lehenengo, Arrasatekoek gaur arratsaldeko hitzorduan eman behar dute neurria. Hala ere, Zubillagak aurreratu digu datorren urtean Arrasatek oraindik talde sendoagoa izango duela. Izan ere, Aranak eta Zubizarretak dagokien mailan jokatuko dute -kadetan-, eta Bolinagak eta Agirregabiria bikote sendoa osatuko dute gazte mailan.

**ARETO FUTBOLA > TXAPELKETA**

# 24 ordu Zaldibarren futbolean jokatzen

Zaldibarko Txapelketako antolatzaileek 24 orduko areto futboleko txapelketa antolatu dute biharko

X.U. &gt; ARRASATE

Urte osoan zehar egin duten lanarekin konformatu ez, eta Zaldibarko Txapelketako antolatzaileak berritasun batekin datoz oraingo astebururako: 24 orduko txapelketa.

Ikusteko dagoena da txapelketak ze harrera izango duen, izan ere, atzo, eguna, zen izena emateko azken eguna. Txapelketaren nondik norakoak zehazteko, ezinbesteko da izena eman

dutent talde kopurua jakitea, horrek goitik behera baldintzatuko du-eta dena. Eta, lerro hauek idatzi ditugunerako informazio hori oraindik ez zegoen gure esku. Hala, antolatzaileek gaur bertan emango dute txapelketaren eta ordutegien berri, webgunean: [www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com](http://www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com).

**KANPORAKETA SISTEMA**

Hasiera batean, antolatzaileen asmoa da taldeak multzotan banatzea. Hori eginda, multzo bakoitzeko sailkatuek kanporaketa norgehiagokak jokatuko dituzte. Talde bakoitzean bost jokalarik eta atezainak jokatuko dute, eta lehenengo hiru sailkatuendako izango dira sariak.

Hori bai, gutxieneko talde kopururik ez badago, bertan behera utzik dute txapelketa.

**> MENDIKO BIZIKETA**

## Ekainak 27 eta 28 dira Aralarko mendi bizikleta irteerarako izena emateko egunak

Besaide MTB taldeak ekainaren 30erako antolatu du Aralar aldeko mendiko bizikleta irteera. Hala, orain arte astelehenetan eta martitianetan egon izan dira izenak hartzen, baina, egun horietan San Juanak izango direnez, izena emateko epea atzeratza erabaki dute. Hori horrela, eguztena, hilak 27, eta eguna, hilak 28, eman ahal izango da izena Besaideko egoizan (19:30-20:30).

Aurreko irteera Aiako Harrietara zeukaten prestatuta, baina bota zuen euriarekin Plazaolako trenbidea egin zuten bizikletan.



GOIENKARIA

## Lore Mar hirugarren sailkatu da

Lloret de Marren egindako Espainiako Txapelketatik brontzezko dominarekin itzuli da Arrasateko Atletismo Taldeko Lore Mar atleta gaztea. 2,80 metroko markarekin joan zen hara, eta, tamalez, txapelketan ezin izan du marka hori hobetu. Dena dela, infantiletan lehenengo urtea izanda, marka ezin hobe da.

## Arrasatearrak kanpoan

**Patricia Sagasta**> Arrasatearra da Dublinen bizi da 1999a ezkero

# "Izugarri betetzen nau ijitoei laguntza ematen lan egiteak"

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Patricia Sagasta 1999an joan zen Irlandara. Hain zuzen, ikasitako ingelesa hobetzen eta gaua berriak ikustera joan zen Dublenera. Han Marcus ezagutu zuen, eta harekin eta Noa eta Dauda umeekin bizi da ordudanik.

Patricia Sagastak aitortu digu 1999. urtean Arrasatez aspertzen hasia zela: "Ingelesa hobetzen aitzakiarekin bizilekua aldatzea erabaki nuen, eta Irlandara jo nuen gauza berrien bila".

Dublinen ez zuen inor ezagutzen eta hasiera gogor samarra izan zen: "Gogoan daukat Irlanda-

dara azaroan heldu nintzela eta izugarritzko hotza egiten zuela. Hasiera deseroso samarra izan zen, baina han nengoenez aurrera egitea erabaki nuen". Denean, lanetan aritu zen luzaroen: "Lehenik eta behin, kafetegian, fast food-ean, tabernetan ibili nintzen lanean. Gerora,

**"Ingelesa hobetzen aitzakiarekin bizilekua aldatzea erabaki nuen, eta Irlandara jo nuen gauza berrien bila"**



Irudian, Patricia Sagasta.

haurtzaindegia baten lana lortu nuen, eta hori, aurrekoekin alde-ratuta, askoz hobea izan zen".

### IJITOEI LAGUNTZEN LANEAN

Gaur egun, berriz, asteko hainbat egunetan Travellers zerbitzuan lan egiten du, ijitoen gizarte laguntzailea: "Lan horrekin oso-oso pozik nago. Asko betetzen nau ijitoekin lan egiteak, oso esker onekoak dira. Hemengoak ilehoriak dira, baina euren kulturak Espainiako Estatuaren bizi direnekin antzekotasun handiak ditu".

Ia urtero etortzen da Arrasatera familiakoei eta lagunei bisita egitera. Aurten ere uztailean etortzeko asmoa daukate: "Familiakoei eta lagunez askotan oroitzen gara, eta haien ikusteko gogo handia izaten dut".

Bestalde, Dublinen ez daukate senitartekorik, eta umeen karagu egin behar izaten dira uneoro. "Batzuetan gogorra da senitartekoak alboan ez izatea, gurasoak tarteka besterik egin behar badugu umeekin lagun diezaguten".

## bere ustez



Antxon Mendizabal

Lotsabako galantak dira

**S**u-etenak bukatu da. Ezustean harrapatu gaitu, baina espero genuen. Orain lotsabakoen txanda sufritu behar dugu. ETA baino lehen, bake prozesua mila alditan mespezatu eta hausku dituen Espainiako Gobernuak, "eskubidearen estatua" aldarrikatzen ditu.

Herritarren bozketeak era-kutsi dutena, "legearen" aitzakiarekin ukatu egiten duten Euskal Gobernuko hirukoaren kideek, "demokrazian" dena posible dela diote. Hemen go hedabideek, gatazkaren zer-

## Hau be badaukogu



**"Gure herrian askatasunaren eremua kolaborazionismoak bete du"**

gatiak ezkutatzeko, eta erresistentzia deabratzeko ahaleginak egiten ari dira. Bake prozesuarekiko eta herritarren eskubideekiko sentsibilizatelerik erakutsi ez duten gure "tertulianoek", haserre bizian jarri, erresistentziak ekar ditzakeen ekintzarekiko, bir-sentsibilizatu nahi gaitzute.

Bakearen alde ez, baina indarraren monopolioa Guardia Zibila eta Estatuaren eskuetan ezarri nahi duten Lokarri eta Gesto bakezaleek, biolentziaren aurkako aldarrikapenak igortzen dizkigute. Orain kexak egiten dituzten demokrata hauek ez daukate sinesgarritasunik. Baino hau da gure herrian daukagun gupida gabeko argazki politikoa, askatasunaren eremua kolaborazionismoak bete du. Lotsabako galantak dira.

## Arrasateko koadrila bat Andaluzia aldean ibili zen maiatzean bizikletarekin

Argazkiko lagunak maiatz aldean Andaluzian izan ziren. Cadizren eta Malagan barrena ibili ziren, Transandalus gisa ezagutzen den bira-ren zati bat egiten. Sei egun eman zituzten bizikleta gainean paraje ederrak ezagutzen. Eguraldia sasoia horretan "espero baino freskotxo-agoa" izan zela jakinarazi dute bueltan. Horretaz gainera, Cadiz-kin "txundituta" geratu zirela azpi-marratu dute, "Conil famatuaz aparte, asko duelako eskaintze-ko". Besteak beste, Los Alcornocales eta Grazalema herriak ezagu-tzituzten. Argazki bat bidali dute, eta zazpi lagunen atzean ikusten dena Afrika dela aipatu digute.

pinxoak eta bokala onenak geurean!!!  
**OSTANTZ**  
Ferrerias 12 behe 20.500 ARRASATE Tel.: 943 79 56 04

**UGARTE**  
AROZTEGIA-ALTZARIAK  
K21  
Arotz lanak orokorrean  
• Horma armairuak  
• Altzariak • Leihoak • Ateak  
ALTZARI DENDA  
Ikerlekua zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30  
ERAKUSKETA ETA TAILERRA  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91 / Fax: 943 76 08 04

**arbolapeta**  
arrasate  
**beinko**

**UGARAN**  
jatetxea  
Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

HAUTESKUNDEAK 07 &gt; UDALBATZAK DATOZEN LAU URTEOTARAKO

# EAE eta Aralar udal gobernua osatzeko bidean

Programa bateratu bat egiten saiatuko dira bi alderdiak inbestidura egunetik aurrera

Zapatuan, Agurne Barruso aukeratuko dute alkate, EAEren eta Aralarren botoekin

**GOIENKARIA > BERGARA**  
EAE-ANV eta Aralar udal gobernua osatzeko bidean daude. Aralarrek ez du oraindik baietzik esan, baina onartu du antzeko programak dituztela eta esan du prest dagoela alderdi bien programak ondo aztertzen. Programa bateratu bat egitea lortzen badute, Aralarrek baietz esango dio EAEk udal gobernua osatzeko egindako proposamenari.

**EAE-K EMANDAKO PAUSUAK**  
Hauteskundeetako emaitzak iksita, Bergarak aldaketaren aldeko botoa eman duela uste du EAEk eta hori aintzat hartzeko konpromisoa hartu zuen. "Hori kontuan izanda, hemendik aurrerako bidelagunak zehazteko irizpideak jarri ditugu hasteko. Hiru dira irizpide horiek: alderdi abertzalea izatea, politika aurrerakoia egitea eta prozesu demokratikoaren aldeko jarrera baikorra izatea. Horrela, bi aukera ikusi ditugu: Aralar eta EA. Bi alderdi horiei eskaini diegu udal gobernua osatzea", azaldu du EAEko Agurne Barrusok. "EAJ eta PSE-EE-rekin ere elkartu gara, gure irizpideak azaltzen eta udal funtzionamenduari buruz hitz egiteko", jarraitu du Barrusok.

**ARALAR ETA EA**  
Bestalde, Aralarrek herri batzarra egin zuen martitzenean eta hantxe eztabaidatu zuten zein



EAE Kultura etxean eman zuen prentsurreko martitzenean EAE-ANV alderdiak.

O.E.

erabaki hartu. "Gu prest gaude EAERekin batera gobernatzen. Hurbiltasun ideologikoa dugu eta bion programak antzerakoak dira. Hala ere, zapatutik aurrera 30 egun daude Udal gobernua osatzeko eta epe horretan programa bateratu bat egiten saiatuko gara. Lortzen badugu, baiezkoa emango diogu EAEk egindako proposamenari", zehaztu du Mikel Etxaniz Aralarreko zerrendaburuak. Dena den, zapatuko inbestidura egunean botoa nori emango dioten garbi dute, ordea: "Agurne Barrusori emango diogu alkate izateko botoa, bera izan da bozkatuetan eta", esan du Mikel Etxanizek.

"EAJrekin ere elkartu gara. Lehengo udal gobernua osatzea proposatu digute, EArekin bateria, baina ikusi dugu jendeak aldatu bozkatu duela eta ez genuen nahi alkatetza EAJri ematea. Hala ere, gure arteko harremannak onak izaten jarraitzen dute", gaineratu du Etxanizek.

EAk ez du oraindik erabakia hartu baina euren eta EAEren programak ikusita, iritzi ezberdinak eta programetan ezberdinatasunak dituztela esan du Lauri Askargortak. "Batez ere hirigintzan ditugu ezberdintasun handienak. Hala ere, oraindik ez diogu ezetzik esan proposamenari. Datozen egunetan aztertuko dugu

hobeto", zehaztu du. Zapatuan EAko hautagaiaren alde bozkatuko duela ere esan du.

#### EAJ, OPOSIZIOA EGITEKO PREST

EAJko German Muruamendiarenak onartu du lehengo formula errepikatzen saiatu direla Aralar eta EArekin, baina ez dela posible izan "Aralarrek ez due-lako nahi alkatetza kentzea zerrenda bozkatuaren". Muruamendiarenak "normala" ikusten du oposiziora joatea, baina elkarlanean jarraitzen gertu daudela esan du: "Oposizio eraikitzalea egin nahi dugu, ez eztabaidatsua". Zapatuan, euren hautagairi emango dio botoa EAJk.

#### > SAN MARTZIALAK Aparkaleku gutxiago egongo da aurten autoa uzteko

San Martzialen ziburuak eta zuhaitzakin egindako piramide bat jarri dute eta horregatik, ibilgailuak aparkatzeko toki gutxiago egongo da aurten San Martzial egunean. Horregatik, ahalik eta auto gutxiengoa eramateko ahola egin du udaltzaingoak. Autobus zerbitzua egongo da doan, 10:30etik 20:00etara, eta autobusean nahiz oinez joateko gomendatzen du. Bestalde, ingurumenarekin arduraz jokatzeko ere eskatzen du, adibidez landatu dituzten 100 gaztainondoak zainduz.

#### > INAUGURAZIOA Ekainaren 20an zabalduko dute Eroski berria

Ekainaren 20an zabalduko dute Leizeagan egin duten Eroski berria.


Eraikin horrek 1.756 metro karratu izango ditu eta jateko eta garbiketak egiteko produktuak salduko dituzte; 3.500 produktu baino gehiago. Era berean, 53 lagun kontratatu dituzte salmentagune horretan lana egiteko eta erdia baino gehiago, inguru gizon-emakumeak izango direla esan du Eroskik. Inbertsioa, hiru milioi eurotik gorakoa da.

#### > JAIA Euskal Astea egindo dute San Martin eskolan

Ikasturteari bukaera emateko, Euskal Astea antolatu dute San Martin ikastetxeen. Gaur, egubakoitza, botako dute txupinazoa eta pregoiaren batera emango diote hasiera Euskal Asteari. Ekitaldi gehienak, ordea, datorren astean egindo dituzte, adibidez: euskal dantzak, txangoa, lehiaketa eta jolas tradizionalak. Eguenean, pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte.

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10  
BERGARA OÑATI  
943 76 45 53 943 78 24 13

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

# Aldoka Maldoka

#### TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

ONDAREA > EUSKAL KULTURA ONDAREAREN ZERRENDAN

# Irizar lorategia, monumentu izendatzear

Jaurlaritzak hasiera eman dio Euskal Kulturaren Ondarearen zerrendan sartzeari

Irizar jauregiaren sorrera, eraldaketak, lorategia eta deskribapen osoa jasotzen du txostenak

OIHANA ELORTZA > BERGARA  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak erabaki du Irizar jauregiko lorategia monumentu izendatu eta Euskal Kultura Ondarearen zerrenda orokorrean sartzeko espedienteari hasiera ematea. Euskal Ondarearen inventarioan sartu du Jaurlaritzak lorategi hori, eta monumentu bezala izendatu du.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak atera du berria aste honetan, baina Udalak bazuen horren

berri: "Nik banekien Jaurlaritzak bazuela berdeguneak ondare kultural izendatzeko asmoa, orain arte monumentuekin egin duen moduan, eta Bergarako berdeguneen berri badu. Dena dela, hirigintzako langileek baiezttatu ditate eurek bazutela asmo horren berri", dio German Muruamendiarazek, jarduneko ondare zinegotziak. Zehaztu du Domingo Irala kale berriaren bigarren faseak Gasparreko bidegurutzean behera doan kalea Orain, baldintzak ondo aztertz,



LORATEGIA Irizar jauregiaren ondoan dago katalogatu nahi duten lorategia. O.E.

zabaltza aurreikusten duela, baina proiektuak ez duela lorategia ukituko.

#### XVII. MENDEKO JAUREGIA

Jaurlaritzako Kultura Sailak jaso duen txostenak Irizar jauregia noizko den, ze eraldaketa izan dituen eta nolakoa den deskribatzen du. Orain, baldintzak ondo aztertz,

erabaki beharko dute kultura ondare izendatu edo ez. Horrela eginez gero, herriko erdigunearen maila berean egongo litzateke Irizarko lorategia. "Egun, Bidekurutzta, Barrenkale, Artekale, Goenkale eta San Pedro kaleek osatzen duten erdigunea dago monumentu multzo izendatuta", zehaztu du Xabier Aranburu udal museologoak.

ENPRESA

## Errota-Gain enpresako 16 langileak, greban

O.E. > BERGARA  
Errota-Gain galdegarintza enpresako 16 langileak greban daude martitzena ezkerro. Lan hitzarmena dela-eta erabaki dute greba egitea, eta, enpresako sindikatu bakarraren arabera, ELA, greba mugagabea da, gainera. Errota-Gain enpresako langileek lau puntu hauek onartzea eskatu diote enpresari lan hitzarmena sinatzeko: hitzarmena urtebetekoak izatea; lan jarduna lau ordu murritztea; soldataren %5eko igoera; eta laneko bajak %100ean kobratzea lehen egunetik. Sindikatuaren esanean, enpresaren eskaintza izan da soldatua KPI gehi %0,4 igotzea; beste puntuen inguruau ez ei diete ezer esan. Enpresak ez du adierazpenik egin. Langileek mobilizazioak egiteko asmoa dute, baina zehazteke dute eguna.

ETXEBIZITZAK > ETXEBIZITZA BABESTUAK

# 32 etxebizitza egingo dituzte Ozaetan

Horietako bost beste horrenbeste lagun emanda daude; besteak zozketatu egingo dituzte

O.E. > BERGARA  
Ozaeta auzoan babes ofizialeko 32 etxebizitza egitea onartu zuen udalbatzak, aho batez, astelehenean egin zuen osoko bilkuran. Saihesbidearen eta Ozaetako erreppide orokorrera joateko bidearen artean dagoen lursailean egingo dituzte etxebizitzak. Bitxor erakuntza enpresarekin egingo du akordioa Udalak proiektua gauzatzeko. Akordio horrekin, Udalak izango du ardura hitzartuta

dituzten etxeak emateko eta gelditzen diren beste etxebizitza babestuen zozketa egiteko.

**BOST LAGUN ERREALOJATZEKO**  
Zubiaurre kalean egindako hirigintza plan baten ondorioz, bost lagun etxebizitza barik gelditu ziren eta Ozaetan izango dute berria. Gainerako etxebizitza babestu guztiak, berriz, Jaurlaritzaren irizpideen arabera zozketatuko dituzte.



LURSAILA Saihesbidearen eta Ozaetako erreppidera joateko bide artean dagoen lursailean egingo dituzte etxebizitzak. O.E.

**SANTOS**  
RENOVE PLANA  


%10eko DESKONTUA  
eta ordain ezazu 10  
hilabeteetan interes gabe!

Masterreka 2. BERGARA  
Tel.: 943 76 26 10

**TELEIXA  
BILTEGIAK**  
Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

**disdira**

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55



**POL-POL**  
Taberna

943 76 07 78. Bergara

**MUSIKA > OPERA KONTZERTUA GAUR**

# Musika Eskolaren opera gaur

Henry Purcellen 'Dido and Aeneas' eskainiko dute gaur, Mariaren Lagundian, 20:00etan

**EDU MENDIBIL > BERGARA**

Musika Eskolako kideek Henry Purcellen *Dido and Aeneas* opera kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundian, 20:00etan. Andoni Sierraren zuzendaritzapean, orkestrako ganbera taldea (ikasle nagusienek osatutakoa) eta kantu ikasleak arituko dira. Sie rrak berak klabea joko du gaur.

Proiektu hori erronka handia izan da Musika Eskolako orkestra osatzen duten ikasleentzat,

inoiz ez dutelako holako musika barrokorik egin. Era berean, kantu ikasleek ere ahalegin berezia egin dute musika estilo horretara egokitzeko.

*Dido and Aeneas* 1689an estrenatu zuten, Londresen. Ordutik hona, han eta hemen antzeztu izan da. Aeneas Troyako printzea da eta Erromara joateko agindua jaso du. Cartagoko irlan atseden hartzean, Dido erregina ezagutzen du. Maitemindu egiten dira, baina sorginek eta aztiak amodio



'DIDO AND AENEAS' Henry Purcellen (1659-1695) opera eskainiko dute Musika Eskolako kideek.

GOIENKARIA

hori apurtzea erabakitzentz dute. Horretarako, trikimailu batzuk erabiliko dituzte. Erromara joan behar dela agintzen dio Jupiterek Aeneasi, eta Dido uztean, hura maitasunez hilko da...

Gaurko emanaldian, Karlos Etxaniz (Aeneas), Argiñe Agirrezzabal (Dido), Nere Ibarra (Belinda), Ainara Uribesalgo (aztia) eta Isabel eta Idoia Juldain (sorginak) kantariak dira prota-

gonista nagusiak. Esan bezala, orkestrako hamar musikari eta beste horrenbeste kantari aritu ko dira haietan. Musika Eskolak gaurko emanaldira joateko gongidapena egiten die herritarrei.



IMANOL SORIANO

## Txapa jaia zapatuan gaztetxean

Gaztetxearen zazpigaren urteurrena ospatzeko kalejira izango da gaur 19:30ean eta gauean Kikee-ren perkusio eta dantza afrikarrak, 22:30ean. Biher, zapatua, Txapa jaia egingo dute: baskari begetarianoa eta jarraian hitzaldi tertulia. Gauean rock jaialdia izango da, 23:00etan. Royal Canal talde iruindarrak (Iñigo Cabezafuego-ren taldea), Arrasatetik eta Oñatitik datozen MC6 taldeko kideek (irudian) eta Bergarako Black Sheeps-ek hartuko dute parte. Azkenik, Mansillaren eskutik rock-and-roll festa izango da.



Telefono berria:

**670 45 65 25**

*Orain ogitartekoak eta plater konbinatuak ere bai.*

Artekale 1 • BERGARA

> ERAKUSKETA

## Film laburren lehiaketa deitu du Bergarako Udalak: 300 euroko saria irabazlearentzat

Bigarren urtez, lehiaketa deitu du Udalak: film laburra, abesti baten bideoaklipa, iragarkia edo bestelako lanak aurkez daitezke, bakarra zein taldeka. Bergaran edo Debagoieneko edozein herrian bizi den edozeinek aurkez ditzake lanak. Bi sari izango dira: 300 euro irabazlearentzat eta 250 euro bigarren saria eskuratzentzat. Lanak aurkezteko epea irailaren 3ra arte dago zabalik. Argibideak 943 77 91 60 telefonoan jaso ditzakezue.

> IKASTAROA

## 'Argazkilariaritzat Photoshop bitartez' ikastaroa izango da urrian: hastapen eta sakontze mailak

Udaleko Kultura Zerbitzuak, Pol-Pol Argazki Elkartearen laguntzarekin, *Argazkilariaritzat Photoshop bitartez* izeneko ikastaroa iragarri du uda osterako: hastapen maila urriaren 1etik 11ra izango da eta sakontze maila urriaren 15etik 31ra. Argibideak eta ize-nematea kultura etxeen, 943 77 91 81 telefono zenbakian.

> GAZTEAK

## Euskal Herria Zuzenean jaialdirako laguntzaile bila dabil Jardun euskara elkarrea

Ekainaren 29tik uztailaren 1era Euskal Herria Zuzenean jaialdia ospatuko da Idauze Mentin, Zuberoan. Jaialdi horretarako laguntzaile bila dabil Jardun. 17 urtetik gorakoek ekainaren 15era arte daukate izena emateko aukera. Argibideak: 943 76 36 61.


> EKITALDIAK

## Bidasoako pintoreen erakusketa Aroztegin eta Charo Jaular ipuin kontalaria Pol-Polen

Bidasoako pintoreen erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:00etan. Jabier Sagazazu, Carmen Maura eta Susana Zaldivarren margoak ikusgai izango dira Barrenkaleko aretoan, uztailaren 15era arte.

Bestalde, eguztenean, ekainaren 20an, Charo Jaular ipuin kontalariaren saioa izango da Pol-Pol tabernan, 22:30ean. Jaular Zamorakoa da, eta ibilbide luzea darama narrazio munduan. *Historias de siempre contadas como nunca* izenburuko saioa eskainiko du Pol-Polen.

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

### AZKARATE AROZTEGIA

Bergara  
• Ateak, leihoa, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak  
• K-21  
Telleria 19 B02-B03  
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20  
[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

## ELEKTRIZITATEA

### AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta  
• Telebista, audio eta bideoa  
Salmenta eta konponketa  
• Instalazio elektrikoak  
• Atezain automatikoak  
• Antena kolektiboak  
Otalora 14  
T: 943 79 16 10  
F: 943 79 16 10

### ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate  
• Instalazio elektrikoak  
• Antena kolektiboak  
Zerkaosteta 15  
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83  
F: 943 79 68 21

### ARETXARGI

Aretxabaleta  
• Instalazio elektrikoak  
Belorrieta 15 behea  
T: 943 532 628 / 645 734 032  
F: 943 532 629  
[aretxargi@euskalnet.net](mailto:aretxargi@euskalnet.net)

### RELE

Eskoriatza  
• Instalazio elektrikoak  
Santa Ana 12 eta 17  
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12  
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate  
Meatzerreka auzoa  
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59  
[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

### FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza  
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak  
• Kontratak  
• Enpresen mantentze-lanak  
Intxartxueta 5  
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22  
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

### DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza  
• Barruko lanetan espezialitatea  
• Berrikuntza-obra orokorean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa  
Intxartxueta 7, 2D  
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27  
[Dela-torre@euskalnet.net](mailto:Dela-torre@euskalnet.net)

### G. IZCUE IRURZUN

Arrasate  
• Igeltserotza orokorra  
• Etxeen berrikuntza  
• Sukaldeak, komunak...  
Munar 6  
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

### ARETXABAleta ITURGINTZA

Aretxabaleta  
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak  
Santa Kurtz 24, behea  
T: 943 79 17 53  
F: 943 79 17 53

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate  
Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
T: 943 77 01 85

### IMANOL ITURGINTZA

Arrasate  
• Iturgintza  
• Berogailua eta gasa  
• Bainugelak  
Kale Txiki 9 behea  
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

### J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta  
• Ura  
• Gasa  
• Kalefakzioa  
Mitarte 15  
T: 943 793 187  
F: 943 793 187

## OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza  
• Iturgintza eta gasa  
• Berogailuak eta petrolio-produktuak  
• Klimatizazioa  
Aranburuzabala 15  
T: 943 71 47 14 / 606 007 369  
[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## TXORROTA

Arrasate  
• Berogailua eta gasa  
• Galdarak aldatzea  
• Obra integralak  
• Zaharberritzeak  
Bolibar doktorea 5, behe C  
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17  
F: 943 77 17 13

### URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta  
• Instalazioen mantentze-lan guztiak  
• Berokuntza eta gasa  
• Aire girotua eta haizeztatzea  
Basabe industrialdea B-3  
T: 943 77 19 88  
F: 943 79 59 97

### VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta  
• Hargintza lanak  
• Bainugelako altzariak  
• Berogailuak  
• Erretenak ipini eta garbitzea  
Santa Kurtz 7, 3. ezk.  
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIC

Arrasate  
• PVC leihoa  
• Aluminio termikoko leihoa  
• Poliuretanozko leihoa  
Zigarrola 1- 8 pab.  
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18  
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

### ION LEIHOAK

Arrasate  
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia  
Debagoina Industrialdea 11. pabilioia  
T: 943 79 11 35  
F: 943 77 31 20

### YOSU THERMIK

Arrasate  
• Leihoa eta ate isolatzaila  
• PVC leihoa  
• Aluminio termikoko leihoa  
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)  
Kataide poligonoa 4 Pab.  
Tel: 943 77 01 57  
F: 943 77 03 21

## LEIHATEK

Arrasate  
• Leihoa eta ate isolatzaila  
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak  
• Kontraleihoi errustikoak eta mallorkinak  
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.  
Okendo 1 - behea  
T: 943 79 69 91  
[ventanasleihatek@hotmail.com](mailto:ventanasleihatek@hotmail.com)

## LOREZAINZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta  
• Barruko zein kanpoko lorenzaintza  
• Ureztatzeko sistemak  
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak  
Basabe poligonoa D-2-1  
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98  
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate  
• Pintura orokorean  
• Pareztatzeak  
• Errutulazioa  
Maitena 3-1.  
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

### DAVILA MARGOAK

Aretxabaleta  
• Margoak orokorean  
San Migel 7, 3d.  
Tel.: 646 22 41 09

AGORROSIN BAINUETXEA &gt; 18 URTE GORAKOEK ETA KIROL ABONUA DUTENEK

# Spa, saunak, dutxak eta atseden eremua gaurtik aurrera erabil daitezke Agorrosinen

Lau zirkuitu ezberdin daude, erabiltzaile bakoitzaren ahalmenen araberakoak

Agorrosin bainuetxea elbarrituendako egokitua dago, Spa eremua izan ezik

**MIRIAN BITERI** > BERGARA  
Agorrosinen gaur irekiko duten bainuetxeak lau eremu ezberdin ditu. Spa eremua bainu-toki handi eta txiki batek osatzen dute. Lehena 33°C-tan dago eta bestea 14°C-tan. Ontzi handian bederatzilagunendako *jacuzzi*, ur-oheak eta txorrotak daude.

Hiru sauna daude. Lurrun bainua deritzena eta lehorra sauna beroak dira. Besteak Frigidarium izena du eta hotza da. Horretaz gain, dutxa eta txorrotak mota ugari daude, gorputzeko atal ezberdinetara bideratuta daudenak. Atseden eremuak erlaxatzea eta luza-



SPA EREMUA Erlaxaziora bideratuta daude Spa eremuko elementu ezberdinak.

M.B.

ketak egitea du helburu. Lau zirkuitu egin dira, erabiltzaile bakoitzaren ahalmenen araberakoak. Gehienez, 50 pertsona sar daitez-

ke batera, 18 urte baino gehiago eta kirol abonua dutenek. Kanpo-koak ere sar daitezke, eguneko sarrerarekin. 3,7 euro balio du.

Bainuetxeko %80 elbarriendenako egokitua dago. Spa eremua da, momentuz, egokituta ez dagoen toki bakarra.

## Joseba Alberdi gailendu da pilota elkarteko zozketan

Bergara Pilota Elkartea zozketa egin zuen martitzenean Erreki jatetxeen. Joseba Alberdik 500 euro eta Atano pilotalekuaren izango den buruz-buruzko partidurako bi sarrera irabazi zituen, 1.555 zenbakirekin. Maribi Peñasek, berriz, 200 euro eta bi pertsonendako afariaz gozatuko du, Erreki jatetxeen. 6.976 zenbakia zuen azken horrek.



GOIENKARIA

## CLINICA DENTAL BERGARA

12 hilabete arteko finantzaketa eta 5 urtekoa ere bai.

Hirugarren adinakoentzat deskontuak

Odontologia orokorra

Inplanteak  
Protesiak  
Hortz-estetika

Mutuak  
Sanitas  
DKV/Previosa  
Asisa  
Azkarlan  
Previsora Bilbaina  
Aegón  
Adeslas  
Allianz  
Mapfre

PADI



Bidekurutzeta 36, behea BERGARA 943 76 05 77

RPS 9904

> TXIRRINDULARITZA  
**San Antonio Saria**  
egingo da bihar,  
zapatua, arratsaldean

LXXI. San Antonio Saria izango da bihar, 16:00tan. Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria da proba hori eta lehen eta bigarren urteko kadeteek parte hartuko dute.

70,5 kilometro bete beharko dituzte txirrindulariek. Bergarrik Osintxura joango dira eta handik Eskoriatzarrantz abiatuko dira, Aingeru Guardan buelta emateko. Handik Bergarara itzuliko dira, Antzuolarako bidea hartzeko. Bergaran amaitu aurretik Osintxutik pasa beharko dira berriro.

> SHOTOKAN  
**Aparteko emaitzak lortu zituzten bergararrek**

Joan zen zapatuan Shotokango XI. Bergarako Txapelketa jokatu zen Labegaraietan, eta herriko gazteek maila ezin hobea erakutsi zuten.

Mikel Gallastegi, Maddi Iñarra, Joel Gomez, Ekiñe Garzia, Xabier Iñurrieta, Uxue Azpiazu, Irati Rodriguez eta Haizea Iñarra norbere mailatan gailendu ziren. Eibar, Irún eta Oñati koen kontra lehiatu ziren.

Txapelketa horrekin aurten denboraldia amaitutzat eman dute, iraila arte.

> IGERILEKUAK  
**Agorrosingo kloro kutsadura dela-eta, abokatuekin dabilta**

Bergarako kirol teknikari Unai Asurmendik azaldu dueñezi, Gilliam enpresari erantzukizunak eskatzea aztertzen dabilta abokatuekin, joan zen astean Agorrosingo igerilekuaren izandako kloro kutsadura dela-eta. Zenbait igerilarri gaixotu ziren.

Kloro gordailua 1.500 litro jaso ditzake baina, 1.400 litro-ira istean, alarma piztu beharko litzatekeela esan du. Horrek huts egin zuen eta 1.600 litro sartu ziren, gainezka eginez.

## nire bidaia hora

Xabi Garamendi

Azoresen izan zen > 2005eko abuztuan

# "Oso leku lasaia da Azores, liburu bat irakurtzeko eta kafea eta postrea hartzeko apropoa"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Azken orduan prestatu zuen Xabi Garamendik orain dela bi urte egin-dako bidaia. Azoresen izan zen, neskatalagunarekin eta beste bikote batekin batera. Bi aste igaro zituzten "lasaiegia" diren irla horietan.

"Ustekabe atsegina" hartu zuen 38 urteko bergararrak Azoresera iritsi zenean, "oso irla politak" direlako. Guztira, hamabost egun eman zituzten Atlantiko erdian, lehengo astea San Miguelen eta bigarrena Faialen.

Abuztuan egin zuten bidaia. Bergarrik Madrilera autoz joan ziren eta Barajasen hegaldia hartu zuten Lisboaraino. Beste hegazkin batek San Migueleko hiriburu Ponte Delgadaraino eraman zituen. "Nahiko urrun dago. Nik uste dut Ameriketako



Irudian, Xabi Garamendi.

Estatu Batuetatik eta Portugal-dik distantzia bera edo antzekoa egongo dela", azaldu du Garamendik.

Irlak "oso baserritarra" direla gogoratu du: "Hango herriak oso txikiak dira eta errepideak oso estuak". Azken horien bazterrak

hortentsiaz beteta zeudela esan digu, hiru metroko hortentsiak: "Kontraste handia sortzen zuten hortentsiek, behiak zituzten landek eta itsasoak".

### SETE CIDADES URMAELAK

Ponta Delgadatik Sete Cidadeseko urmaletara joan ziren. Horiek 18 kilometroko crater zahar batean daude, landaretzaz inguratuta daude. Beste behin, sumendi-irla batera joan ziren egun-pasa: "Txalupak han laga gintuen goizean goiz, hondartzeta mendia bakarrak duen irla batean". Urpean igeri egiten ibili ziren han.

San Migueleko herri arrantzale txikiak ezagutu ondoren, Faial irlara joan ziren: "Barku bat alokatu eta baleak ikustera irten gin, baina ez genuen zorterik izan. Izurdeak bakarrik ikusi geni-

tuen". Azoresen hondartzarik ez dagoela azaldu du bergararrak. Itsaslabarrak dira guztiak.

Bidaia hartatik gehien gustatu zaiona "jendea" dela dio, "oso zabalak" dira-eta. "Zerbait hartzera joaten ginen eta haein hitz egiten hasten ginen, nongoak ginen eta azalduz". Kafea eta postreak ere gustuko izan ditu. Azoresen, bestalde, euskaldun gutxi ikusi zituztela dio: "Ez da oso turistiko. Hala ere, etxeetan Kanadako ikuin asko zeuden".

Bikote bat gomendatuko lioke horrelako bidaia bat: "Oso irla lasaiak dira, ez daukazu aukerarik gauean buelta bat emateko". "Liburu batekin joan eta irakurtzeko, kafea eta postrea hartzeko paraje ederra da". Ez lukeela berriro errepikatuko dio, "munduan asko dago-eta ezagutzeko".



Xabi Garamendi neskatalaguna eta beste bikote batekin joan zen Azoresera, San Miguel eta Failan irletara.

## bere ustez



Mikel Elkoroberezibar

## Teoriatik praktikara salto

**B**adira urte batzuk GOIEN-KARIAN idazten nabilela eta denbora horretan hainbat gairi buruz idatzi dut. Askotan idatzitakoak gure udaleko agintariekin egindakoak kritikatzeko izan dira. Horregatik etxekoek beti esan izan didate teoria gauza bat dela eta praktika beste bat.

Orain agintean edo oposizioan egon, lau urtez Udalean lan egitea tokatu zait, teoriatik praktikara pasatzeko ordua heldu zait alegia. Ez da gauza erreza izango, baina Bergara moduko herri bateko udal

### "Bergara moduko herri bateko udal ordezkari izateak ardura handia suposatzen du"

ordezkari izateak ardura handia suposatzen du eta erronkari heltzeko prest eta gogotsu izatearekin ez da nahikoa.

Aurretik daukagun erronka ez da erreza izango, baina guztiak laguntzarekin eta partaidetzarekin, izan ere lau begik, bik baino gehiago ikusiten baitute, Bergara hobetzea lortuko dugu.

Eta uste dudanez guztiok gauzak adierazteko tokia edo esparruak behar ditugula, eta zutabe honetan etorkizunean Udaleko kideekin kritiko izango diren iritziek tokia izan dezaten, opor batzuk hartuko ditut zutabe honetatik.

Orain idaztea edo esatea baino gehiago egitea tokatzen zaidanez, besteren batzuk lagatzen diot nire txokotxa teoria egiteko, hori ere, egin, egin behar baita!

Osasuna + edertasuna + ongizatea =  
**ELITium**

Tratamendu pertsonalizatuetan onena

Tratamendu erosoa eta ez erasokorrak:

- Estresaren aurkakoa
- Zelulitisaren aurkakoa
- Sendotzailea
- Likidoen erretentzioa
- Zirkulazio arazoak
- Drainatzalea
- Izter Iodiak

Estetika zentroa  
**Igaro**

Zure gorputza  
udarako  
presta ezazu!

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

# EDEL

## TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiak

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



Irrintzi  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

**ARLUTZ**  
TABERNA  
*Gustuko musika*  
Mitarte 16. ARETXABAleta Tel.: 943 79 32 34

hemen □ bada  
**giro!**

**Ezkutu**  
TABERNA  
*Zatoz gure musikaz gozotzen*  
Mitarte 9 ARETXABAleta Tel: 943 79 92 01

**VALDEZATE**  
*Bokatak eta plater konbinatuak*  
Araba ibilbidea 5, behe - Tel: 943 25 07 40

**IOSU**  
*taberna harategia*  
Urdaitegia-gozategia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak  
Mitarte 1  
Tel.: 943 77 03 08

**EXPRESS TABERNA**  
Santa kurtz 16 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 23 43

**Dorleta**  
*Loteria primutiboak eta kinielak*  
DORLETA TABERNA  
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABAleta

**OTZETA JATETXEA**  
Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

**BASABE**  
*Menuak eta afariak*  
Basabe poligonoa ARETXABAleta 943 77 07 94

**Gurea**  
TABERNA  
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

**HIRUSTA JATETXEA**  
Iñaki plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

Orly  
aretxabaleta

Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33

**ZARAIA**  
taberna  
Goizeko 06:00etik irekita  
Araba ibilbidea 20 • ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 88 95

hemen □ bada  
**giro!**

*Matikua jatetxea*  
Azatza auzoa ARETXABAleta 943 79 16 68

HAUTESKUNDEAK 07 > UDALBATZAK DATOZEN LAU URTEOTARAKO

# Datozen lau urteotarako Udala bihar 10:00etan eratuko dute

Zinegotzi kargua hartzeko deia 13 ordezkariak daukate, baina Aralarrek ez du hartuko EAERi dagokiona; gainerako taldeek ez dute ezer jakinarazi

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABAleta  
Bihar eratuko dute Udala datozen lau urteotarako, eta ezohiko osoko bilkura 10:00etan izango da.

**AZKEN OSOKO BILKURA**  
Azken lau urteotako agintaldiko bihar bukatuko dute. Azken ordua arte ibili da lanpetua udalbatza; izan ere, eguztenean bertan egin zuen agintaldiko azken osoko bilkura. Aurreko bilkuretan aktak onartzeko bakarrik izan zen, eta elkarri agur esateko. Udalbatzako hamabi kideen artetik –Aralarko batek ez zuelako kargua hartu– bik bakarrik errepikatuko



OSOKO BILKURA Eguaztenean egin zuten agintaldiko azken osoko bilkura.

ri lortu zituen. Ordezkariorik, baina, lau talderen artean banatu zituen Alderdien Legeak: Aralar, EA, EAJ eta Ezker Batua/Zutik. Hala eratzu gero Udala, hona bakoitzak izango lukeen zinegotzi kopurua: Aralarrek lau, EAk eta EAJk hiru, PSE-EEk bi eta Ezker Batua/Zutikek bat. Aralarrek, baina, jakinarazi du EAERi dagokion kargurik ez duela hartuko orain dela lau urte moduan; hortaz, hiru zinegotzi izango ditu. Gainerakoek ez dute ezer esan.

Udala eratzeko mahaia ordezkarri nagusienak, gazteenak eta udal idazkariak osatuko dute. Hauteskunde batzordeak bidali-tako kreditzialak jasoko dizkiote ordezkarri bakoitzari, eta kargua hartuko dute gero, banan-banan. Bukatzeko alkatea hautatuko dute bozketa bidez. Bozketeta bakarra izango da, eta derrigorrez zerrendaburua izan behar du alkate izateko. Gehiengo absolutua eskatzen du legeak alkate izendatzeko, eta hori lortu ezean zerrenda bozkatuenaren burua izendatuko dute.

**LANAK** > BIDEGORRIA EGITEN

## Arrasatera doan bidegorria itxita dago lanak direla-eta

Aldundiaren ardura da CVL lantegitik aurrera dagoen bidegorri zatia bukatzea, eta lanek iraun bitartean ez du beste pasabiderik jarriko oinezkoendako

**M.A. > ARETXABAleta**  
Hasita daude CVL lantegitik Arrasaterantz dagoen bidegorri zatia bukatzeko lanak. Deba erre-karen eta errepidearen artean dago 209 metro inguru dituen zatia, eta Olloquiegi SA enpresako hondeatzeko-makinak dabilta erreka inguruan. Ondorioz, itxi-

egin dute Aretxabaletatik Arrasatera oinezkoek zeukaten ibilbidea, eta ez dute beste pasabiderik egin.


Hori horrela, hainbat herritar joan da egunotan udaletxera kexa azaltzen, eta jakin gura dute ordezko ibilbiderik ez duten egingo. Udaleko Hirigintza Sai-

letik argitu gura dute bidegorri zati horren lanak Foru Aldundiaren ardurapean daudela, eta Udalak ez duela zeresanik. Eta jakinarazi, gainera, lanok iraun bitartean –hiru hilabete inguru, eguraldia lagun– ez dutela beste biderik egokituko oinezkoendako.



BIDEGORRIA Hondeatzeko makinak lanean eta ibilbidea itxita oinezkoendako. M.A.

propaganda  
kartelak  
kartak  
jai egitarauak  
pegatinak  
liburuak  
etiketak  
txartelak  
errekordatorioak  
gonbidapenak  
errebistik  
inprimakiak

  
**EGUZKIGRAF**  
inprimategia  
1979 urtetik  
zure zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941  
E-mail: info@eguzkigraf.com

> ERAKUSTALDIA  
**Contact dantza erakustaldia gaur, 20:00etan**

Jaiki elkarteak antolatuta contact-inprobisazio dantza erakustaldia egingo du Gasteizko Ikutu taldeak. Gaur da, 20:00etan, Errekabarren kaleko plazatxoan. 20 minutuko ikuskizuna izango da, eta, hainbat kontaktu puntu mantenduta, inprobisazioa, espresioa, malgutasuna, oreka eta batez ere elkarri entzutea landuko dituzte.

Uztailerako, ostera, gorputzaren mugimenduaren bitartez ahotsa lantzeko ikastaroa antolatu gura du Jaiki elkarteak.

> LEHIAKETAK  
**Kartel eta esaldi lehiaketak Andramaixetarako**

Andramaixak iragartzeko kartel lehiaketa deitu du Kultura Sailak. Hona oinarriak: teknika librea; 50x70 zentimetroka; eta derrigorrezko testua: *Andramaixak 2007, abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a, Aretxabaleta*. Ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira, kultura etxeen edo udal-letxeen Saria, 300 euro.

Eta esaldi lehiaketa ere abian da 13 urtetik gorakoendako. Udaletxera edo kultura etxera eroan behar dira ekainaren 28rako.

> NAGUSIAK  
**Imsersok antolatutako bidaietan izena emateko epea zabalik**

Zabalik dago Imsersok nagusiendako antolatzen dituen bidaietarako izena emateko epea. Udaleko Prebentzio Zerbitzuko teknikari Myriam Beltran de Herediari eman behar zaio astelehen, martzen edo egubakoitzetan, eta azken eguna ekainaren 30a da. Izena ematera doazenek nortasun agiria eta pentsioko diru kopuruaren agiria eroan behar dute. Argibide gehiago gura izanez gero, udaletxera deitu.

**Mobiliario ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta



PARTIDUAK Arlutz taberna ostean dagoen kantxan futbito txapelketa jokatzen.

M.A.

Arlutz tabernan eman behar dute izena taldeek hilaren 26rako, eta antolatzaleek hilaren 29an banatuko diete partiduen egutegia

**EUSKARA > ARETO FUTBOL TXAPELKETA**

# Areto futbol txapelketa uztailean Loramendik eta Arlutzek antolatuta

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta** Loramendi Euskara Elkarteak eta Arlutz tabernak areto futbol txapelketa antolatu dute uztailerako. Izenemate epea ekainaren 26an bukatuko da.

**GUTXINEZ HAMAR LAGUN** Ohitura handia dago gure herrian areto futbol txapelketa jokatzeko, eta urte batzuetan ez

antolatu arren, aurten berreskuratzea erabaki dute. Hona hemen parte hartu gura dutenek bete beharko dituzten baldintzak: 16 urtetik gora izatea; talde bakoitza gutxienez hamar lagunek osatzea; eta 100 euro ordaintzea taldeko.

Arlutz tabernan eman behar dute izena taldeek ekainaren 26a baino lehen. Izena ematera-

koan, taldearen izena, harremetarako izena eta telefonoa utzi beharko dituzte. Partiduen egutegi eta ordutegien berri, ostera, ekainaren 29an emango diete antolatzaleek izena emandakoei.

**MALABARISMO IKASTAROA** Ikastaroa ere antolatu du Loramendi EEk uztailerako. Malabarrrak zelan erabili erakutsiko du

Gasteizko Zilipurdi zirku taldeak. 16 orduko ikastaroa izango da, guztiz praktikoa. Uztailaren 3a eta 26a bitartean, martzenetan eta eguznetan egingo dituzte eskolak, 18:30etik 20:30era, Iturrigorri pilotaleku alboko kantxan.

Interesatuek Loramendi EEen eman behar dute izena ekainaren 28a baino lehen, eta 17 euro ordaindu.

## Cavarekin agur Barriketan ikasturteari

Barriketan egitasmoen lehen ikasturtea bukatzeko Mikel Garaizabal enologoa gonbidatu zuten cavaren gainean jarduteko.

Egitasmoen datorren ikasturtean izango du jarraipena. Batetik, abian jarritako taldeek irailean helduko diote berriro lanari, eta bestetik, badago hasteko gertu dagoenik ere. Astean ordubete euskaraz berriketan eman gura duenak eman dezala izena udaletxeen, Loramendin edo euskaltegian.



BARRIKETAN

HAUTESKUNDEAK 07 > UDALBATZAK LAU URTEOTARAKO

# EAJk eta EAk ez dute argitu elkarrekin gobernatuko duten edo ez

EAE-ANV alderdiak gogoratu du alderdiak garaiz daudela eurei dagozkien eserlekuak ez hartzeko, bai zapatu aurretik baita gero ere

**OIHANA ELORTZA > OÑATI**  
EAJk eta EAk, biek dute borondatea elkarrekin gobernatzeko datozen lau urtetan, baina ez batek ez besteak ez du oraindik esan hori horrela egingo dutenik. Eguenean, atzo, ziren azken bilerak egitekoak. Orain arte, alde biek onartu dute azken urtetako balantza positiboa izan dela eta aurrerantzean ere horrela jarraitzeko prest daudela. "Esperientzia ona izan dugu eta agian horrela bukatuko dugu", esan du Lourdes Idoiagak.

des Idoiagak. "Elkarlanean jarraitzeko borondatea dugu geuk ere", izan dira Ernesto Murgiondoren adierazpenak.

EAE-ANV alderdiak eurei dagozkien eserlekuak ez hartzeko egindako enplazamenduaren aurrean, alde biek erantzun dute printzipioz, alderdiek hartu dute la erabakia eserlekuak hartzeko. Gerora begira, Lourdes Idoiagak aurreratu du forma aldetik posible ez den arren, Udal zabalikizango duela EAEk.

Oñati Ezkerretik koalizioak, ez du erabaki laugarren eserleku hartu edo ez. Karmelo Perez de Almaraz zerrendaburuaren esanetan, egunean, atzo, hartu behar zuten erabaki hori.

## EAE UDALEAN EGOTEKO

EAE alderdiak gogoratu die alderdi horiei oraindik posible dela erabakia aldatu eta eserlekua ez hartza, bai zapatu aurretik baita gero ere. "Erakutsi dezatela hauetako eguna hautua errespetatzen dutela", esan du Marijo Altubek. EAEk Udalaren jarraipenarekin batera, auzotako eta taldeetako ordezkariekin hitz eta lan egingo dutela gaineratu du EAEko zerrendaburuak.



UDALETXEA Osoko bilkuren aretoan egingo dute inbestidura eguna zapatuan, 12:00etan.



ETXEA Berezao industrialdean dago okupatu duten etxea.

O.E.

OKUPAZIOA > ETXE BAT OKUPATU DUTE GAZTE BATZUK

## Okupazioa, etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko

Gazteek herritar guztiak gonbidatu dituzte etxea nolakoa den ikustera joateko

### OIHANA ELORTZA > BERGARA

Gazte batzuk etxe bat okupatu zuten joan den egubakoitz gauean. "Egun oso zaila da etxebizitza izatea: alokairuak garestiak dira eta salneurriak zer esanik ez. Guk egoera hori salatu gura dugu eta aldi berean, etxebizitza izateko eskubidea aldarrikatu", diote okupa sartu diren gazteak. "Gura dugu etxebizitza hutsik ez egotea Oñatin",

jarraitu dute. Eurak diotenez, Oñatin ere gazte asko kexatzen da etxebizitzaren arazoaz, baina gero gazte gutxik erabakitzentzu hori salatzeko zerbait egitea.

Okupatu duten etxea lau urtez egon da hutsik eta Aldundiarena, Udalarena eta Sprirrena da. Gazteek herritarrak gonbidatu dituzte eurak eta etxea ikustera joateko.

### ERRETIRATUAK > SARIAK

## Hamaika sari banatu dituzte erretiratuen bazkarian

Benidormen 15  
egunetako egonaldia  
bi lagunendako da  
lehenengo saria

zuen oparia, lopez betetako lorontzia, hain zuzen ere. Pake Lekuk barkamena eskatu gura dio saridun horri.

### Irabazleak

Candido Herrero	074zbk.
Aurora Díaz	166zbk.
Blanca Ripa	145zbk.
Ana Lezeta	083zbk.
Nieves Enparantza	079zbk.
Cruz Odriozola	036zbk.
Luis Txintxurreta	147zbk.
Jose Agirre	162zbk.
Eli Otalora	226zbk.
Nikolas Granado	131zbk.
Bixente Ezeolaza	102zbk.

ITURRIA: PAKE LEKU

### > OHARRAK

## Argia kenduko dute domeka goizean herriko lau kaletan sarean hobekuntza lanak egiteko

Oñargik jakinarazi duenez, domeka goizean argia kenduko dute herriko hainbat kaletan sarean hobekuntza lanak egin behar dituztelako. Argia kale hauetan kenduko dute, 09:00etik 12:00etara: San Lorentzo osoan, ETEO ikastetxeen, Goribarko 2tik 15erako atarietan eta Otadui Zuhaitziko 2tik 56ra bitarteko atarietan.



Errementari plaza 8, Oñati  
Tel.: 943 53 22 47

- Kirol denda
- Zapalketaren azterketa
- Arreta pertsonalizatua



### GINEKOLOGIA KONTSULTA BERRIA OÑATIN

J. Rodriguez Santos doktorea  
**Ginekologoa**

Atzeko kalea 6, behe • ONATI  
Tel.: 943 78 24 89 (ordua eskatzeko)

Kontsulta egunak: ostiraletan  
**9.00etik 13.00etara**  
Eta 15.00etik **18.30era**

**Aseguruak:**  
Lagun Aro, Adeslas, Aegon, Mapfre, Winterthur, Foru Aldundia, Sanitas, DKV.

**OSPAKIZUNA > ESKORIATZA KIROL ELKARTEAREN EGUNA**

# Mota guztietako ekitaldiz beteko dute erdigunea kirol elkartearen egunean

Umeendako tailerrak, rock kontzertuak, tortilla lehiaketa, erakustaldiak eta beste izango dira

Ekitaldi ia guztiak herriko plazan egingo dituzte, 12:00etatik domeka goizaldera bitartean

Denboraldia bukatuta dagoela-eta, kirol elkartearen giroa jartzeko gogoz dago

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Bihar, zapatua, Eskoriatza kirol elkartearen eguna ospatuko dute udalerrian. Lehenengo aldia da herriko kirol elkartea halako eguna antolatzen duena, eta egitarau oso zabala prestatu dute.

"Egun hori antolatzearren arrazoia da denboraldia bukatu dela eta elkartea lan egiteko gogoz dagoela", azaldu zigun elkarteko presidente Manolo Muñozek. "Helburua da jendeak ondo pasatzea; jokalariek, entrenatzairek, herritarrek, bisitariek... Garrantzitsua da herriko ekitaldiak antolatzea; hobe halako gehiago egongo balira", gaineratu zuen Muñozek.

**SASKIBALOIA ETA FUTBOL ARETOA**  
10:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 17:30era bitartean kirolegian eta Luis Ezeiza eskolaren patioan saskibaloia eta areto futboleko hirunako norgehiagokak egingo dituzte. Gura duten gaztetxo guztiek esku hartu ahal izango dute. Bi kirol horiek hurrenik ezagutzen aukera izango da.

12:00etatik 13:30era bitartean umeendako tailerrak eta jokoak izango dira Herriko Plazan; ordu beraean, trikitilariek kalejira egingo dute; eta tortilla lehiaketa ere izango da. Tortillak etxetik plazara eramango dituzte, eta epaimaiak hiru sari emango ditu, Alza enpresaren esku.

Eguerdi partean Herriko Plaza jendez eta ekitaldiz lepo egingo da. Are gehiago, 12:30ean, herriko motorzaleek erakustal-

dia egingo dute leku berean. Tortillak dastatu ostean, atseden hartuko dute elkartekoek.

**TRIALSINA ETA KENPOA**  
Arratsaldean trialsin erakustaldia egingo dute, 17:00etan, hain justu. Horren ostean, 18:00etan, kenpo taldekoek erakustaldia egingo dute. 19:00etan, berriz, umeen pintura tailerra izango da leku berean.

Ordurako hainbat herritar gosetuta egongo direnez, parillada egingo dute 19:30ean, ardo eta garagardoarekin lagunduta.

Bestalde, egun osoan Alfonso Romero margolari bergararraren erakusketa ikusgai egingo da kultura etxearen.

## ROCK KONTZERTUA

Kirol elkartea gazte askok osatzen dutenez, gauerako rock kontzertua antolatu dute. Arianrod, rock gogorra egiten duen talde eskoriatzarra; hardcore melodiko egiten duen Scam talde aretxabarterra; eta De Fault (lehen Dolce Vita) heavy talde arrasatearra arituko dira 22:00etan.

Kirol elkartekoek gura izan dute eguneko ia ekitaldi guztiak Herriko Plazan bertan batzea.

## DENBORALDI ONA

Kirol elkarteko presidente Manolo Muñozek esan digu azken denboraldi guztien balorazio ona egiten duela, "lantaldea ikaragarria delako eta lan handia egiten due lako". Emaitzei dagokienez, berriz, ez da kexu Muñoz: areto



SASKIBALOIA Saskibaloiko (argazkian) eta areto futboleko taldeek denboraldi ona egin dute.

GOIENKARIA

futbolari dagokionez, gazte mai lako ligakoak lehenengo aldiz lehiatu dira liga horretan, eta hor jarraitzen dute. Ohorezko ligan, berriz, ez dira indartsu ibi

li, baina jokalari berri asko dituzte. Bukatzeko, euskal ligan, mai lari eutsi diote. Saskibaloiarri dagokionez, seniorreko taldeak igoera fasea jokatu du; gazte mai

lakoak oso ondo ibili dira; eta kadeteek izugarrizko denboraldi ona jokatu dute.

Pilotan ere txapelak irabazi eta irabazi dabilta.

## JAIAK > SAN PEDRO JAIAK

# Jaietako horma-irudia aukeratu dute, eta prest dute San Pedro jaietako egitaraua

Kart autoen pista, Murphy magoa, Burundiko dantza taldea, kantu txapelketa eta beste dira berritasunak



IRABAZLEA Iñaki Kortazarrek egina.

**I.B. > ESKORIATZA**  
Aurtengo San Pedro jaietako horma-irudia Iñaki Kortazar eskoriatzarrak egin du. Guztira hiru lan aurkeztu dituzte lehiaketara, eta Kortazarrek *Herri honek merezi dauelako!* lelopean egindakoak jaso du saria.

Jaietako lotuta, Udaleko Kultura batzordeko arduradunek jakinarazi digute jaietako egitaraua ia prest dutela dagoene-

ko. Dakizuen moduan, hilaren 28an, 29an eta 30ean eta uztailaren 1ean ospatuko dituzte herriko jai nagusiak.

Aurtengo berrikuntzei dagokienez, nabarmendu beharra dago Gorosarri plazan ikuskizun bereziak egingo dituztela: hilaren 29an, Burunditik (Afrika) etorritako dantza talde ikusgarri bat arituko da; eta hilaren 30ean, Murphy magoak ikuski zuna egingo du. Mago horrek Elgetako III. Magia Mostran esku hartu zuen eta ikusleen saria jaso zuen, gainera.

**KART AUTOETAN IBILZEKO AUKERA**  
Bestalde, hilaren 29an, kart autoen pista jarriko dute Olaeta plazan, gasolindegia inguruan, gaztetxoendako.

Horrez gain, uztailaren 1ean, Euskal Jai Egunean, koadrilen arteko kantu txapelketa egingo dute; eta txosnetan Desmaskaradas talde kataluniarrak kontzertua egingo du.

**DE LA TORRE igeltserotza**

*Erreformak orokorrean  
Gremioen koordinazioa*

Intxaurtxueta 7 2-D  
20540 Eskoriatza  
Tel.: 943 71 52 64 / 639 76 29 27



HAUTESKUNDEAK 07 > UDALBATZAK LAU URTEOTARAKO

# EAEk alkabetza eskuratzeko ez du oztoporik izango

EAE-ANVko buruaren esanetan, talde guziek jakinarazi dute ez dutela beste alkategairen baten alde bozkatuko

**IKER BARANDIAREN> ESKORIATZA**  
Bihar, zapatua, udalbatzak osatuko dituzte herri guztieta. Eskoriatzan osoko bilkura 12:00etan egingo dute. Udal hau teskundeetan aukeratutako zinegotziak lehenengo bilkura egingo dute. Hala, Eskoriatzako Udaleraiko alkatea zein izango den bozkatu beharko dute.

Bozketa horretan inolako hautagairik botoen gehiengo osoa eskuratuko ez balu, udal hau teskundeetan boto gehien jaso zituen alderdiko burua izango da alkate.

Eskoriatzan EAE-ANV da herritarren aldetik babes handien jaso duena. Hortaz, oso posible da talde horren buru

Pedro Lasagabaster alkate izendatzea. Are gehiago, Lasagabasterrek berak jakinarazi digu alderdi eta talde guziekin izandako batzarrak positiboak izan direla: "Guztiekin esan digute ez dutela bestelako alkategairik bozkatuko guri alkabetza kentzeko".

Bestalde, Lasagabasterrek argitu du oraindik ez dakitela talde horiek udal kudeaketan esku hartzeako asmorik daukaten: "Guk eskaintza egin diegu; orain, erabaki beharko dute".

**GAINERAKO ALDERDIAK**  
Jakin dugunez, EAko ordezkarriak ziurrenik abstentu egingo dira; ez daukate EAren kontra egiteko asmorik. EAJ eta EB-Berdeak-Aralarkoek esan digute egun horretara arte ez dute la hartutako erabakia aditzera emango.

Elizateetako ordezkariek erantzun digute gaur, egubakotza, iluntzean, batzartuko direla. Bestalde, jakinarazi dute normalean zerrenda bozkaturen alde egiten dutela.



UDAL EUSKALTEGIA

## Euskaltegira, euskaraz, oinez

Aretxabaletako eta Eskoriatzako ikasleek osatzen duten Leintz Udal Euskaltegiak ikasturte erdi herri bakoitzean egiten du. Eguraldi ona aprobetxatuta, Eskoriatzara, eskolara, oinez joaten hasi dira. Bidean mintza-praktika egiten dute eta eskolara heltzen direnerako euskarazko txipa izaten dute. Euskara praktikatzearekin batera, sasoian jarriko dira.

> ETXEBIZITZAK  
**Eguaztenean  
zozkatuko dituzte  
etxebizitza tasatuak**

Eguaztenean, hilaren 20an, egingo dute Santa Marinako 31 etxebizitza tasatuak zozketeta. 12:00etan egingo dute, Ibarraundi museoa bertan.

Udaleko ordezkariez gain, Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazo ere han izango da.

Udaletik jakinarazi dute udaletxeko harreran daudela onartutako zerrendak, eta interesatuek han ikus ditzakete zozketarako dagozkien zenbakiak.

> OSPAKIZUNAK  
**Aste Zapatista  
lagundu izanagatik  
esker ona**

Aste Zapatista antolatzen duen taldeko kideek esan digute oso pozik daudela asteak izan duen arrakastarengatik eta herritarren esku-hartzeengatik.

Horrekin lotuta, antolatzaileek eskerrak eman gura dizkiete Amuska elkarteko kideei, Aretxabaletako lagunenai, Durangon bizi den Mari Luz Santesteban mexikarra eta ekitaldietan esku haritu duten herritar guztiei.

## MAPFREk bulego berria ireki du Eskoriatzan Zerbitzurik onena hurbilago

MAPFREn liderraren kalitatea eta gizatalde handi bat dauzkazu, behar gaituzunean zure ondoan izateko.


Pasa zaitez Intxaurtxueta 2ko bulegotik, eska ezazu aseguru-proiektu bat eta **eramazu opari bat**.

**Ordezkarria:**

Edorta Zubizarreta Alegria (Erregistro zk.: 73659)

Tel.: 943-714465

Faxa: 943-714594



**Handia izatea Jarrera bat da**



ANTZUOLAKO LIBURUTEGIA > BILDUMAKO LAUGARREN ZENBAKIREN AURKEZPENA

# 'Ura Antzuolan' liburua argitara emango dute gaur, egubakoitza

Liburuarekin batera, gai berberaren gaineko erakusketa egingo dute asteburuan

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Herriko Plazan erreka bistaratzeko egin dituzten lanak eta atzeko aldeko gainezkabidearen lanak aitzakia hartuta, *Ura Antzuolan* liburua prestatu dute Iñigo Ramirez de Okariz historialgileak eta Udaleko Hirigintzako teknikari Valen Moñuxek. Antzuolako Liburutegia bildumako laugarren liburua da oraingo hau. Iazko maiatzean ekin zioten bilduma hori osatzeari; hiru liburu argitaratu zituzten orduan: *Lurretik mahaira*, *Antzuolako trena eta Maristik Antzuolan*.



UHOLDEAK 1988ko uholdeen ondorioak ikusi ahal izango dira liburuan eta erakusketan.



'URA ANTZUOLAN' LIBURUA

URAREN GARRANTZIA ANTZUOLAN

Liburuaren abiapuntua edo tesiak honakoa da, Ramirez de Okarizen esanetan: herri baten sorrean, bizitzan eta garapenean oso

baliabide garrantzitsua dela ura. Hortik abiatuta, Antzuolak urarekin izan duen harremana aztertzen dute liburuan: uholdeak, jar-

duera ekonomikoa, kontsumoa, argindarra sortzeko baliabidea eta abar. 104 orrialde eta 40 bat argazkiz osatu dute liburua.

Erakusketa didaktikoa ere jarriko dute asteburuan Olaran etxearen, eta zabalik egongo da hilaren 24ra arte.

HAUTESKUNDEAK 07 > UDALBATZAK DATOZEN LAU URTEOTARAKO

## EAJk ez du Gobernu batzordean parte hartuko, EAE-ANVk hori proposatu arren

Bihar, zapatua, egingo dute osoko bilkura, eguerdiko hamabietan, udalbatza berria osatzeko eta alkate berria aukeratzeko

A.I. > ANTZUOLA  
EAE-ANV alderdiko kideek gainerako alderdiei eskaini diete batzorde batzuen ardura hartzea eta Gobernu batzordean parte hartzea. EAJko eta Zutik-Ezker Batua-Aralar koalizioko ordezkariek elkartu dira. PSE-EEko Paco Morcillorekerekin ere jarri ziren

harremanetan, baina hark ez du nahi izan eurekin berba egiterik, indarkeria publikoki gaitzesten ez duten bitartean.

**EAJ, OPOSIZIONA**  
EAJ alderdiaren txanda izan zen lehenengo. Haiek argi laga zuten batzarrean, ez dutela inolako

batzorderen ardurarik hartuko, ezta Gobernu batzordean parte hartuko ere. Basili Ormazabalekin egon gara batzar haren berri jakiteko, eta honakoa adierazi digu: "Oposizioa egitea egokituko zaigu agintaldi berrian; gainera, azkeneko lau urteotan gauzak hain gaizki egin baditugu, ez luke zentzurik izango". Hauxe gaineratu digu: "Udalean ditugun arazo garrantzitsuenen berri eman genien batzarrean eta esan genien begi onez ikusten dugula auditoria egitea".

**ZUTIK-EZKER BATUA-ARALAR**  
Zutik-Ezker Batua-Aralar koalizioko ardurak hartzeko prest daudela adierazi zieten EAEko ordezkariei; oraindik, baina, zehazteke zuten zein batzorderen ardura hartuko duten. Gainera, Gobernu batzordean eta gainera batzorde guztietan lan egiteko konpromisoa ere hartu dute koalizioko ordezkariek. Hori bai, akordio finkorik ez dute egingo. Argi geratu den beste puntu bat da Pedro Iturbe EAEko hautagaia izango dela alkate berria.

> BADIHARDUGU  
**'Antzuolarrak berbetan' proiektua Interneten**

Aurreko astean aurkeztu zuen Badihardugu elkartea Antzuolarrak berbetan proiektua. Hainbat antzuolarrri egindako grabazioak jaso dituzte eta horietako asko entzuteko aukera dago Interneten. [www.antzuola.com](http://www.antzuola.com) webgunera sartu eta hantxe aurkituko duzue lotura.

> ERRETIRATUAK  
**Corellara irteera egingo dute ekainaren 28an**

Nafarroara, Corellara, irteera egingo dute erretiratuek ekainaren 28an. Hantxe, bestek beste, ardo upelategiak bisitatuko dituzte. Bingo eta dantzaldia ere izango dute baziakostean. 25 euro ordaindu beharko da; izena eman behar da hilaren 20an edo 21ean, 18:00etatik 19:00etara.

> ANTZUOLAKO JAIAK  
**Euskal ezkontza antolatzeko laguntha behar dute**

Herriko jaietako egubakoitzera eta domekarako euskal ezkontzaren antzezpena antolatzen dihardute. Ekitaldi horretarako herritarren parte-hartzea eta laguntha behar dute. Aktoreak, arre-rako materiala eta abar behar dituzte. Interesa dutenek Udalera jo behar dute.

> FRONTENIS  
**Frontenis txapelketa antolatzeko batzarra gaur, egubakoitza**

Herriko lagun talde batek eta Udalak I. Frontenis Txapelketa antolatu dute. Atzo, eguna, zen izena emateko azkeneko eguna. Gaur, egubakoitza, 19:30ean egingo dute batzarra egutegia zehazteko. Datorren astean hasi eta oporrak aurretik amaituko da.

**ABAD**  
DEKORAZIOA  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTTUAK

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

**EGAÑA**  
Era guztiako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**LARREA**  
TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

UDA KANPAINA > IZENA EMATEKO EPEA EKAINAREN 26AN AMAITZEN DA

# Sei proposamen egiten ditu aurtengo uztailerako Elgetako Kirol Zerbitzuak

Uztailaren 2tik 20ra adin guztiarako kirol jarduerak eskainiko ditu Uda Kanpainak; hain zuzen, bi zerbitzutan hiru txanda antolatu dituzte

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA  
Uztailerako adin guztiarako kirol proposamenak egiten ditu aurtuen Uda Kanpainak Elgetan.

Multikirola, tenisa, gazte-batuka, batuka, tai txia eta txikienendako aisiaidlia dira egiten diren proposamenak. Gehienak 10-16 urte bitarteko gazteendako zuzenduak daude eta gutxienez 3 urte behar dira parte hartzeo.

TXIKIENENDAKO, GOIZEZ  
3-6 urte bitarteko umeendako Aisiaidlia izeneko proposamenak egiten du Uda Kanpainak. Esko-



GAZTEEI ZUZENDUTA Gehienbat 10-16 urte bitarteko gazteei zuzendutako eskaintza egin dute antolatzaileek.

titzetik egunera, 12-16 urte bitartekoek. Prezia 25 euro da. Eta aurrekoetan bezala, tai txia egiteko aukera ere egongo da aurten. Astelehenetik eguztainera egingo dira saio horiek, kirolegian, 20:00etik 21:00etara. Prezia 25 euro da.

**BESTE PROPOSAMEN BAT, BATUKA**  
Nagusitxoak direnendako batuka prestatu dute aurtengoan Uda Kanpainako antolatzaileek. Bi ikastaro izango dira, biak arratsaldez. Bata 10-16 urte bitartekoendako eta bestea 16 urtetik gorakoendako. Ikastaro horien prezioa 25 euro da eta astean lau ordu dira.

**IZENEMATEA, HILAREN 26RA ARTE**  
Zabalik dago izena emateko epea. Lehenengo diru sarrera egin behar da Kutxan, jarduera eta izen-deiturak zehaztuta. Ondoren, izenemate orria bete behar da udaletxean. Orduak eta egunak guztiz zehazteke daudenez, komeni da aurrez informazio hori Kirol Zerbitzuan eskatzea.

la zaharretan egingo da, goizez, eta prezioa asteko 30 euro da. 6-12 urte bitartekoendako Multikirola eskaintzen da. Askotariko jola-

sak eta erraketa kirolak sartzen dira hortxe. Elgetako kirolegian egingo dute ekintza hori eta prezioa asteko 20 euro da.

Tenisa egiteko aukera ere izango da uztailean Elgetan. Egunero, 10:00etik 11:00etara ikastaroa izango dute aukeran, mar-

## Alkate izendatzea bihar 12:00etan

Eguaztenean egin zuten agintaldiko azken osoko bilkura Elgetako udaletxeen. Alkate berriaren izendatzea bihar, zapatua, egingo dute, 12:00etan. Ekitaldia udaletxeen bilkura aretoan egingo dute eta saio irekia izango da. Ezusterik izan ezean Oxel Erostarbe izango da alkate hurrengo agintaldian. EAE-ANVK ez dio prentsari bere asmoen berri eman eta Patxi Basaurik esan du norberen aldeko bota eman edo abstenitu egingo direla.



L.Z.

## > BOLETA Gipuzkoako txapelketan 6. sailkatu da Sebastian Arantzabal elgetarra

Amaitu berria da Gipuzkoako 38. Hiru Txirlo Boleta Txapelketa. Lehenengo mailan Asola-Berriko Bittor Astigarraga nagusitu da auren egin diren saio ezberdinatetan. Guztira 41 txirlo jo ditu.

Lehenengo elgetarra Sebastian Arantzabal izan da. Zabalekoak 31 txirlo jo ditu.

## > KONTZERTUA Sweet Oblivion taldea gaur, 22:30ean, Espaloia Kafe Antzokian

Alfonso Aranaren azken proiektua da Sweet Oblivion. Cujo izeneko talde getxotarraren komposatzaile eta gitarrista izandakoa da Alfon.

Elgetako kontzertuan, taldeak amodiozko kantuak abestuko ditu; izan ere, *Wasted Lovesongs* diskoa aurkeztuko du, taldearen lehenengoa.

## > HERRI ESKOLAKO UMEEK Ikasturte amaierako jaialdia egingo dute gaur Espaloian, 14:30ean

Ekainaren 22an amaituko dute ikasturtea Elgetako Herriko Eskolan. Amaitu aurretik, baina, ikasturte amaierako jaialdia egingo dute gaur, barikua, Espaloian.

14:30ean hasita, eskolako ume guztiek ikuskizuna egingo dute. Kantuan eta dantzan egingo dute. Seigarren mailakoek, berriz, antzezlana prestatu dute.

Ana Sousa > Biodantz irakaslea

## "Biodantzaren bitartez emozioak kanporatzen ikasten dute askok"

L.Z. > ELGETA

Eguenean biodantza saio irekia egin zuten Elgetan. Lehenengo ikasturtea bukatzean dago. Ondo joan da eta arduradunek jarraipena emannahidiote ekinenari. Biodantza zer den jakin nahi izan dugu.

Zer da biodantza?

Bizitzaren dantza esan nahi du. Rolando Toro psikiatra txilearrak sortu zuen, 1965an. Dantza eta musikaren bitartez gure emozioak kanporatzen laguntzen digu. Eta gero, gure egunero harremanetan nabaritu egiten dira jarrera aldaketa.

Eta zer lantzen da biodantza ikastaro batean?

Irakaslek ariketak proposatzen ditu. Esaterako, binaka jarri eta batek ezetz eta besteak baitetz esan behar du. Askotan, besteak konbentzitu egiten gaitu. Hor dago gakoa. Askotan, nahiz eta gauza bat pentsatu gizarteak gugandik beste zerbait espero duelako pentsatzen dugunaren kontrako esaten dugu. Gero, gaizki sentitzen gara. Besteak beste, horrelakoetan ez erortze-



Ana Sousa.

L.Z.

ko ariketak egiten dira biodantza ikastaro batean.

**Adin guztiarreko jendearen-dako da, orduan, biodantza?**

Bai. Adin guztiarreko eta prestakuntza berezirik eskatzen ez duena.

**Zelan joan da lehenengo ikastaroa Elgetan?**

Ondo. Berriz ere taldea osatzeari, ekinenari jarraipena ematea da gure asmoa.



EAE-ANV Ezkerretik eskumara: Martin Arriolabengoa, Ainara Inuntziaga, Asier Agirre, Joseba Jauregi eta Jon Errasti.

U.M.

**HAUTESKUNDEAK 07 > UDALBATZAK DATOZEN LAU URTEOTARAKO**

# Bihar, zapatua, 10:00etan hartuko dituzte karguak alkateak eta zinegotziek

EAE-ANV gehiengo osoa eskuratu zuen maiatzeko hauteskundeetan; hori horrela, ez da ezustekorik espero biharko udal eraketan

**UBANE MADERA > ARAMAIO**  
Aramaiko udalbatza osatuko duten bederatzi ordezkariek bihar, zapatua, 10:00etan dute hitzordua, osoko bilkuren aretoan. Datozen lau urteotan herriko alkate eta zinegotzi izango direnek karguak hartuko dituzte batzar berezian.

Procedura honakoa da: udal eraketa mahaia osatuko dute hautagai gazteenak (Jon Errasti/EAE-ANV) eta nagusie-

nak (Andres Osinaga/EA). Hala, mahai horri aurkeztu beharko diziote zinegotzi izango direnen kredentzialak. Gero, karguak hartzeko, zin egin beharko dute. Azken urteotan, zin egiteko gehien erabili duten formula da "lege-aginduz" zin egiten dutela.

**BOZKETA, ALKATEA AUKERATZEKO**  
Zinegotzi guztiak karguak hartu eta gero, bozketa egingo dute. Hain zuzen ere, hauteskundeetan

ordezkaritza lortu duten alderdi bakoitzen hautagaia bozkuko dute; Aramaioren kasuan, EAE-ANV, EAJ eta EAk lortu zuten ordezkaritza. Eta gehien-goa eskuratzentz duen hautagai hura izendatuko dute alkate.

Maiatzeko hauteskundeetako emaitzei esker, EAE-ANV gehiengo osoa seguru dauka biharko bozketari begira: bost zinegotzi EAE-ANV, hiru EAJ eta bakarra EAk. Hori horrela, eta ezusteko handirik ezean, Asier Agirre izendatuko dute alkate. Hark ere zin egin beharko du kargua hartzeko. Behin hori egin ostean, udal eraketarako batzarra amaitu egingo da.

**OSOKO BILKURA BEREZIA**

## Uztailaren 4an hartuko dituzte lehenengo erabakiak

Legearen arabera, Udalera eratu eta gero, 30 egun pasa baino lehen hartzeko beharko ditzu aurreneko erabakiak gobernu berriak.

Hori horrela, aurreikuspenen arabera, uztailaren 4an (eguaztena) egingo dute batzar hori Aramaion; dena den, baliteke data aldatzea. Ezohiko batzarra izango da.

Bestelako artean, organo kolegiatuak izendatuko dituzte. Hau da, Udalak parte hartzen duen erakundeetarako udal ordezkariek izendatuko dituzte. Adibidez, Zuiako Koadrilako, Uemako, Goienako, Vital Kutxako eta halakoetako ordezkariek.

Aldi berean erabaki beharko dute datozen lau urteotan zein egunetan eta zein ordutan egingo dituzten osoko bilkurak; orain artekoak, hilean behin, eguztenean eta 18:00etan izan dira.

Horrek batera, alkateak udal batzordeetako arduradun politikoak izendatuko ditzu; eta hurrengo osoko bilkurari begira, auzo alkateak izenda daitezten ere eskatuko du.

Bukatzeko, bestelako artean, alkateak bere ordezkoak, alkateordea dekretu bidez izendatzeko eskubidea du. Bada, uztailaren 4ko osoko bilkuran izendapen horren berri emango du.

**HEZKUNTZA > UDAKO IKASTAROAK**

## VI. uda ikastaroak uztailaren 2tik 5era egingo dituzte

Izenematea zabalik dago: 902 19 96 47 telefonoan edo posta bidez egin daiteke

**U.M. > ARAMAIO**  
*Urte gatazkatsuak Bidasoaren bi aldeetan (1930-1945). Horixe da aurtengo udako ikastaroetan landuko duten arloa. Uztailaren 2tik 5era bitartean izango dira eskolak, kultura etxeak, betiko moduan. Eta dagoeneko izena emateko epea zabaldu dute.*

Hain zuzen, hiru bide dauztena emateko: telefonoz (902 19 96 47); posta elektronikoz ([aramaio@hurbilkulturgaiak.com](mailto:aramaio@hurbilkulturgaiak.com)) edo posta arruntez: Hurbil Kulturgaiak SL, Aramaiko VI. Uda Ikastaroa, 160 posta-kutxa, 20550, Aretxabaleta.

**HAINBAT UNIBERTSITATEKOAK**  
Aurten, EHUTik, Eusko Ikaskuntzatik, Parisko UNEDetik eta Deustuko Unibertsitatetik etorriko dira, besteak beste, eskolak ematera. Tartean, Andres Urrutia euskaltzainburuak jardungo du.

**HEZKUNTZA > SAN MARTIN ESKOLA**

## Ikasturte bukaerako jaia egingo dute ekainaren 21ean

Eguerdi partean egingo dute jaialdia kultura etxeak, 6. mailakoak agurtzeko

**U.M. > ARAMAIO**  
Ehun ikasletik gora eta haien irakasleak datorren egunean elkartuko dira kultura etxeak zinema aretoan, ikasturtea bukatzen dela-eta, 6. mailako ikaskideei agur esateko. Aurten, eguerdian egingo dute jaialdia, ikasleak goizeko ordutegia-rekin dabilta-eta. Hain zuzen, 12:00etan egin dute hitzordua.

Ohi duten moduan, talde bakoitzaek ekitaldi berezia presatuko du, egun horretan aurkezten. Antzerki saioak, kantaldiak hainbat hizkuntzatan eta antzerakoak egingo dituzte neska-mutikoek.

Horrez gainera, San Martin Eskolari agur esango dioten 6. mailako ikaskideei oparituko diete taldeari eta euren irakasleari ateratako argazkia, oroitzapen moduan. Hain justu ere, aurtengo ikasturtean 14 ikaslek esango diote agur San Martin Eskolari.

Gainerakoek irailaren 10ean bueltatu beharko dute, orduan hasiko dute-eta ikasturte berria.



ARAMAIOKO UDALA

## Dantza taldearen omenaldiko CDA

Apirilean, Lagun Artea dantza taldearen 50. urteurrenaren ospatu zuten. Bada, egun hartan, 50 urteotako argazkiekin egindako bideoa proiektatu zuten. Orain, proiekzio horrek eta omenaldiaren egunean bertan egindako argazkiekin beste bideo bat egin eta bi bideoak CD baten sartu dituzte. 10 eurotan eskura daiteke CDA, udaletxean.

HAUTESKUNDEAK 07 > OSOKO BILKURA

## Datozen lau urteotarako udalbatza eratuko dute bihar, 11:00etan egingo duten bilkuran

Zazpi lagunek daukate zinegotzi kargua hartzeko deia; eta ostean, Eusebio Villar izendatuko dute alkate

Udala eratu eta gero, irteten eta sartzen direnek batera bazkatzeko asmoa dute

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Gainerako herriean bezala, Gatzagan ere bihar eratuko da Udala datozen lau urteotarako. Ezohiko osoko bilkura 11:00etan izango da.

ZAZPI LAGUNEKO UDALBATZA

Herri askotan 12:00etan eratuko dituzte Udalak, baina Gatzagan aurreratu egin dute osoko bilkuraren hitzordua, Eskoriatzako idazkariaren gidaritzapean egin beharra dutelako. Hala, Eskoriatzakoa baino lehen eratuko dute.

Udaletxeen elkartuko dira Leintz Gatzagako Hautets Elkarteko ordezkariak, eta zazpi lagunek daukate zinegotzi kargua hartzeko deia. Hona izenak: Eusebio Villar, Ainara Zubilla, Iñaki Elkorobarrutia, Asier Elkorobarrutia, Iñaki San Pedro, Ibon Oñederra eta Ainhoa Barandiaran. Karguak haritu ostean, alkatea izendatuko dute, eta, zerrendaburuak izan behar duenez, Eusebio Villar hautatuko dute. Zinegotzi kopuruari dago-kionez, aurreko agintaldian bai-

no bi gehiago izango dira lane-rako, eta Udala eratu ondoren go egunetan banatuko dituzte ardurak: "Udaleko sail bakotza zeinek hartu erdi erabakita dau-kagu, baina Udalaz kanpoko ardurak banatu behar ditugu: Mankomunitateko ordezka-ria...", azaldu du alkate izango den Villarrek.

AURRERAGO, BATZARRA

Bihar eratuko den udalbatzak dagoeneko egin du batzar bat aurreko agintaldiko taldearekin. Hala ere, aurrerago beste bat egi-teko asmoa dauka azken lau urte-otan esku artean izan dituzten proiektuen berri izateko. Horrez gainera, herri galdeketa egin gurako luke, herriaren planginta-za egiteko orduan herritarren iritzia izateko.

Bihar, Udala eratu ostean, ateratzen diren udalbatzako kide-ek bazkaltzera joateko asmoa dute sartzen diren taldeko kide-ekin. Bazkariarekin ospatuko dute guztiak eguna.

> KONTZERTUA

**Mikel Urdangarinak kontzertua egingo du gaur Gatz Museoan**

Korrikaren aitzakiarekin otsail inguruan hainbat herri-tarrek sortu zuten Korrika batzordea oraindik lanean dabil, eta kontzertua antolatu du gaur gauerako. Mikel Urdangarin bakarlaria eto-rriko da, 22:00etan, Eugenio Otsoa Gatz Museora. Gau giro goxoa izanez gero kontzertua kanpoan egiteko asmoa dute antolatzaleek, eta bestela, museo barruan.

> ERLIJOIA

**Lehen jaunartzeak domekan Dorletako santutegian**

Domekan, hilak 17, jaunartzeak egingo dituzte Dorletako santutegian, 12:30ean. 7 eta 9 urte arteko Gatzagako hiru neskak hartuko dute lehen aldi jauna Martin Mendizabal frantziskotarraren eskutik.

Katekesian ibili dira hiru neskatoak lehen jaunartzera gertatzen, Gasteiztik datoren erlijioso baten gidaritzapean, eta domekan jai handia izango dute.

> KZGUNEA

**Internet erabilita lana zelan topatu azalduko dute**

Astelehenean, hilak 18, *Enplegu bat lortu* izeneko ikastaroa egingo dute Pilar kalean dagoen KZgunean. Lana topatzeko Internetek eskaintzen dituen aukeren berri emanago du Aitor Madrid ardura-dunak.

Euskaraz izango da ikas-taroa, eta 18:00etatik 20:00etara egingo dute. Lekua dago izena emateko.



PARTIDUAK Mutikoak pilotak partidua jokatzen Gatzagako pilotalekuak.

M.A.

PILOTA > GATZAGAKO INFANTIL MAILAKO TXAPELKETA

## Finalerdiak jokatuko dituzte domekan

Bergara, Arrasate, Amurrio, Altsasu, Elorrio, Azpeitia eta Azkoitiko mutikoak norgehiagokan

M.A. > GATZAGA  
Gatzagako infantil mailako pilota txapelketa aurrera doa, eta domekan finalerdiak jokatuko dituzte, joan zen astean atzeratutakoak. Sei partidu izango dira goizean eta beste sei arratsaldean.

HAINBAT HERRITAKO INFANTILAK  
Partiduak 10:00etan hasiko dituzte, eta lehen, bigarren eta hirugarren maitetako infantilek jar-dungo dute. Hona aurkariak: Altsasu eta Elorrio; Amurrio eta

Azpeitia; Altsasu eta Azpeitia; Bergara eta Arrasate; Azkoitia eta Arrasate; eta Azpeitia eta Amurrio.

Arratsaldeko partiduak 16:30ean hasiko dituzte; hona aurkariak: Azpeitia eta Azkoitia; Amurrio eta Bergara; Azpeitia eta Azkoitia; Amurrio eta Arrasate; Azkoitia eta Arrasate; eta Bergara eta Arrasate.

Finalak uztailaren 1ean, domeka, jokatuko dituzte eta jai giroa antolatu dute ordurako.

Ekainaren 18a:  
134 zozketa


ASTELEHENeko GOIENKARIA  
Harpidedunen  
**txokoa**

Saridunak

Ekainaren 18an  
ELGETAKO ESPALOIA  
KAFE ANTZOKIAN izango den SWEET OBLIVION ikusteko 6 sarrera.

Ana Agirre Sirena (Bergara)  
J. Ramon Idigoras (Oñati)  
Iñaki Gillegi Larrañaga (Elgeta)

134 zozketako saria



**Markak Gernika 1937**  
Bernardo Atxagaren azken liburuaren bost ale.

Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremetan.

Harpidedun egiteko:  
**902 36 38 51**  
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:  
**35 euro**  
2007 bukaera arte

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

## Sariak astero!

Astelehenean, ekainaren 11 sari hauetako izango dituzte.

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Jende asko batu zen  
eguaztenean  
Mojategiko kirol  
instalazio berrien  
inaugurazioa  
gertutik jarraitzena;  
lanak oraindik  
amaitzeke daude

**XABIER URTZELAI > ARRASATE**

Eguazten arratsaldean inauguru zituzten Mojategiko kirol instalazio berriak. Ekitaldira gertutu ziren herritarrek zuzenean ikusi ahal izan zuten Arrasatek izango duen kirol gune berria. Eta, lan horiek baloratzeko ez dago instalazio horiek erabiliko dituztenei galdeztza modukorik. Batetik, kirol gune berria oso ondo dagoelako, eta bestetik, behar handia zegoelako, guztiak azaldu ziren pozik.

**ORDEZKARI ASKO**

Arrasateko Udalak ez zuen aparteko inauguraziorik egin gura izan, ekitaldi simplea izan zen. Hala, jende asko gerturatu zen Mojategira eta herritarren artean aurpegi ezagun asko. Jaime Barriusok –Eibarko presidente– eta Juan Antonio Larrañagak –Realeko harrobiko ardura– egin zituzten bi klubetako ordezkari lanak. Diputazioa ordezkaten izan ziren Gizarte- eta Instituzio-harremanetarako diputatu Fernando Tapia eta Kirol Zuzendari Iñaki Ugarteburu. Eurekin batera, kirol elkartetako ordezkari asko: Mondrako, UDAko eta Aloñako presidenteak, besteak beste.

Eta, inaugurazio ekitaldia gertutik jarraitu zuten, baita ere, beste kirol elkarteko batzuetako ordezkariekin, errugbiokoek eta atletismokoek, esaterako. Realeko eta Eibarko kadete mailako futbol partidua baino lehenago, Arrasateko alkate Inazio Lakun-

**KIROL INSTALAZIOAK > MOJATEGI INAUGURATUTA**

# Eibarren eta Realaren arteko norgehiagokak inauguru zuen Mojategi kirol gune berria



REALA ETA EIBAR Bi talde horietako jokalariek estreinatu zuten Mojategiko futbol zelai berria.

x.u.

tzak eta Gizarte- eta Instituzio-harremanetarako diputatu Fernando Tapiak berba batzuk esan zituzten. Alkateak Mojategiko kirol guneak Arrasate herri osasuntsua izan dadin lagunduko duela adierazi zuen, eta diputatuak "denondako kirol instalazioak direla" azpimarratu zuen:

"Hasi eskola kirolean dabiltsan gazteetatik eta baita herritar eta federatu mailan dabiltsanenda-ko ere".

Berbaldi laburren ondoren eterri zen instituzioen eta kluben arteko oroigarrien elkartrukea. Eta, ekitaldian parte hartu zuten ordezkariei erretratuak egin eta

gero hasi zuten kadete mailako Eibarrek eta Realak lagunarteko futbol norgehiagoka.

**EIBAR IRABAZLE**

Bi talde horiek izan zuten Mojategiko futbol zelai berria estreinatzeko ohorea. Puntako belar artifizialarekin eginda –ez dauka zerikusirik lehengo zelai artifizialekin–, koloredun harmailek bizi tasuna ematen diote futbol zelaia-ri. Zale askorendako lekua dago harmailetan, eta futbol zelai inguruaren ere badago norgehiagoka ikustea. Hala, Eibarko aurrelariak izan ziren Mojategiko ateak zulatzen lehenak. Norgehiagoka hasi eta berehala egin zuten lehenengo gola, eta gero, Realak baloiaren jabetza handiagoa izan bazuen ere, Eibarrek irabazi zuen partidua (4-3).

**DENBORA MOTZEAN**

Mojategiko lanak egiteko Udalak 11 milioi eurotako aurrekontua izan du –milioi eta erdi euro Foru Aldundiak jarri du–, eta bi urte behar izan dituzte lanok egiteko. Alde horretatik, gutxi gorabehe-

ra aurreikusitako epean amaitu dituzte lanak –nahiz eta egin duen udaberri euritsuak lana hilabete atzeratu duen–.

Atletismo pistak jartzea da geratzen den lanetako bat –eta moldaketa txiki batzuk egitea–, eta uztaila aprobetxatu gura dute lanok egiteko. Hori horrela, Uda Kanpainako hainbat kirol jarduera instalazio berrietan egin gura baditzute ere, Eusko Jaurlaritzako ordezkariek atletismo pistak ikuskatu eta onarpena eman arte ezingo dira erabili.

Horrekin batera, erabakitzeko dago harmailetan dagoen eremu estaliarekin zer egin. Hasierako asmoa jatetxe bat jartzea zen, baina hori baztertuta, klubek kudeatuko duten taberna txiki bat eta eurendako batzar gelak jartzea da asmoetako bat.

**BADAGO ZER HOBETU**

Aurreratu moduan, lanak amaitzen dituztenean Mojategiko kirol gunea ikusgarri geratuko da. Gune hori herri barruan egotea gauza handia da –denborak era-kutsi du Atxabalpe egitea hanka



INAUGURAZIOA Udalak gonbidatuta, kirol elkartetako eta instituzioetako hainbat ordezkari izan ziren ekitaldian.

x.u.

## FUTBOLIN TXAPELKETA



[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)  
943 76 42 31 / 652776051

Saria: **Mercedes SE 400** edo **5.000 euro** txapeldunarentzat  
eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalari)

Antzuola: Mox – Surpe Aretxabaleta: Haizea – Izotz – Kixkor **Arrasate**: Biona – Iturriotz Equus – Udal – Wiskeria **Bergara**: Agirrebeña – Agorrosin – Avenida – Biko – Ganbara Gaztetxea – Mitor **Eskoriatza**: Aldatz – Naira **Onati**: Arrano – Ongi – Otamendi

sartzea izan zela-, jendea autoa hartu barik joango dela-ko kirol instalazioetara. Lan handiak egin dituzte Mojate-gin, eta horrelako lanak egin eta gero hainbat konponketa egin behar izaten badira ere -orain dela gutxi botatako euriteekin tenis pistetan putzuak egin ziren-, bihar bertan Udalera sartuko den talde berriak hausmarketa egin beharko du hainbat kon-turen gainean.

Batetik, skate gunea kirol instalazioen barruan egin dituzte, hesiekin inguratuta. Hala, Arrasaten skatean ibil-tzen direnek dagoeneko azaldu dute euren haserrea, ez delako erabaki batere ona. Gainontzeko lekuetan, skate parkeak gune irekietan egi-ten dituzte, kirol horren jar-duera ez egoteko ordu batzue-tara mugatuta; gazteak goiz, arratsalde eta gauez ibiltzen dira skatean, doan.

Bestalde, lehen saskibaloiko kantxa zegoen lekuaren gune estalia jarri dute, kontrol urruneko autoendako zirkui-tu modukoa egiteko. Asmoa ona bada ere, ez dute leku-rekin asmatu, ez delako kome-ni autoekin zutabeak dauden lekuetan ibiltzea. Horretar-ko gune txikiagia da, baina beste edozein kirol jarduera egiteko aprobetxa daiteke, besteak beste, estalita egote-ak abantaila handiak ema-ten dituelako.



**Jose Luis Azkarate**  
Mondrako presidente

**Claudio Merchan**  
ART errugbi taldeko kide

**Jon Ormaetxea**  
Atletismo taldeko presidente

**Iker Lopez**  
Mondrako jokalaria

### "Hemen jokatzen ez duenak futbolean ez danielako da"

"Mojategi ikusgarri geratu da, Gipuzkoa osoan dagoen kirol instalazio txukunena dela esango nuke. Futbol zelaiari dagokionez ere, oso itxura polita dauka. Hemen futbolean jokatzen ez duenak, jokatzen ez danielako da", esan zigun Mondrako presidenteak. Liga txapelketak amaituta, Mondrako zuzendari-tzak oraindik ez daki noiz hasiko diren Mojategin lanean: "Oraindik ez digute ezer esan. Pentsatzen dut datorren denboraldia hemen hasiko dugula, baina ez dakigu aurre-denboraldia hemen egingo dugun edo ez". Horrekin batera, klubek izango dituzten bulegoen gainean ere, taldeetako zuzenda-ritzek ez dute abisurik jaso. Udan egingo dute hori.

### "Hamazazpi urte itxaroten egon eta gero, ordua zen!"

Arrasateko errugbi taldeko kide Claudio Merchan *Kako-k* instalazioak oso ondo geratu direla onartu zigun: "Oso ondo dago, baina ordua zen! Hamazazpi urte egin ditugu-eta hau eskatzen. Dena dela, oso pozik gaude taldeek horrelako zelaia erabili ahal izango dutelako. Izan ere, zelai horretan entrenatu eta jokatu ahal izango dugu, eta ez lehen geneukan zelaian. Herri barruan egotea ere oso garrantzi-sua da. Azken batean, entrena-tzera datozenean gazteen gurasoak lasaiago geratuko dira". *Kako-k* azpimarratu zuen horrelako instalazioekin errazagoa izango dela harrobiarekin lan egitea: "Zelaiarekin batera, aldagelak ere oso ondo daude".

### "Aurrekontuaren %60a Anoetara joaten gastatzen dugu"

"Atletismo pistak oraindik ez daude amaituta, baina ikusten gabiltzanez, oso ondo geratuko da dena", esan zigun Ormaetxeak. "Kontuan hartu, atletismoan Arrasaten harrobi garrantzitsua daukagula, eta horrelako instalazioen behar handia geneukala". Aipatzeko da, adibidez, pertika jauzia egiteko pista harmailen ondoan jarri dutela: "Jende oso ona daukagu pertika jauzian, eta zaleen berotasuna igartzeko egin dugu hori". Bestalde, etxean bertan entrenatu ahal izatea gauza handia izango da: "Aste barruan eta baita asteburuetan ere askotan joan behar izaten dugu Anoetara. Pentsa, taldearen aurrekontuaren %60a bidaiaik ordaintzen joaten zaigu".

### "Jokalariak berehala ohituko gara futbol zelai horretara"

Eibarren eta Realaren arteko lagun arteko partidua ikusten, Mondrako erdilariak bazuen zer esan: "Kanpoko taldeak ekarri beharrean, nik uste dut inaugura-zio partidua etxeko taldeak jokatu beharko lukeela. Bestela, futbol zelaia oso ondo dago, jokalariok berehala ohituko gara zelai horretara". Hala, Mondrako jokalarietik dagoeneko esan diote agur Atxabalperi: "Futbol zelai hora ondo zegoen, baina nik uste dut zaindu zitekeela hobeto. Orain, entrenatu eta jokatu egingo dugu hemen, eta hori ondo dago, areazko futbol zelaian ez ibiltzeko. Zelaiarekin batera, aldageletan ere alde handia igarriko dutela azpimarratu zuen Mondrako jokalariak.

# Nagusienako kirol jaia Elgetan

Debagoieneko 225 nagusik hartuko dute parte gaur ospatuko duten kirol jaialdian

Kirol guztiendako da ona, ume, gazte zein nagusiendako. Adin bakoitzerako kirol egokia eta tamaina apropoza zeintzuk diren jakin behar da. Kirol eta osasuna lotuta daude eta pertsona nagusieie ere ez dio kalterik egiten kirolak.

Oraindik badira kirola gazuendako bakarrik dela pentsatzen dutenak, baina nagusi askok uste dute eurendako ere oso lagungarria dela kirola. Debagoienean, esaterako, nagusi asko joaten dira Udal kirol zerbitzuek antolatzen dituzten kirol ekintzeta.

#### ELGETAN KIROL JAIA

Gaur, egubakoitzza, adibidez, XVI. kirol jaia egingo dute Elgetako kirol gunean. Mankomunitateko kirol zerbitzuak antolatutako jaia izango da. Urtero ibarreko herri ezberdin baten antolatzen du; iaz, Aretxabaletan egin zuten. Elgetara, Debagoieneko 225 lagun joango dira kirol jaialdira. Arratsaldean izango dituzte ekitaldiak. Mankomunitateak jarritako autobusetan egingo dute nagusiek Elgetatik joan-etorreria.



**NAGUSIAK** Makina bat ekintza egingo dituzte ibarreko edadetua gaur Elgetako kiroldegian.

#### JOLASAK, DANTZA ETA OPARIAK

Gaurko egitaraua prest dute ibarreko nagusiek. 14:45ean helduko dira, gutxi gorabehera, autobusak Elgetara eta 15:00etan kirol ekintzak eta jolasekin eman-

go diote hasiera kirol jaiari: badminton, pala, esku pilota eta bolo jokoan arituko dira, adibidez. Horrez gain, masajeak, erlaxazioa eta pilates egiteko aukera ere izango dute. Kirol jolasen

osteak merienda eta oparien banaketa egingo dute eta dantzaldiarekin bukatuko da festa. 18:45 inguruak bukatuko da dantzaldia eta etxerako bidea hartuko dute nagusiek.

**KIROL  
ZERBITZUEN  
BERRIAK  
JASOTZEKO:**

Antzuola 943 76 62 46

Aretxabaleta 943 71 26 28

Arrasate 943 77 16 77

Bergara 943 77 91 67

Elgeta 943 76 80 22

Eskoriatza 943 71 53 28

Oñati 943 71 63 75



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA  
kirol zerbitzua

KIROLA HIRUGARREN ADINEAN &gt; KIROL JAIA ELGETAN

# Inoiz baino lagun gehiago izango dira gaur edadetuen 16. kirol jaian

Gaur arratsaldean inoiz baino edadetu gehiago animatuko dira Elgetan egingo duten edadetuen 16. kirol jaian parte hartzen, 203 lagun izango dira

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Debagoineneko Kirol Zerbitzuek antolatuta, inoiz baino lagun gehiago animatuko dira gaur arratsaldean Elgetan kirol jaian parte hartzen. Athlon elkartekoak ibiliko dira ekintzak antolatzent, eta elkarteko kide Amaia Ribertek eman dizkigu xehetasunak: "15:00etan hasiko da jaialdia, eta 18:00ak nagusiek hainbat

ekintzetan hartuko dute parte. Gero, opariak banatu eta merienda izango da, jaialdia dantzaldia-rekin amaitzeko".

Hala, nagusiek pilates, aerobica, petanca, boloak, igel jokoak edo bestelako ekintzen artean aukeraketa egin behar izan dute: "Izan ere, adin horretan oso garrantzitsua da kirola egitea. Azken baten, hori da gure helburua, jarduera fisiko osasunaria bultzatzea".

JENDE MORDOA

Izenematearen gainean, Ribertek oso balorazio positiboa egin du, berrehun lagunetik gora elkartzea datu esanguratsua delako: "Jende asko da, aurreko urteetan ehun lagundik gora elkartzen zirelako, baina ez horrenbeste. Aurten ere ibarreko herri gehienetako nagusial dator".

Eta, arrakasta horren atzean harrera ona duen ekintzaren bat ote dagoen galdeutu diogu Athlonekoari: "Egia esatearren, dantzaldia dagoelako animatzen dira gehienak, dantzan egitera etortzen dira, horretan ibiltzen dira eta gusturen", esan digu Ribertek. Adinari dagokionez, ez dago mugariak: "Gazteenak 62 urte izango ditu, eta nagusienak 84 urte".

Debagoineneko kirol teknikariekin batera, Athloneko hamaiaka lagun ibiliko dira lanean.



AEROBICA Aurten ere ekintza hori izan dute aukera.

GOIENKARIA



ZAIN Pilotuak proba hasteko zain, irteera lekuau.

JOSETXO ARANTZABAL

MOTOKROSA &gt; LASTERKETA BERGARAN

## "Azkar ibiltzeko derrigorrezkoa da indartsu egotea"

Bihar egingo dute eguraldi txarragatik Pazkoetan bertan behera utzi zuten motokros lasterketa; 15:30ean hasiko dira probak

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Lehengoan ezin bada, bigarrenean izango da. Bergarako motokros lasterketak antolatzileek pena handiz bertan behera utzi behar izan zuten

Pazkoetan egin behar zuten motokros lasterketa. Amore eman barik, baina, bihar bertan egingo dituzte lasterketak,

Candy enpresaren ondoan dagoen zirkuituan: "Orduan ez zegoen korritzerik. Ez zen erabaki erraza izan, pilotu batzuek korritzea nahi zutelako. Zirkuitua, baina, erabat lokaztuta zegoen, eta gaztetxoek ezin zuten ibili. Pentsa, nagusiok ere zaitasunak genituen... Gainera, ikusleendako ere ez zen batere erraza proba eurite horrekin jarraitza", esan digu antolatzaile lanetan dabilen Asier Blazquezek.

asko egitea ez da komeni, baina hautsa ere ez dugu nahi. Batetik, pilotuendako oso arriskutsua izan daiteke, ez delako ezer ikusten. Bestalde, ikusleendako zatartu egiten da proba".

Bihar, 11:30ean hasiko ditutte entrenamendu saioak, eta 15:30ean hasiko dituzte lasterketak. Hainbat kategoriako pilotuak lehiatuko dira, eta nagusiek MX1 eta MX2 kategoriak jardungo dute -zilindra- da ezberdin eta bi edo lau aldi-tako motorrekin-.

IBARREKO HAINBAT PILOTU

Bergarako Josu Mentxaka, Joseba Lopez, Zalakain anaiak, Mikel Gomez eta Asier Blazquez izango dira gertutik jarraitu beharreko pilotuak, eta baita Arrasateko Xabi Abasolo ere. "Nahiko txukun geratu da zirkuitua, jauzi ikusgarriak, alda-pa gogorrak...". Hori bai, azkar joatea ez da motorraren kontua bakarrik: "Azkar ibiltzeko derrigorrezko da zezena bezain indartsu egotea.

BIHARKO DENA GERTU

Antolatzaileek gertu daukate dena, baita ura botatzeko makinak ere: "Ikusi egin beharko da ze eguraldi egiten duen. Euri

&gt; MENDIA

## Gipuzkoako Federazioak ikastaroa egingo du goi mendietan ibiltzen hasi gura dutenendako

Geroago eta gehiago dira garaiera handiko mendian ibiltzea gura duten mendizaleak, eta horrelakoetan ezinbestekoa da ondo prestatuta joatea. Horretarako, Gipuzkoako Mendi Federazioak ikastaro antolatu du uztailaren 7 eta 8ko aste bukaerarako.

Ikastaroaren helburua goi mendietan orientatzea eta autonomiaz nahiz segurtasunez ibiltzea da, baita ere zaitasuna duten oztopo zehatzak gainditzeko gauza izatea. Prezioei dagokienez, ekainaren 21a baino lehenago izena ematen duenak 75 euro ordainduko ditu. Ekainaren 21etik 28ra arte izena ematen duenak, berriz, 90 euro. Jakin derrigorrezko dela federatuta egotea. Jorge Malles da ikastaroaren zuzendaria: 690 67 00 50.



## Ibarreko hiru ziklista izan dira mendiko bizikletan Gipuzkoako onenak

Joan den asteburuan egin zuten Tolosan Gipuzkoako mendiko bizikletako txapelketa, eta ibarreko hainbat ziklista igo ziren podiumera. Kadete mailan, Arrasateko Iñaki Viejo (Lizarralde Kirolak) podiumeko lehenengo mailaraino igo zen, eta Markel Uriarte (Lizarralde Kirolak) aretxabaletarra sailkatu zen bigarren tokian. Junior mailan ere egon zen aipatzeko moduko txapeldunik, Aretxabaletara etorri zen-eta saria: Beñat Kortabarria izan zen onena.

MARTIN ARRIOLABENGOA

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



## > DEIANE ARRIETA

Orain gutxira arte GOITBko albistegietan ikusi izan dugun arren, kazetaritza alde batera utzi eta Prestakuntza Pedagogikoa ikasten aritu da aurten > 50




## > MUSIKA

La Habitacion Roja  
Jamen eta  
Sweet Oblivion  
Espaloian > 45

## > KOMUNIKAZIOA

Langileentzako  
'Estilo liburua'  
kaleratu du  
Goienak > 51



AZALA: ALEX AZKARATE

# Bidaietako kontuak trukatuz

'Gomendatzen dizut'  
oporetako gomendioen  
lehiaketa abian

Bergarako eta  
Arrasateko gazte  
bulegoek hartzen dute  
parte, besteak beste

**EDU MENDIBIL > BERGARA**  
Gazteendako hainbat informazio  
bulegoek *Gomendatzen dizut* opo-  
retako gomendioen lehiaketa  
deitu dute. Gipuzkoako Foru  
Aldundiko Haurren, Gazteen eta  
Garapenerako Lankidetzaren  
Zerbitzuaren laguntzarekin  
abian jarritako sariaketa da. Deba-  
goienari dagokionez, Arrasate  
eta Bergarako gazte bulegoek  
hartzen dute parte ekimenean.  
Haien batera, Andoain, Azkoitia,  
Azpeitia, Donostia, Elgoi-

bar, Irún eta Hondarribia dira  
lehiaketaren bultzatzaleak.  
Lehiaketaren laugarren ekitaldia  
da aurtengoa.

Gazteek han eta hemen iku-  
sitakoak konpartitzea da lehiake-  
taren helburua. Egindako bidaia-  
tik bueltan, oporetan ikuositako-  
aren gainean idatzi eta informazio  
hori trukatzea da antolatzaleek  
lortu nahi dutena. Horretarako,  
[www.aizue.com](http://www.aizue.com) bloga jarri zuten

(44. orrialdean jarraitzen du)

## Bidaietako kontuak trukatuz

(43. orrialdetik dator)

abian. Partaideek bidalitako gomendio guztiak sarean irakurtxeko aukera dago, argazki eta guzti kasu gehienetan. Diseinu aldetik itxuraldatuta dator webgunea, eta, gauzak errazte aldera, partaideek zuzenean *zintzilikatu* ahal izango dituzte mezuak sarean.

### BI KATEGORIA

Horrez gain, aurtengo deialdiko beste nobedadeetako bat hauxe da: adinaren arabera, bi kategoria bereiztu dituzte, 12-17 urte bitartekoena eta 18-34 urte dituzten gazteei zuzendutakoa. Partaideek nahi beste gomendio aurkezteko aukera izango dute, eta gomendioa ematerakoan horren arrazoia modu laburrean azaltzea eskatzen dute antolatzailleek. Blogaz gain, posta elektronikoa edo posta arrunta erabil daiteke gomendioak bidaltzeko.

Arrasateko Gazte Bulegoko arduradun Dorleta Kortazarren arabera, partaideak nagusiki bulegoko erabiltzaileak izan dira orain arte: "Denetarik dago, baina profila bulegoko erabiltzailea izango litzateke. Dena dela, lehiaketa gorpuzten joan da eta partaide berriak gehituz doaz gutxika-gutxika. Aurten, hamai-



ISLANDIA Mundu zabaleko gomendioak jasotzen dituzte [www.aizue.com](http://www.aizue.com) webgunean. Irudian, Islandiako parke natural bat.

GARI KORTAZAR

ka bulegok parte hartuta, kopuru handitza espero dugu. Gazteak animatu nahi ditugu euren proposamenak bidaltzera".

Sariei dagokienez, Arrasateko eta Bergarako bulegoek zozketa bana egingo dute. 12-17 urteko kategorian i-poda edo argazki

kamera izango da saria eta 18-34 urte bitartekoendako i-poda edo gustuko oporralditxoa aukeran.

Joan zen urteko ekitaldian, bi debagoiendarran saritu zituzten: 18 urtetik azpikoetan Jone Uriarte arrasatearrak eskuratu zuen saria *Atlas du sable aterpetxe bere*

*berra gomendioagatik. Bergaran Gorka Martinez izan zen irabazlea (*Figueira de Foz*)*.

**EPEA, IRAILAREN 30ERA ARTE**  
*Postaltxoak* aurkezteko epea irailaren 30era arte dago zabalik. Argibidetarako Bergarako zein

Arrasateko bulegoetara jo dezakezue. Bergarako Gazte Bulegoa kultura etxearen dago (943 77 91 58) eta Arrasateko Biterin (943 77 00 65). Badakizue, oporretara baozazte, ez ahaztu, argazki ederrak atera eta esperientziak koadernoan jaso...

Dorleta Kortazar > Arrasateko Gazte Bulegoko arduraduna

## "Gazteei protagonismoa ematea, eurak informatzaile bihurtzea da helburua"



E.M. > BERGARA

Dorleta Kortazar eskoriatzarra da Arrasateko Gazte Bulegoko arduraduna 1996a ezkerro. Biteri etorbideko 3. zenbakian dute bulegoa. Kortazar pozik da *Gomendatzentzizut* lehiaketak azken urteotan izan duen harrerarekin.

Nolatan abiatu zenuten *Gomendatzentzizut* lehiaketa?

2004an hasi ginen lehiaketa antolatzen. Hasieran bailara mailakoa zen, Oñati, Bergara eta Arrasateko gazte bulegoek antolatuta. Erantzun ona jaso genuen, eta Gipuzkoako gazte bulego guztiak (28 guztira) sarean gau-

denez, ekimena probintzia osora zabalzea erabaki genuen. Pixkanaka-pixkanaka hainbat bulego gehitzen joandira, eta beste batzuk kanpo geratu dira, aurrekontu edo denbora faltagatik kasu gehienetan. Aurten 11 bulegok hartzen dugu parte.

Zein da lehiaketaren helburua?

Gazteei protagonismoa ematea, eurak informatzaile bihurtzea. Normalean gazteak informazio bila etortzen dira guregana, eta lehiaketaren kontrako lortu nahi dugu: bizi izan duten esperientzien berri haien ematea, eta jendearekin konpartitzea. Gazteek gero eta gehiago bidaiatzen dute, eta lehen eskuko informazio hori baliagarria gerta daiteke beste batzuentzat.

Informazioa partekatzeko Internet tresna ezin hobea da...

Hala da, bai. [www.aizue.com](http://www.aizue.com) blo-

ga sortu genuen eta aurtengo nobedadeetako bat hauxe da: zuzenean gomendioak sartzeko aukera dagoela. Bertan daude lehiaketaren lehenbizio deialditik jasotako gomendio guztiak, 350 gomendiotik gora. Teknologiarekin trebatuta ez daudenek posta arruntaz bidali ego guregana ekar ditzakete gomendioak.

Uda partean beste ekimenik bultzatuko duzue?

Arrasateri dagokionez, *Uztailen igerilekura* kanpaina jarriko dugu martxan. Gazte Bulegoa eta Sexologia Zerbitzua Arrasateko igerilekura eramango ditugu astean behin, bulego ibiltariak bihurtuz, gazteak ibiltzen diren tokietara informazioa eraman da. Era berean, bi ikastaro egingo ditugu igerilekuak: bitxigintza ikastaroa Dunixe Royoren eskutik eta gaur egungo dantza ikastaroa, Saioa Ibañezek emango duena.

## Lanbide Heziketa CES

Ile-apainketa eta estetika ikastaroak

## LLONGUERAS

Titulo ofiziala (3. maila) Erresuma Batuan  
Nazioarteko lan-poltsa  
Nazioartean du balioa

*Matrikula epea zabalik!*

Olagibel kalea 61 behe - GASTEIZ  
Tel.: 945 12 03 60 - Posta-e: [formacionprofesional@gmail.com](mailto:formacionprofesional@gmail.com)



IKASKETA ZENTROA  
ILE APAINTE-ZESTETIKA

A.N.C.E.P.E.-REN AKADEMIA HOMOLOGATUA

**MATRIKULA  
EPEA  
ZABALIK**  
Maila goreneko  
diplomatura

GASTEIZ  
Santiago etorbidea 25  
(autobus geltokiaren ondoan)  
945 27 91 33

MUSIKA > LA HABITACION ROJA JAM-EN, ETA SWEET OBLIVION ESPALOIAN

# Pop-rock bizia eta elektronika agertokian

Gaur, egubakoitza, La Habitacion Roja eta Standard taldeak Jamen arituko dira; eta Sweet Oblivion taldeak Espaloian kontzertua egingo du

IKER BARANDIARAN > BERGARA

Gaur, egubakoitza, guitarra indartsuekin jantxitako pop-rock kontzertua egingo dute Bergarako Jam aretoan, 22:00etan.

La Habitacion Roja Espaniako Estatuko indie talde garranzitsuenetako bat da. Melodiaz jositako kantu hunkigarriak idazten dituzte, beti ere gitarren presentzia indartsuarekin. Azken aldian Mushroom Pillow diskotxearekin lanak kaleratzeten dihardute; eta azkena, *Cuando ya no quede nada* Chicagon grabatu zuten, Steve Albini soinu ekoiz-

le famatuarekin. Albinik Nirvana, Stooges, The Breeders eta beste talde askorekin lan egin du.

La Habitacion Roja taldearekin batera, Standard talde getxotarra izango da agertoki gainean. Rock indartsua egiten du, eta ohiko instrumentuez gain, teklatua eta bi bateria ibiltzen dituzte. Emaitzean tarteka elektronikaren kutsua antzematen da; eta jende askok Delorean talde zarauztarrekin alderatu du.

Une honetan 3.000v-40.000w estraineko diskoa aurkezten dihardute.

Bestalde, gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloian ere kontzertu interesarria egingo dute. Sweet Oblivion talde bizkaitarra izango da 22:00etan.

Sweet Oblivion Alfonso Aranaren proiektu berria da. Arana Cancer Moon taldeko musikaria izan zen, eta baita Cujo taldearen sortzailea ere. Azken talde horren gidari aritu da 1994tik 2007 urte bitartean.

Talde berri horri Ce neska abeslariak ukitu oso berezia ematen dio, eta rock amerikarra dute ildonagusi. Hain zuzen ere, une akustikoak eta pasarte elektrikoa uztartuta, AEBetako kantagintza tradizionala lantzen dute euren abestietan: Bob Dylan, Steve Earle, Neil Young edota bestelako eraginak agerian.



SWEET OBLIVION Sweet Oblivion talde bizkaitarra; Cujo eta Cancer Moon taldeetako Alfonso Aranaren projektua.

NOIZPOP



DANTZA ERAKUSTALDIA Erakustaldiak eta kalejirak egingo dituzte. GOIENKARIA

DANTZA > HAUR DANTZARIEN EGUNA

## Domekan, dantzari gazteak batuko dira Arrasaten

Urtero moduan, Haur Dantzarien Eguna egingo dute etzi, domeka, Arrasaten

I.B. > ARRASATE

Etzi, domeka, Haur Dantzarien Eguna egingo dute Arrasaten. Urtero ospatzen dute egun hori, San Juan jaien aurreti.

Aurten Arrasateko dantzariez gain, Oñati, Soraluze, Langraitz, Urdaibai eta beste herri batzueta dantzari gaztetxoak etorriko dira Arrasatera. Hain zuzen ere, 5 eta 14 urte bitartekoak izango dira esku hartuko dutenak.

EGUN OSOKO JAIA

Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostaitz dantza taldeek antolatzen dute egun hori, eta dagoeneko klasikoa bihurtu da. Hala, kanpotik datozen dantza-riak herriko familien etxeetara eta elkarre gastronomikotara eramatzen dituzte bazi-

tza. Dagoeneko esan dezakengu hainbat dantzariak Arrasaten familia propioa ere badutela.

10:00etan egin dute hitzordua Zaldibarko pilotalekuaren. Horren ostean, Herriko Plaza joango dira hamarretakoak egitera. Horren ostean, talde txikietan banatuko dira eta dantza erakustaldiak egingo dituzte kalez kale.

Lau izango dira herriko gune nagusienak: Arbolapeta, Seber Altube, Iturbide egoitza eta Herriko Plaza.

Bazkal ostean, berriz, alardea egingo dute Herriko Plazan. Talde guztiak batera dantza egingo dute; eta Debagoienetik kanpo etorritako taldeek dantza bereziak eskainiko dituzte. Eguna bukatzen, dantzaldia izango da plaza berean.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

**IMMOBILIARIA**  
**IBERGARAI 3 • BERGARA**  
tel./Fax: 943 76 97 97  
www.immokorost.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**

- Ibergarai 74 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitua.
- Masterreka 92 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Osintxu 80 m<sup>2</sup>. Berriuta.
- Angiozar Bi solairu. Berizteko.
- San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Aranerrea 87 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Zubietza 60 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Zubietza 60 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Osintxu 95 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Zubiaurre 60 m<sup>2</sup>. Berriuta.

**Antzuola:**

- Buztintza 76 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- Antigua 72 m<sup>2</sup>. Oso ondo.

**Elgeta:**

- Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politik.
- San Roke 90 m<sup>2</sup>. Berriuta.
- Salbador 90 m<sup>2</sup>. Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

**DEBA GARAIA**  
INMOBILIARIA  
Teleforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**

- Bidekurutza, 82 m<sup>2</sup>, ia berria
- Arizuri, 97 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Juan XXIII, 80 m<sup>2</sup>, berriuta
- Masterreka, 87 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Burdinatze, 60 m<sup>2</sup>, garajearekin
- Bidekurutza, 60 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Zubiaurre, 60 m<sup>2</sup>, aukera ona
- Ibarra, 47 m<sup>2</sup>, berriuta
- Zubietza, 65 m<sup>2</sup>, oso eguzkitua
- Erdialdean, 200 m<sup>2</sup>, aukera ona
- Ibergarai, 80 m<sup>2</sup>, ondo
- Artekale, 62 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Aranerrea, 87 m<sup>2</sup>, ondo
- Osintxu, 80 m<sup>2</sup>, ondo
- Mugertza, 60 m<sup>2</sup>, berria
- San Lorentzo, 18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.

**SORALUZE**

- Gabolatz, 65 m<sup>2</sup>, oso ondo
- Atxuri, 93 m<sup>2</sup>, oso ondo.

**ANTZUOLA**

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>, erdi berriuta.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

# 943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.  
PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERRO, 25 EURO (+BEZ-A).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Arrasate.** Etxebizitza salgai San Andresen. 57 m<sup>2</sup>. Guztiz berriuta. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldetza. Kanoaldiera begira. Igogailu eta sotoa. Deitu ezazu telefono honetara: 620 15 12 12.

**Arrasate.** Etxea salgai Grupo San Juanen. 60 m<sup>2</sup>, eguzkitua, ganbararekin eta sotarekin. Berogailu indibiduala. Deitu ezazu telefono honetara: 606 25 92 80.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitua. Bizihera saritzeko gertu. 90 metro koadro. Prezio interesgarria. Deitu ezazu telefono honetara: 685 72 40.

**Bergara.** Etxea salgai herri erdian. Lau logela, 3 bainu-ela, altzarietkin. 65 milioi. 659 44 76 75.

**Bergara.** Ibarra kalean. 50 metro koadro. Bergailuarekin. Jantzia. Eraberritu berria. Sukalde amerikarra. Bi logela. Eguzkitua. 635 71 04 55.

**Cangas de Morrazo** (Rias Bajaxas). Bi logelako apartamentua errentan ematen da. Herriaren erdian dago. Garaidea dauka. Bista ederrak Vigorra. 609 36 60 47.

**Donostia.** 72 m<sup>2</sup>-ko etxea salgai. Igogailuarekin. Bizihera sartzeko moduan. Bista ederrak. 396.070 euro (65.900.000 pta). 658 73 08 56.

**ARRASATE**  
Plazan dagoen Zuk Nahi taberna errentan ematen da.  
**618 76 34 40**

Duplexa salgai erdialdean. Lau logela, sukaldetza, egongela, bi komun eta garajea etxearrekin komunitatua. Deitu ezazu telefono honetara: 670 85 85 41.

**Guardia (Laguardia).** 80 m<sup>2</sup>. Sukaldetza, hiru gela, egongela-jangela, bainugela eta 30 m<sup>2</sup>ko ganbara. Jantzia. Hirigunean. Eguzkitua. Prezioa ados-teko aukera. Deitu ezazu telefono honetara: 943 77 21 24 edo 696 02 42 10.

**Oñati.** Apartamentua salgai San Lorentzo auzoan. Saloi-sukaldetza eta bi logela. Eguzkitua, terraza handiarekin. Garajea aukera. Deitu ezazu telefono honetara: 630 21 46 02.

**Oñati.** Duplexa salgai zentroan. Lau logela, bi komun, sukaldetza, egongela eta garajea. Deitu ezazu telefono honetara: 670 85 85 41.

**Oñati.** Etxea salgai Ugarkalde auzoan. Berria. Hiru logela, bi komun, sukaldetza, egongela eta terraza. Eguzkitua. Prezio interesgarria. Lehenbailehen saltze-ko premia. Deitu ezazu telefono honetara: 600 60 56 71.

**ARRASATE**  
Kanpazar jatetxeak barran zerbitzariak behar ditu.  
4 egun lan, 2 jai.  
**669 30 26 86**

**ARETXABAleta**  
Baster Alde jatetxeak esperientziadun zerbitzaria behar du.  
Domeketan jai.  
**679 45 57 75**

**103. ERRENTAN EMAN**  
**Arrasate.** Bi logela allokatzera bi-hiru ikaslerentzat Larrea plazan. Etxe berria, estreinatzeko. Ramon. Deitu ezazu telefono honetara: 943 77 22 37 edo 943 78 18 38.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan ematen da ikasleentzat; emakumezkoak nahia. San Andresen. Erabat berrituta, estreinatzeko, hiru logela, sukaldetza horriuta (mikrohain-labea, bitrozeramika...), egongela eta komuna. Igogailua. Unibertsitatetik hiru minutura eta erdigunetik bost minutura. Deitu ezazu telefono honetara: 679 84 62 48.

**Costa Sancti Petri-Chiclana** (Cádiz). Guztiz horriuta dagoen apartamentua errentan ematen da. Ekainerako, abuztuaren bigarren hamabostaldirako eta irailera. Leku zoragarrian, urbanizazio berriean. Igerileku, mini-golf, lorategiak... La Barrosa hondartza oso-oso gertu. Deitu ezazu telefono honetara: 916 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Cuzcurrita del Rio Tiron** (Errioxa). Apartamentua errentan ematen da. 941 30 15 12.

**Hondarribia.** Abuztuan. Hirigune erdian. Bi gela, bainua, sukaldetza egongela eta balkoiak. 625 13 96 58.

**Loredo.** Apartamentua allokatzera dautak Loredon (Kantabria) abuztuan. Bilogeladitu, eta hondartzatik 500 metrora dago.

**ASPACE BIZKAIA**  
Uztailaren lehen hamabostaldian ASPACE BIZKAIA-rekin oporretan joateko boluntarioak behar dira. Ez da beharrezkoa titulazio edota informazio berezirik izatea.  
Idatzi esepati@hotmail.com helbidera (Maria)  
**665 97 96 88**

**ARRASATE**  
Gozotegiak zerbitzari esperientziaduna behar du.  
Euskaraz jakitea ezinbestekoa.  
**645 99 67 06**

**ESKORIATZA**  
Zerbitzaria behar da jatetxe-erretegian aste bukaeretan lan egiteko.  
**662 13 27 55**

**PEÑISCOLA.** Apartamentua errentan ematen da ekinetik irailera. Hondartzatik gertu. Igerileku. Parkinga. 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

**PEÑISCOLA.** Apartamentua errentan ematen da. 945 29 33 80.

**Torrejueva.** 4-6 pertsonarentzako apartamentua errentan ematen da. Hondartza ondoan. 657 79 47 95.

**Vera (Almería).** Hondartza eta urbanizazio naturistaren dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzia. Igerileku, mini-golf, lorategiak... La Barrosa hondartza oso-oso gertu. Deitu ezazu telefono honetara: 657 73 94 25.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Aretxabaleta.** Etxea hartu nahi dut errentan. Ezinbestekoa da igogailua edukitzea. 606 25 17 74.

**Aretxabaleta.** Senar-emazte batzuek etxebizitza hartuko luke. Deitu ezazu telefono honetara: 625 47 61 62.

**ARETXABAleta**  
Sukaldaria behar da goizez edo arratsaldez lan egiteko.  
**675 70 82 36**

**OÑATI**  
Ile apaintzaile esperientziaduna behar da. Egun osoko lanaldia martzenetik zapatura, urtean 8 zapatu jai.  
**607 81 52 74**

**Eskoriatza.** Hiru logelako etxebizitza bila gabiltzan hiru ikasle. Interesatzen deiturak. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 81 38 edo 679 35 29 70.

**Noja.** Apartamentua errentan ematen da. 635 75 35 29.

**PEÑISCOLA.** Apartamentua errentan ematen da ekinetik irailera. Hondartzatik gertu. Igerileku. Parkinga. 943 79 48 82 edo 605 72 33 51 edo 649 21 62 71.

**Gasteiz.** Lau ikasle gara eta etxebizitza harru gura genuke errentan, urte osorako. Ane. 685 76 42 81.

**105. ETXEAK OSATU**

**Arrasate.** Logela errentan ematen dut, unibertsitatetik gertu. 665 13 31 10.

**Legazpi.** Itxaropen auzoan. Logela bat allokatzera pertsona batentzat; emakumezkoak nahia. Deitu ezazu telefono honetara: 649 92 19 48.

**2/ GARAJEAK**

**201. SALDU**

**Arrasate.** Garajea saldu edo errentan ematen dut. Uribarri. Deitu ezazu telefono honetara: 625 47 61 62.

**5/ IRAKASKUNTZA**

**501. JASO**

**Antzuola.** DBHko 2. mailako ikasleak eskola partikularrak jasoko lituzke, uztalean. Deitu ezazu telefono honetara: 617 00 37 31.

**502. EMAN**

**Arrasate.** Uztailaren eskola partikularrak ikasteko teknikak ematen dira. Esperientzia handia. Deitu ezazu telefono honetara: 658 70 67 84.

**Bergara.** Maila guztietan eskola partikularrak ematen dira gai hauetan: matematika, fisika, kalkulu, aljebra eta mekanika. Deitu ezazu telefono honetara: 696 38 10 07.

**Goi mailako ingeniarri industrialak** eskola partikularrak ematen dira Arrasaten. Mai- la guztia: universitatea, zirkloak, batxilergoa, DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta personalizata. Deitu ezazu telefono honetara: 630 71 35 83.

**Giltza** galdu dut, Renault Espa- ce autoarena. Ekainaren 2an galdu nuen, seguruen Aretxabaletan ospatu zen Mundumira jaiko umeen gunean. Topatu baduzu, eskertuko nizuke dei- tuko bazenu. 667 89 28 38.

## LAN ESKAITZA

### Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba Elkarteak

### KOMERTZIALA behar du Debagoienerako:

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartza.
- Lantaluean lan egitea.
- Laneko kontratuak, Gizarte Segurantzarekin.
- Soldatu interesgarria.
- Egun osoko lan jarduna.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea (ezinbestekoa da).
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Marketineko ikasketak izatea.
- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Debagoienean edo inguruan bizitza eta ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali ekainaren 20a baino lehen ondorengo helbidera:  
[admi@goiena.com](mailto:admi@goiena.com)

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

## SORALUCE KOOPERATIBA ELKARTEAK MUNTATZAILE MEKANIKOAK BEHAR DITU

- Mekanika arloko prestakuntza (LH-II edo hezikleta ziklo teknikoak)
- Esperientzia izatea kontuan hartuko da.
- Lanean berehala hasteko aukera.

**Bidali curriculuma Giza Baliabideen Sailera**  
**Helbidea:** Osintxu auzoa z/g  
20570 Bergara  
**Posta elektronikoa:** [soraluce@soraluce.com](mailto:soraluce@soraluce.com)



**Nagore Arriaran eta Jon Erostarbe** oñatiarrak bihar, ekainaren 16an, ezkonduko dira Araotzen. Bazkaria, Zelai-Zabal jate- txean egingo dute. Zorionak bikote eta ondo pasa eguna familiakoentik.



**Carmen Riba eta David Amutxastegi** arrasatearrak ekainaren 16an Uribarriko elizan ezkonduko dira. Eztei-bidaian Florida aldean ibiliko dira. Zorionak bikote eta ondo pasa! Muxu handi bana lagunen partetik.



**Eñaut Arantzeta eta Ainara Iribar** elgetarrak ekainaren 2an ezkondu ziren Asentzioko ermitan. Bazkaria eta parranda Zarautzen egin zituzten eta orain New York aldean ibiliko dira ezkon-bidaian. "Zorionak bixo! lagunen partetik. Prime- ran ibili ginen. Orain hurren- go ezkontzaren zain! Gero eta gutxiago falta da".



**Pedro Vega Galdos eta Aurea Azkoaga Etxeberria** Arrasateko Juan Bataiatzailearen Parrokiak ezkondu ziren 1957ko ekainaren 15ean. Urrezko ezteiak ospatzuen dituzuen honetan, zorionak bikote, familia guztien partetik.



**Xabat** ondarrutarra eta **Naiara** oñatiarra. Maiatzaren 26an ezkondu ziren Ondarrun. Zorionak lagunen partetik, bikote, eta Mediterraneoko itsas-bidaian ondo pasako zenutela espero dugu! Muxu handi bana.



Eskoriatzako **Mario Etxenlausia eta Dorleta Aranburuzaba- la** ezkondu zirela 25 urte bete ziren ekainaren 12an. Zilarrezko ezteietan, zorionak bikote eta urte askotarako. Muxu handi bana etxeileen partetik.

## hildakoak

- **Jose Luis Rodriguez Garcia.** Bergaran, ekainaren 7an. 75 urte.
- **Iñaxio Guridi Arregi.** Oñatin, ekainaren 8an. 71 urte.
- **Bienvenida Gonzalez Jimenez.** Bergaran, ekainaren 8an. 88 urte.
- **Pilar Zabala Frias.** Bergaran, ekainaren 8an. 93 urte.
- **Nicasio Etxabe Mascariano.** Aramaion, ekainaren 10ean. 93 urte.
- **Jose Maria Galdos Bizkarguenaga.** Arantazun (Oñati), 10ean. 83 urte.
- **Jose Miguel Aranzadi Manterola.** Arrasaten, ekainaren 11n. 69 urte.
- **Florentina Zubizarreta Etxeberria.** Bergaran, ekainaren 11n. 97 urte.
- **Kandido Aranguren Kortabarria.** Antzuolan, ekainaren 12an. 86 urte.
- **Carmen Castillo Zamora.** Bergaran, ekainaren 12an. 76 urte.



**Jose Luis Beitia eta Soraya Barandiaran** Untzillako San Pedroko elizan ezkonduko dira ekainaren 16an, zapatuan. Zorionak eta urte askotarako familiaoen partetik, bereziki, iloben partetik!



**Iker Irizar eta Izaskun Fernandez** antzuolarrak ekainaren 16an, zapatuan, ezkonduko dira Zumarragako Legazpi dorretxeen. Ezkon- tza eguna ondo-ondo pasa, bikote! Muxu handi bana Txikas taldearen partetik.

## ESKER ONA

### Jose Miguel Aranzadi Manterola

Donostian hil zen 2007ko ekainaren 11n, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrauk bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko etxekoien izenean.



Arrasaten, 2007ko ekainaren 15ean.

## URTEURRENA

### Ixabel Altuna Letamendi

Lehen urteurreneneko meza zapatuan, ekainaren 16an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.

Zure izaera gozoaren oroipena jarrai bide on izango da guretzat betirako



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

### Jesus Ceciaga Arenaza

Lehen urteurreneneko meza domekan, ekainaren 17an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

### Juana Gabilondo Legorburu

Patxi Aristiren alarguna



Lehen urteurreneneko meza domekan, ekainaren 17an, 11:30ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

### Jose Chasco Barrena

Lehen urteurreneneko meza domekan, ekainaren 17an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Amai-arrebak: M<sup>a</sup> Carmen eta Francisco Murillo; ilobak: Natalia, Alberto, Jabi, Noelia, Patricia eta Erika Yue. Hileta-elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko.

Bergaran, 2007ko ekainaren 15ean.

Babeslea:



# OROILORE

Hileta eta beilateko zerbitzuak

Momentu txar horietan sortzen diren galdera, kezka eta arazo guztiei aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da

Amillaga 27, Bergara  
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 / Fax: 943 76 94 76  
Zerbitzu Debagoiena osorako

## bila-bila 7



## hitz gezidunak

	Jakingo balu	▼	Fruitu mota	▼	Hori argia	▼
Altzoa	►	▼	* Irudiko lorea	▼	Hizkuntza zaharra	▼
Harri txintxar	►					
Alea, bibia						
Mendiaren magala	▼		Gelditu			
Berritsua	►	▼	Zuhaitz mota			
Hegaztien gorotz	►			Nitrogenoa	►	Euskaldun-tzeko erakundeak
Ez gazi	►			Presio unitate		▼
Laua	►	▼	Erreka handi	►		Potasioa
Larruzaleko gogorrunea	►		K birritan	▼		Röntgen

GOIENKARIA

## sudokua

			2	6		8		
	1	5						9
4		9						
1			3		7	2		
6								4
5	9		7			1		
			4		7			
3				2	6			
2	8	6						

## hieroglifoak

Nondik dator Fidel?


Q ik

## hizki salda

5 arrainen izena.

A	A	A	L	E	D	R	E	B
U	N	U	A	N	H	T	A	A
G	I	D	G	M	A	I	N	A
A	A	U	A	I	R	T	Z	G
R	R	D	H	L	X	T	N	O
T	R	E	T	L	A	I	D	I
X	O	G	A	G	I	I	B	G
B	M	M	E	K	T	O	T	E
B	A	L	A	N	U	T	A	L

## bono fotoa



Kanposantu ondoan zegoen eraikin batetan harriak erabili ei zituzten Elosuko eliza egiteko. Zer zen eraikin hura: monastegia, gaztelua ala harresia?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorberezibar

**Super BM**

Super BMk emandako  
**50 euroko erosketa-txartela**  
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONO... .

Ekari txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Golenako edozein egoitzara

**Brillante arroza**

Kiloko paketea

**1,50 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Arrasateko LUCIA ALTUNA rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Toki falta zela eta erreken gainean eraiki zuten klaustroa



## umore giroan

Kike Amonarriz

## UNTXI-JANA

Joxek eta Ferminak afaltzera joatea erabaki dute.

Kartatik kanpo untxia gomendatu diete. Aspaldi ez dute untxirik jan eta eskatu dute.

Berehala ekarri diete untxia. Jaten hasi orduko, Fermínak susmo txarra hartu dio jakiri:

Zerbitzariari deitu eta:

- Aiztu! Zuk untxia gomen-datu eta guk halaxe eskatu dugu, baina hau ez da untxia.

- Untxi gutxi daukagunez untxia eta zaldia nahastea erabaki dugu.



- Untxi haragia zaldi haragiarekin nahastea?

- Bai, erdi eta erdi.


- Kontxo! Eta nola ulertzen duzue zuek erdi eta erdi hori?

- Untxi bat, zaldi bat...

## soluzioak



erogelifikoa: kubatik





**Eguna:** ekainak 16, zapatua

**Ordua:** 11:30etik 13:30era.

**Errepikapena:** 15:00etatik 17:00etara.

## UDALETAKO KARGU HARTZEAK GOITB-N ZUZENEAN

Zuzeneko programa: osoko bilkuretako irudiak, alkateak zeintzuk diren, alkate berriekin elkarritzketak... Julen Iriondo eta Goiatz Aranak aurkeztutako saioan Mikel Irizar eta Eneko Azkaratek egingo dituzte analisiak.

GOITBko platoan bertan izango ditugu hainbat alkate.

Hego Euskal Herriko hiriburueta gertatutakoaz ere jardungo dugu.

**Goitb**  
Goiena Telebista

Babeslea:

Deiane Arrieta > Kazetaria

# "Eskolak ematen, imajinatu ere ezin nezakeen mundu bat ezagutu dut "

Deiane Arrietak Kazetaritza ikasketak amaitu berri ditu. Orain arte GOITBko albistegie-

tan ikusi izan dugun arren, azken urtean kazetaritza alde batera utzi eta Prestakuntza

Pedagogikoa ikasten aritu da. Praktikak helduei eskolak ematen egin ditu. Orain, uztailean,

Alacantero joatekoa da hiru astez protokoloaren inguruko kurtso trinko bat egitera.

**ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABAleta**  
Denbora luzean GOITBko albistegie-tako aurpegia izanda Deiane Arrieta. Orain, kazetari lanak utzi eta barraren atzera pasa da, kafe goxoak ateratzen. Deiane Arrietarekin izangara, Aretxabaletan, bere asmo eta proiektuez berba egiten.

**Irakasle izateko ikastaroa egin duzu. Zein helbururekin?**

Irakasle lanak beti erakarri izan nau. Horrek ez du esan nahi kazetari lana utziko dudanik; orain, beste bide bat ireki dut. Nire helburua ez da kazetari lana alde batera uztea, baina orain beste gauza batzuk ikasten ari naiz.

**Nola ikusi duzu zure burua eskolak ematen?**

Ez dira ohiko eskolak izan; izan ere, ikasleek badakite praktiketan ari naizela, eta ez da berdina izaten. Benetako eskolak ematen ditudanean, beste kontu bat izango da. Orduan, gauzak ezberdinak izango direla uste dut. Hala ere, gauza asko ikasi ditut eta oraindik gehiago ditut ikasteko. Baina, egia esan, ez dut oso arraro ikusi nire burua.

**Jende helduari eskolak emateko orduan, ze izan da aberas-garriena?**


Imajinatu ere ezin dezakezun mundu bat ezagutzeko aukera izan dut; 20tik gora urte duten eta irakurtzen ezer ez dakiten jendearekin egon naiz. Mundu hori guztiz arrotza da niretzako; ikusi arte sinesgaitza egiten zitzaidan.

Bestalde, pazientzia handia izaten ikasi dut; hiru talde ezberdin izan ditut: gazteak, atzerritarra eta alfabetatze taldea. Hain helburuak ere ezberdinak izaten dira: gazteak graduatua ateratzena joaten dira, baina nagusiagoek lagunekin egon eta ahal den neurrian zerbait ikastea izaten dute helburu. Hortaz, haien pazientzia ezinbestekoa izaten da.

**Gainera, eskolak erdaraz eman dituzu.**

Atzerritarrei gaztelera zko eskolak ematen aritu naiz; egia esan, oso oinarritzko gaztelera erakutsi diet, baina, azentu markak direla-eta, errepasatu egin behar izan dut. Ez dugu programa bat zorrotz jarraitu, ikasleen erritmoaren arabera aritu gara.

**Nola gogoratzten duzu telebista aurrean jarri zinen lehen aldia?**



GOIENKARIA

## PERTSONALA

**Herria:** Mendiola, Eskoriatza. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak?** Kazetaritza eta Prestakuntza Pedagogikoa. **Zaletasunak?** Lagunekin egotea; parrandan atertzea eta afaritxo batzuk egitea. **Gorrotatzen duzu zeren edo zer?** Gauza asko; faltsukeria, hau da, beneta-

koa ez den jendea eta baita zuhurrak direnak ere. **Gomendatzeko moduko film bat?** *La vida de los otros* da ikusi dudan azkena, eta asko gustatu zitzaidan. **Musikari bat?** Ez naiz musikazalea. **Amets bat?** Izeba izatea; datorren astean ezkonduko da ahizpa.

Egia esan, lehenengo aldian oso urduri nengoentzat; orain lau urte hasi nintzen GOITBko albistegia aurkezten eta iazko irailean utzi nuen. Baina, orokorrean, beste oroitzapen batzuekin gelditzen naiz.

**Nola erabaki zenuen Kazetaritza ikastea?**

Ba, beti gustatu izan zait telebista mundua. Txikitako kontu bat dela esan daiteke; etxean, beti ibili izan naiz mikrofona hartu eta aurkezle lanak egiten. Gabonetan, *Un, dos, tres* lehiaketa egiten genuen etxean eta han ibiltzen nintzen aurkezle lane-tan... Bestalde, kazetari lana oso gogoko dut, eta, hortaz, ez dut bantzertzen berriro ere kazetari lane-tara bueltatzea.

**Ze programa aurkeztu gurako zenuke?**

Aurkezteko, magazina; azken finean, informazio genero asko biltzen dituen programa da magazina: albisteak, elkarriketak, erreportajeak... Gainera, jende ezberdinarekin egotea ahalbideratzen duen programa da magazina.


**Eta zein da gusturen ikusten duzun programa?**

Telesailak ikusten ditut, baina orokorrean ez dut telebista askorik ikusten. Garai honetan, gainera, telebista gutxi ikusten dut. Gehien gustatzen zaidana informatiboak dira; gaueko eta goizaldeko informatiboak izaten ditut gustuko, baina nahiko ordutegi txarra izaten dute. Goizetan, esaterako, jaiki eta lehenengo gauza telebista piztea izaten da, informatiboak ikusteko. Eguerdiko eta iluntzeko informatiboak baino gustukoago izaten ditut goizean goiz egiten dituztenak. Arinagoak izaten dira informatibo horiek; agian, goizeko ordu horietan ni ere lasaiago nagoelako izan daiteke.

GOITB jarraitzen dudan? Bai, GOITB ikusteko ohitura badut; jende gutxi egongo da ni baino GOITB gehiago ikusten duena!

**Orain tabernan zabiltza lane-an. Zer moduzko kafeak egiten dituzula esaten dizute?**

Ez didate esaten! Ni kafezalea naiz; nik egindako kafeak hartu ditut eta ez dut uste txarrak egiten ditudanik. Hala ere, badakit beste batzuk beste toki batzuetan nik baino hobeak egiten dituztela. Beraz, oraindik asko dut ikasteko!



KAZETARIENDAKO GIDA Besteak beste, hizkuntzarekin lotutako arau, oinarri eta irizpideak jasotzen ditu liburuak. I. SORIANO

GOIENA > ESTILO LIBURUA

# Goienak badu bere Estilo liburua, kazetari eta langileentzat gida

Estilo liburua aurkeztu berri du Goienak; hizkuntza arauak, kazetariaren jokaera gidatzeko irizpideak eta kooperatibaren linea editoriala batzen ditu

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA  
Estilo liburua egin du Goienak talde barrurako. Hilabetetako lanaren ondorio, deontologiaren kidea lotuta, Goienako langileek nola jokatu behar duten zehazten da, eta finkatzen dira baita ere hizkuntzarekin lotutako arau, oinarri eta irizpideak. Liburu hori Batzar Orokorean aurkeztu zuen Eneko Azkarate Goiena-

ko edukien kudeatzaileak joan den egunean, bazkide eta langileen artean. Kazetari eta langileentzat gida izango den liburu hori Goienaren barru-erabilera rako izango da, oraingoz behintzat.

## LIBURU MULTIMEDIA

Goienak Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba multimedia enprese bat izanda, Estilo liburuak ere multimedia ikuspegia duela dio Eneko Azkaratek. Hala, hedabide bakoitzak bere ezaugarriak dituela ere dio, eta egoeraren arabera euskalkiak ere erabiliko direla ere.

Idazterako orduan erabiliko diren irizpide hauek kazetarien sormen lana ez dute baldintzatuko. Izan ere, estilo liburuak jokamoldearekin lotutako arau batzuk finkatzen ditu, eta sormen lana kazetariaren esku dago.

Horrez gain, Goienak Komunikazio Zerbitzuak kooperatibaren linea editoriala ere markatzen du liburuak. Azkaratek dio barrurako egindako produktua da eta langile guztiak aintzat hartu beharko dutela han jasotzen dena.

## TOKIKO EUSKARA BATUA

Sergio Azkarate euskal filologoa, Goienako hizkuntza ardura-duna, arduratu da liburuaren hizkuntza gaiez. Bere esanetan, "betiere, euskara batua da oinarria, baina Koldo Zuazok definitu zuen tokiko euskara batua egin gura dugu; hau da, euskara batua erabiltzea, baina bertako ezaugarriz hornituta".

Arauak emateaz gain, hiru hiztegi sartu dituzte Estilo liburuan: Debagoien aldeko lexikoa erabiltzera animatzen duena; siglen hiztegia eta hiztegi orokor bat.

## teknologia berriak

> ERLOJUAK

### Sony Ericsson eta Fossil enpresek elkarlanean ekoiztutako erloju sakalekoa kontrolatzeko

Oihu egin gara ordua erlojuan begiratu beharrean sakalekoan begiratzen. Orain Sony Ericssonek (sakaleko ekoizlea) eta Fossil (erloju ekoizlea) kontrako egiteko aparailu berria aurkeztu dute. Elkarlanean ekoiztutako erloju honen bitartez sakaleko (deiak eta musika) kontrola daiteke eta deien eta mezuen egoera jakitea erlojuaren pantailan bertan Bluetooth sistema erabilita. Bestalde, botoien bidez deiak kontrola daitezke. Salneurria: 300 euro.



Dei bat jasoz gero botoiari behin sakatuta soinua isilarazi dezakezu eta birritan sakatuta ezeztatu.

> KAMERAK

### Bost produktu berrikin ospatu du Canon enpresa japoniarak bere 50 urtebetetzea

Bost produktu berrikin ospatu du Canon enpresak bere 50. urteurrena. Bi kamera konpaktu berri (Digital Ixus 950 IS eta Power Shot S5 IS), definizio handiko bideo-kamera (Canon HR10) eta bi inprimagailu (Selphy CP750 eta CP740) gehitu dira ekoizle japoniarren katalogora.

Bestalde EOS argazki kameren 20. urteurrena dela-eta, gama honetako gorputz, objektibo eta flashetan 1995eurora arteko deskontua lortu daiteke.



Bi argazki kamera, definizio handiko bideo-kamera ete bi inprimagailu.

> INPRIMAGAILUA

### Haririk gabeko konexioa inprimatzeko erabiltzen duen Lexmark Z1410 modelo azkarra

Lexmark markak haririk gabe inprimatzeko gai den inprimagailua kaleratu du. Wi-Fi bidezko inprimaketa 802.11g araua barneratua du eta 802.11b-rekin bateragarria da.

Zuri beltzean 24 orri minutuko eta 18 orri minutuko koloretan inprimatzeko abiadura du. Txartel irakurgailua, USB konexioa argazki kameratik zuzenean inprimatzeko, Wi-Fi eta eskanerra ditu. Windows XP, Windows Vista eta Mac OS X 10.3tik aurrerako sistema eragileetan dabil.



Inpresora azkarra da, zuri beltzean 24 orri minutuko eta koloretan 18 orri minutuko inprimatzeko abiadura du.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko-blog.komertzialak](http://www.goiena.net-eko-blog.komertzialak)

### www.goiena.net/blogak

/aebyn  
/aiastui  
/aretxargi  
/argi-plastik  
/arregi  
/atai  
/azkarate  
/bastida  
/briz-  
asegurauak  
/BZ-sistemas  
/bolusukaldeak  
/dragon-oriental  
/dukiena  
/ego  
/ekilore  
/ekin  
/elejalde  
/ezkutuorly  
/galgorri  
/gallastegi  
/ganesha  
/garaia  
/gertu  
/gorkataxi  
/gurea  
/guztizeder  
/hamaika  
/itxaseder  
/irudisport  
/ixaun  
/jrcacing  
/joseba  
/lamaino-etxeberri  
/lorean  
/korozabaleta  
/markiegi  
/maulanda  
/mayte  
/merkeopari  
/multiopticas  
/ohiak  
/ogizun  
/okipark  
/otzeta  
/pando  
/richimaier  
/tabernaberri  
/udalaitz  
/urdeki  
/vitoria  
/zaindusz  
/ziripot

### Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.amgautoak.com](http://www.amgautoak.com)  
[www.baster-aldejatekrea.com](http://www.baster-aldejatekrea.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)  
[www.gelatzu.com](http://www.gelatzu.com)  
[www.goikobenta.com](http://www.goikobenta.com)  
[www.haurtxoa.com](http://www.haurtxoa.com)  
[www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)  
[www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.toldoslete.com](http://www.toldoslete.com)  
[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)



**berriak**

> GOITB  
**GOITBko albistegien ordutegi aldaketa**

Orain arteko Goiena Telebistako informatiboa ordutegi aldaketa egingo dute: datoaren astetik aurrera GOITBko iluntzeko albistegiak orduz aldatuko dira. Hemendik aurrerako ordutegia honako hau izango da; 19:45ean *Berriak*, 20:45etan *Gaurkoak* (berriak labur), berriz ere 21:45ean eta 22:45ean *Berriak* eta 23:45an *Gaurkoak*. Ez dago informatuta ez egoteko aitzakiarik.

> GOITB  
**'Zu Kazetari'-n Kilometroen gaineke jaia, eguztenean**

Urriaren 7an Bergaran ospatuko den Ikastolen aldeko Kilometroak 07 jai handiak emango du zeresana Goiena Telebistan ere. Izañ ere, joan den ostiralean Bergarako frontoian egin zuten Kilometroen gaineke jaia eskainiko zaizue *Zu Kazetari* saioan, astelehenean, hilaren 18an, 21:45ean. Bertan ikusi eta entzun ahal izango duzue *Argi da Kilometroak* 07ko kantu ofiziala.

> ARRASATE IRRATIA  
**Araba Euskarazero gonbidapena 'Asteko Gainbegiratua'-n**

Domekan Argantzor herrian, Trebiñun, egingo da aurten go Araba Euskaraz. Astean Diego Gartzia arrasatearria aipatutako ikastolako irakaslea dena izan da irratian. Lau urte dela sortutako ikastola da eta 39 haurrek ikasten dute han. Domekako jaiaren helburutariko bat ikastolare eraikin berria ordaintzea da. Asteburuan eskainiko ditugu, besteak beste, Gartzia kontatutakoak.

> ARRASATE IRRATIA  
**Udal gobernuen eraketaren saioa 107.7an zapatuan**

Zapatuan eratuko dira udal gobernuak eta Arrasate Irratia ere Debagoieneko udaletxe guztietan gertatzen denaren lekuoa izango da. Hori horrela, goizeko 11:30ean GOITBko ekoitzitako saio berezia uhin bitartez jasotzeko aukera izango duzue. Asteleheneko *Igo Autobusera!* saioan berriz, Arrasateko alkate berriarekin egin dugu hitzordua. Bide batez gogoratu, datorren astean agur esango digula 107.7ko autobusak.

**'MUSIKANTOI'**>EGUENA, 22:15

## Soziedad Alkoholika taldea protagonista 'Musikantoi'-n

Taldearen bideoaklip zaharrak eta berriak, kontzertutako irudiak eta bestelako bitxikeriak egunean

GOIENKARIA > ARRASATE

Ez da erraza Soziedad Alkoholika taldea musika-estilo jakin batean sailkatzea: trasha, hardcore, metala, punka... Kontuak kontu, jarraitzaile ugari dituen taldea bilakatu da azken hamarkadan. Gizartearen aldeko konpromisoan eta zuzeneko salakettan oinarritutako letra gogorrak eta argiak izan dira taldearen ezaugarri bereizgarri nagusietakoak; hamaika gorabehera izan dituzte justiziarekin, sektor erik kontserbatzaileenekin ondorioz. Taldearen ibilbideari gainbegiratua egingo zaio eguneko saio berezian.



SA Zuzeneko indartsua duen taldea da Soziedad Alkoholika.

GOIENKARIA

## GOITBko programazioa

### EGUBAKOITZA, 15

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musikantoi. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ikussten. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Eltz beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gorputzilegut 07. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportaje. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Ikussten. 22:15 Irunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

### ZAPATUA, 16

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:15 Astekoak. 11:30 Hauteskundeak 07-programa berezia. 13:30 Gorputzilegut 07. 14:00 5 x 5. 15:00 Erreportaje. 15:30 Hauteskundeak 07-programa berezia. 17:30 Marrazki bizidunak. 19:30 Hasiberriak. 20:00 Ikusmira. 20:30 Erreportaje. 21:00 Bizitegia. 21:30+5. 22:00 Astekoak. 22:15 Klip@. 22:30 Irunpean. 23:00 Didjeridu. 23:30 Hauteskundeak 07-programa berezia. 02:00 Emisio amaiera.

### DOMEKA, 17

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikussten. 11:30 Musikantoi. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Klip@. 13:00 Irunpean. 13:30 Erreportaje. 14:00 Didjeridu. 14:30 Gorputzilegut 07. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Ur eta lur. 18:30 Ikussten. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltz beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Gorputzilegut 07. 21:30 Eltz beroa. 22:00 Didjeridu. 22:30 Ikusmira. 23:00 Erreportaje. 23:30 Irunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

### ASTELEHENENA, 18

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Ikussten. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Irunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Bizitegia. 16:15 Erreportaje. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta lur. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportaje. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Gaurkoak. 20:47 5 x 5. 21:15 Harmaillatik. 21:45 Berriak. 22:15 Hasiberriak. 22:45 Berriak. 23:15 Didjeridu. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Ikusmira. 00:15 Emisio amaiera.

### MARTITZENA, 19

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmaillatik. 14:15 5 x 5. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltz beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaia. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albisteak. 17:15 Boboboak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Irunpean. 18:15 Bizitegia. 18:45 Albisteak. 19:15 Harmaillatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Erreportaje. 21:15 Berbaire. 21:45 Berriak. 22:15 Harmaillatik. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

### EGUAZTENA, 20

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Erreportaje. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltz beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Eltz beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmaillatik. 18:15 Eltz beroa. 18:45 Albisteak. 19:15 Teknopolis. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Telesaia. 21:15 Zu kazetari. 21:45 Berriak. 22:15 Zu kazetari. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

### EGUENA, 21

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Boboboak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Zu kazetari. 14:15 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltz beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Telesaia. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albisteak. 17:15 Boboboak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltz beroa. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albisteak. 19:15 Bizitegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak. 20:45 Gaurkoak. 21:15 Berbaire. 21:45 Didjeridu. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Irunpean. 00:15 Emisio amaiera.

**telebegi**

Unai Loidi

## Seigarrena

**N**ik ez daukat mandoaren seigarren botoian sintonizatuta, baina ez da hori zapping egiten dudanean La Sexta albora uzteko arrazoi nagusia. Gauza gutxi aurkitzen dut kate horretan niretzako modukorik (gazte urbanontzat sortu ei zen). Eta beti aurpegia berberak, programa bertsuetan. Hala ere, Patricia Conde eta Angel Martin harrapaten ditudanean, begira gelditzen naiz. *Sé lo que hicisteis la última semana* egiten dute, beste kate batzuetako programen puskekin. Espainiako telezaborrari errepaso, eta Angel Martin bideo ondorengo komentarioak, bikainak. Egungo telebistan ikus daitekeen umoristik onenetakoak, eta ariketa ona, telebista zein absurdura eta ridiculu bihurtu den konturatzezko. Audientzia hobetuz doa programa poliki-poliki (katearen maila apalaren barruan), eta ikuslego leiala lortu dute.

Nik etxeen ez dut oraindik ere oso ondo ikusten La Sexta, baina seigarrenean ez arren, bederatzigarren botoian gordeta mantenduko dut, *Sé lo que... ikusteko*. Bide batez... ze ordutegi daukan inork badaki?

**ARRASATE IRRATIA**

FM 107.7

### ZAPATUA

10:00 Asteko gainbegiratua. Araba Euskaraz 2007; Andoni Alzei, SUDCeko lehendakaria; Jose Mari Velez de Mendizabalekin, Zerrajeraren historia berbagi; ...

11:30 Udal Gobernuen eraketa: saio berezia.

### DOMEKA

10:00 Asteko gainbegiratua.

### ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

10:00-12:00 Igo autobusera!

Albistegia

Eguraldiaren iragarpenea (Joxe Landa)

Elkarritzetak

Lorategiaren geltokia

Merkatu txikiaren geltokia

Erakundearen geltokia

Elkarteearen geltokia

Zozketak

Zorion agurra

(parte hartzeko: 943 71 17 31)

12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

12:20 Izarrer ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Igo autobusera! (errepp.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

17:15 Zorion agurra tarte (errepp.)



**GRUPO ARKAUZ**  
ARETXABAleta 1950 • 2007 ARRASATE

**ARKAUZ**  
ELECTRODOMÉSTICOS  
Andramari auzunea  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABAleta

**TXC MOBEL**  
ALTZORIAK  
Araba etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE

**ARKAUZ**  
COCINA INTEGRAL  
Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABAleta

**ARKAUZ**  
MUEBLES  
Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABAleta


Betiko sukaldearekin asper-asper eginda?  
Har ezazu erreza!  
Arkauz etxeen ideia berriak emango dizkizugu.

**Arkauz zure etxea da.**  
FAGOR  banatzaile ofiziala



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.  
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!  
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**

 <b>HOZKAILUA COMBI 5FAC-495</b> <b>420 €</b> 70.140 pta 	 <b>HOZKAILUA 4FE-01E41</b> <b>320 €</b> 53.440 pta 	 <b>ONTZI-GARBIGAILUA LJA-0140</b> <b>275 €</b> 45.925 pta 	 <b>GARBIGAILUA LA-110</b> <b>305 €</b> 50.935 pta 	 <b>LABEA BITROZERAMIKA STA1410</b> <b>355 €</b> 59.067 pta 
 <b>AIRE EGOKITU PORTATILA</b> <b>FAP-2 CR HOTZA</b> <b>2000 KCL/orduko</b> <b>325 €</b> 54.275 pta 	 <b>AIRE EGOKITU PORTATILA</b> <b>ADR 66 HOTZA</b> <b>2000 KCL/orduko</b> <b>290 €</b> 48.430 pta 	 <b>"EVA" MAHAI</b> <b>110x70 zm</b> <b>365 €</b> 60.731 pta	 <b>BEROTU SUKALDEA C-85 NC</b> <b>1925 €</b> 321.475 pta 	<b>Sukalde itxia, berotzen ez duena, igeltserotza lanik barik. Kutxa eta gaineko sukalde bikoitzarekin.</b> Altuera: 85 zm. Luzera: 85 zm. Fondo: 60 zm.

Europar Batasunaren arauategiak ezartzen duen batzak besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

<b>A+</b>  70%	<b>A</b>  45%	<b>B</b>  25%
---	--	--

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperativistendako prelio bereziak.**  
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

# Ekainak 15-22

## Musika



ARRASATE

### > Arrasate Musikaleko ikasleen kurtso bukaerako kontzertua

Gaur, egubakoitza, egingo dute emanaldi hori, 19:00etan, Amaia antzokian. Bestetik, hilaren 19an, martitzena, Arrasate Musikaleko guitarra ikasleek egingo dute emanaldia. 18:30ean izango da hori, Kulturaten.

## Jaia



ELGETA

### > Debagoieneko edadetuek kirol jaia ospatuko dute gaur, egubakoitza

Debagoieneko erretiratuek egingo duten 16. kirol jaia da. Jaiaren helburu nagusia da hirugarren adinekoengan jarduera fisiko osasunagarría sustatzea. Gaur, egubakoitza, izango da, 14:45ean hasita, kirolegian.

## Deialdia



ARETXABAleta

### > Andramaixetako kartel lehiaketa deitu du Kultura Sailak

Edonork har dezake parte eta teknika librea da. Kartelak derrigorrez eroan beharko du: *Andramaixa 2007, abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a, Aretxabaleta*. Lanak aurkeztuko dira ekainaren 29a baino lehen udaletxeen edo kultura etxeen.

## Hitzaldiak

ARRASATE

### > Lana eta bizitza pertsonala-ren kontziliazioa berbagai

Hitzaldiaren izenburua da: *Kontziliazioa mikroenpresa eta langile autonomoen ikuspuntutik*. Mankomunitateak antolatu du, Equal mikrogunea proiektuaren barruan.

Hilaren 20an, eguztena, 17:00etan, Kulturaten.

## Ospakizunak

ESKORIATZA

### > Eskoriatza Kirol Elkarteak jaia ospatuko du

10:00-12:30 bitartean saskibaloi eta areto futbol partiduak egongo dira. 12:00etan, trikitilariek kalejira eta 12:15ean, tortilla lehiaketa. 12:30ean, herriko motorzaleei ongiortaria egingo diete, plazan. Arratsaldean ere hainbat ekitaldi egongo dira; umeendako pintura tailerra 19:00etan eta parrillada eta ardo eta sagardo dastatzea 19:30ean, Herriko Plazan. Egunari amaiera emateko, 22:00etan kontzertua egongo da plazan: Arianrod, Scam eta The Fault? Bihar, zapatua.

ARRASATE

### > Haur dantzarien eguna ospatuko dute

10:00etan batuko dira haur guztiak, Zaldibarren. 11:15ean dantza erakustaldia egingo dute herriko kaleetan eta 17:15ean alardea egingo dute dantza talde guztiak, Herriko Plazan. Etzi, domeka.

## Bestelakoak

ARETXABAleta

### > Contact dantza-inprobisazio erakustaldia

Iku dantza taldeak egingo du erakustaldi hori, kalean barrena.

Gaur, egubakoitza, 20:00etan.

ARRASATE

### > Gimnasia erritmiko erakustaldia egingo dute

Arrasate Dragoi Gimnasia taldeak antolatu du erakustaldi hori, San Juan jaien egitarauaren barruan.

Gaur, egubakoitza, 17:30ean, Seber Altube plazan.

ARRASATE

### > Mus txapelketa jokatuko dute San Juanen bezperan

Mus txapelketa jokatuko da Mondragon Hotelean, hamaikagarrenez. Izenematea 30 euro dira bikoteko.

Bihar, zapatua, 16:30ean, Mondragon Hotelean.

## Musika

BERGARA

### > Opera, Musika Eskolako ikasleen eskuak

*Dido and Aeneas* H. Purcell-en opera ezaguna egingo dute ikasleek, Andoni Sierraren zuzendaritzapean.

Gaur, egubakoitza, 20:00etan, Mariaren Lagundiko elizan.

ELGETA

### > Sweet Oblivion taldearen kontzertua

*Wasted Lovesongs* diskoa aurkeztuko dute. Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espaloian.

ARRASATE

### > Kontzertua izango da Gure Leku tabernan

Eztake izeneko taldeak egingo du emanaldia. Gaur, egubakoitza, 23:30ean.

BERGARA

### > Standard eta La Habitacion Roja taldeen kontzertua

Jam aretoan egingo dute emanaldia. Gaur, egubakoitza, 22:00etan.

OÑATI

### > Ganbara Txikik emanaldia egingo du

Ulma lantegiak antolatutako ate irekien jardunaldietan egingo du emanaldia.

Gaur, egubakoitza, 16:00etan, Ulmako egoitza nagusian.

ESKORIATZA

### > Kontzertu akustikoa Inkernu tabernaren terrazan

Bilboko Kuk taldeak egingo du emanaldia.

Bihar, zapatua, 19:30ean.

ARRASATE

### > San Juan jaietako bertso saioa antolatu du AED elkartea

Bertsolariak izango dira:

## Erakusketak

ANTZUOLA

### > 'Ura eta Antzuola' delako erakusketa

Antzuolako herriak betidanik jasan behar izan du uraren eragina. Horren erakusgarri da erakusketa. Gaur irekiko ditu ateak, eta, horrekin batera, erakusketaren izen bereko liburua ere aurkeztuko dute egileek, Valen Moñuxek eta Iñigo Ramirez Okarizek. 19:00etan, Olaran etxean.

Erakusketa gaur hasi eta 24ra arte egongo da zabalik, Olaran etxean.

ARRASATE

### > Unai Urretxo eta Amaia Zipitriaren kontzertua

Tronboi –Urretxo– eta piano –Zipitria– kontzertua egingo dute.

Hilaren 21ean, eguna, 19:30ean,

Kulturaten.

BERGARA

### > Bidasoaldeko hiru artistaren erakusketa

Jabier Sagarzazu, Carmen Maura eta Susana Zaldibar pintoreek egingo dute erakusketa.

Ekainaren 24ra arte, Harresi aretoan.

Gaur, egubakoitza, hasi eta uztailaren 15era arte egongo da zabalik, Aroztegin.

ARRASATE

### > 'Cerrajera 101' delako erakusketa ikusgai dago

Zerrajeraren mendeurrena ospatzeko antolatutako ekitaldi sorta itxiko du.

Hilaren 30era arte, Kulturateko klaustroan.

ELGETA

### > Justina Elexpuren margo erakusketa

Bergarako margolariaren lanak Espaloian daude ikusgai. Hilaren 27ra arte.

ARRASATE

### > Xeli Mendizabalen margo erakusketa

Mendizabalek gaur, egubakoitza, zabalduko du erakusketa.

Ekainaren 24ra arte, Harresi aretoan.



PROPOSAMENA

ARRASATE

### > Umeen danborrada egingo dute San Juanen atarian

San Juan jaien atarian daude arrasatearrak. Hori horrela, honezkero prest dute egitaraua eta lehenengo ekitaldiak aste bukaera honetan izango dira, SUDC elkartea antolatutako haurren danborrada, esaterako. Bihar, zapatua, izango da, eta 19:00etan abiatuko da. Herriko kale nagusiak igaroko dituzte danbor joleek Arrasate Musikaleko guitarra ikasleek lagunduta.

Bihar, zapatua, 19:00etan, Kulturaten.

**nire aukera**

**Esteban Urtzelai**  
Oñatiako ganbera  
abesbatzako zuzendaria

**Zapatuetan  
Oñatira**

**E**ntsegu eta kontzertuekin ez du denbora libre luzerik izaten Urtzelaik, baina daukana ondo aprobetazen du: "Gustatzen zait zapatuan Oñatira joatea. Arratsaldea etxearen ematen dut, lasai, eta iluntzean lagunekin afaldu eta parranda egitea dut gustuko". Hori, dena den, gutxitan egin ahal izan du azken boladan: "Bi hilean behin-edo egin ahal izan dut".

Domekaren kasuan, "zaila da entsegu bako domekak izatea", esan du. Eta libre izaaten duenetan, "aste bukaera osoko plana egitea gustatzen zait, Errioxara, Landetara, Huescar... joateko".

**Aurreko aste bukaeran ireki zuten Arrikutz bisitariendako. Egon zara?**

Oraindik ez; dena den, badut joateko asmoa. Espazio naturalak bisitariendako zabaltzea egoki ikusten dut.

**Aste bukaera gutxi izaten duzu libre, kontzertu eta entseguak tarteko. Zer ematen dizu musikak?**

Gauza asko. Ikaragarri disfrutzen dut. Ofizio dut, baina baita afizio ere. Gainera, lagun onak egiteko aukera eman dit eta baita jende ugari ezagutzeakoa ere.

**Zein da ikusi duzun azken kontzertua?**

Duela bi aste Conductusen emanaldia, Zenarruzan. Talde horretan abesten dut, baina eztarria hartuta izan eta ezin nuenez abestu, bada, entzutera joan nintzen.

**Ze talde zuzenduko zenuke gustura?**

Donostiarriko Orfeoia. Zuzendariorri nago, eta entsegutan zuzendu badut ere, kontzertu batean ez.

**Gaur egun Zarautzen bizi zara. Zarautz ala Oñati?**

Biak. Aloñara igo edo lagunekin ibiltzeko Oñati. Baina Zarautz hondartza du.

**Zertan gastatuko duzu "Mihiluze"-n irabazitako dirua?**

Menorcara astebeterako goaz.

# Zinema

**ELGETA  
ESPALOA ANTZOKIA**

**La isla**  
Eguaztenea: 21:30.

**ONATI  
KULTURA ETXEA**

**Piratas del Caribe 3**  
Egubakoitz: 22:30.  
Zapata: 22:30.  
Domeka: 19:00, 22:30.  
Asteleneha: 19:30.

**EIBAR  
UNZAGA**

**Ocean's 13**  
Egubakoitz: 19:30.  
Zapata eta domeka: 17:00, 19:30.  
Asteleneha, martiztenea eta eguztenea: 18:30.

**Tu la letra, yo la musica**

Egubakoitz: 22:15.  
Zapata eta domeka: 22:15.  
Asteleneha, martiztenea eta eguztenea: 22:15.

**FLORIDA-GURIDI**

**Bajo las estrellas**  
17:00, 19:45, 22:30.

**El buen nombre**

17:00, 22:30.

**La caja**

19:45.

**La soledad**

17:00, 19:45, 22:30.

**Nuevo mundo**

17:00, 19:45, 22:30.

**Memorias de Queens**

17:30, 20:00, 22:30.

**Borrachera de poder**

17:30, 20:00, 22:30.

**Un engaño de lujo**

17:30, 20:00, 22:30.

**Cerdos salvajes \***

AEB, 2007. Zuzendaria: Walt Becker. Aktoreak: Tim Allen, John Travolta, Martin Lawrence. 99 min.

Lau lagunek beren eguneroko errutina albo batera laga eta motoan bidaia bat egitea erabakiko dute. Bidean motorzale gaitz batzuekin egingo dute topo.

**Despues de la boda \*\*\***

Danmarka-Suedia, 2007. Zuzendaria: Susanne Bier. Aktoreak: Mads Mikkelsen, Rolf Lassgard. 120 min.

Jacobek urteak daramatzat Indiako kaleko umeei lagunten. Egun batean, negozio gizon abera baten eskaintza jasoko du. Lau milioi dolar eskainiko ditzkio.

**El infierno \*\*\***

Frantzia, 2006. Zuzendaria: Danis Tanovic. Aktoreak: Emmanuelle Beart, Karin Viard, Marie Gillian, Guillaume Cenot, Jacques Gamblin. 101 min.

Hiru ahizpak oso modu ezberdinan bizi dituzte haurtzaroan izandako geretara batzuk. Ama elbarriari egindako bisisak tragedia ilun bat azaleratuko du.

**El numero 23**

AEB, 2007. Zuzendaria: Joel Schumacher. Aktoreak: Jim Carrey, Virginie Madson, Danny Huston. 95 min.

Walter Sparrow makina idatzitako liburu bat aurkituko du. Han bere bizi-tzarekin eta inguruan duen jendearekin antz handia duen istoria bat aurkituko du, eta amesgaizto baten sartuko da.

**Sunshine \*\***

AEB, 2007. Zuzendaria: Danny Boyle. Aktoreak: Chris Evans, Cillian Murphy, Rose Byrne. 100 min.

Bost urte barru, eguzkia itzali eta gizakia desagertu egingo da. Azkeneko txiropeña espazialtzia bat bidaltzea da, bertan zortzi gizon eta emakume bat daudela.

**Descubriendo a los Robinsons \*\*\***

AEB, 2007. Zuzendaria: Stephen J. Anderson. Marrazki bizidunak. 102 min.

Lewisek etorkizunetik datorren mutil

**GASTEIZ  
GURIDI**

**Piratas del Caribe en el fin del mundo**  
Egubakoitz: 17:00, 22:00.  
Zapata: 16:15, 19:30, 22:40.  
Domeka: 17:00, 20:00.

**Half Nelson**

17:30, 20:00, 22:30.

**Ocean's 13**

17:30, 20:00, 22:30.

**Erase una vez... un cuento al revés**

Egubakoitz: 16:00.  
Zapata: 16:30, 18:15.  
Domeka: 17:30.

**Las vueltas de la vida**

20:00, 22:30.

**Entre mujeres**

17:00, 22:30.

**Enemigos íntimos**

19:45.

**Tu la letra, yo la musica**

12:15, 16:30, 18:00, 21:30.

**Zodiac**

12:15, 17:30, 20:30, 23:40.

**Spiderman 3**

12:15, 16:30, 17:20, 18:20,

**Premonition**

19:50, 21:50, 23:50.

**El numero 23**

20:30, 22:30, 00:30.

**La telaraña de Carlota**

12:15, 15:50, 17:50.

**Erase una vez el cuento al revés**

12:15, 16:15, 18:15, 20:15.

**Entre mujeres**

12:10, 16:15, 18:20, 20:30,

**Piratas del Caribe en el fin del mundo**

12:00, 16:00, 18:30, 19:15,

**Zodiac**

12:00, 16:20, 19:25, 22:30.

**Spiderman 3**

12:00, 16:30, 19:30, 22:30.

**Premonition**

12:15, 16:25, 18:25, 20:25,

**Cerdos salvajes**

12:15, 00:30.

**El buen pastor**

19:15, 22:30.

**Descubriendo a los**

Robinsons

12:10, 17:00.

**YELMO**

12:15, 16:00, 18:00, 20:00,

**Un engaño de lujo**

12:15, 16:15, 18:15, 20:20,

**Ocean's 13**

12:15, 16:30, 17:45, 20:05,

**Erase una vez... un cuento al revés**

12:15, 16:10, 18:10, 20:10,

**Entre mujeres**

18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

**Piratas del Caribe en el fin del mundo**

12:15, 16:30, 18:00, 21:30.

**ÁBACO-LAKUA  
ZINEMAK**

**Ocean's 13**

16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**Perro al rescate**

16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**La marca del lobo**

16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**Piratas del Caribe en el fin del mundo**

16:00, 18:00, 19:30, 23:00.

**Ellas y ellos**

16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**El novio de mi madre**

16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

**Spiderman 3**

16:00, 19:00, 23:00.

**El numero 23**

18:15, 20:30, 23:00.

**Corazones solitarios**

17:00, 19:45, 22:30.

**Historia de un crimen**

17:00, 19:45, 22:30.

**FILM&CINE**

17:00, 19:45, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Bajo las estrellas**

# Euskararen aldarria Trebiñun

**ARABA EUSKARAZ** Argantzon Ikastolak antolatuta, ikastolen eta euskararen aldeko jaia ospatuko da domekan

**IKASTOLA TXIKIA** Euskal Herriko ikastolarik txikienetako da; 0-6 urte bitarteko 39 ikasle ari dira aurten

**ARRASATEAR BAT** Diego Gartzia arrasatearra dabil irakasle Argantzon Ikastolan joan den urtea ezkerro

**EDU MENDIBIL > BERGARA**  
Euskal Herriko ikastolarik txikienetako batek, Argantzongoak, izango du Araba Euskaraz jaia antolatzeko ardura. Etzi, domeka, ospatuko da Arabako ikastolen aldeko jaia. *Garenaren jostun* da antolatzaleek aukeratutako leloa. Izen ere, Trebiñuko konderrian dagoen Argantzon herria Arabari eta euskarrari *jostea* da antolatzaleen nahieta eta ametsa. Diego Gartzia arrasatearra da Argantzon Ikastolako irakasleak bat: "Ikastola da herriko gune euskaldun bakarra, eta euskarari eta gure ikastolari bultzada ematea da domekako jaiaren helburu nagusia. Ia dena gertu daukagu. Ea eguraldiak laguntzen duen eta jendea etortzera animatzenean...", diosku Gartzia.

Esan bezala, ikastola txikia da Argantzongoa. 2003. urtean sortu zuten eta gaur egun 39 ikasle ari dira bertan, denak 0 eta 6 urte bitartekoak. Diego Gartzia ingeleszeko eskolak ematen ditu joan den urtea ezkerro. Hark esaten

digunez, "behin haurreskola bukatutakoan, ikasketak jarraitzen Gasteizko Armentia ikastola izaten da irtenbide naturala". Gasteiztik 18 kilometrora dago Argantzon: "Autoan 15 minuti besterik ez da behar Gasteiztik hertzeko. Burgosera N-1 errepidea hartu eta 34. irteeran aterra. Bide erosoa da gurekin jaia ospatu nahi dutenendako".

**ARABA EUSKARAZ BEREZIA**  
Ekaitz Lotina ikastolako zuzendariek dioenez, ilusio eta lan handia jarri dute domekako ospakizunei begira. Lau gune bereiziko dituzte Argantzon, eta, besteak beste, Pirritx eta Porrotx, Betizu, Tapia eta Leturia, Sexy Sexers eta Betagarri (jaialdia iragartzeko kantuaren egileak) taldean emanaldiak izango dira eguna zehar. Gartzia hitzetan, "Araba Euskaraz berezia izango da aurtengoa, hemen bizi dugun egoera guztiz berezia delako. Helburu ekonomikoak eta euskarraren aldeko aldarrikapena batu nahi ditugu".



ARABAN Irudian, Diego Gartzia irakasle arrasatearra Argantzon Ikastolan dabilen haur talde batekin.

GOIENKARIA

## ahobero

"Formula 1 auto bat gidatzea tigre bat atzetik izatea bezalakoa da. Xake jokalari baten moduan erreakzionatu behar duzu"

Kerry Spackman > Matematikoa eta neurologoa

Ez dakigu Kerry Spackmanek Formula 1 autoren bat gidatu duenik sekula. Agian, Robert Kubica haren hitzakin akordatuko zen domekan...

## iturri onetik

**Pedro Rico izango da Bergara Kirol Elkarteo presidente berria**

Pedro Rico 51 urteko bergararra izango da Bergara KEKO presidente berria. Batzar orokorra egingo du Bergara KEK uztailaren 6an eta Iñaki San Joseren lekukoa hartuko du Ricoak egun horretan. Herriko futbolari lotuta egon da beti eta harrobia bultzatzea da Ricoren helburu nagusia. Manu Diaz izango da BKEKO futbol talde nagusiko entrenatzailea hurrengo denboraldian.

## piperraутса

Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса

### Denak lanera

**B**ihar eratuko dira udal berriak, alkateak aukeratuta. Gehienetan, zerrendarik botatuenaren burua izango da alkate, baina ez beti. Batuetan legeak galaraziko du hori, zerrendarik botatuenena legez kanpo dagoenetan, Aretxabaleta esaterako. Besteetan, itunak egon daitezke botatuenari alkabetza kentzeko.

Giro politikoak ez du lagunduko gauzak ganoraz egiten. Horrelako egoeratan, gutako bakoitzaren alderik eskasena agertu ohi da. Baina merezi du ahaleginak. Legez kanporatuak ezingo ditu eskubide guztialak bereganatu, baina badaude formulak elkarlanerako. Eta koalizioak egitea zilegi da, baina zinegotziak ia erdia gera daiteke oposizioan, besteak akatsak salatzen.

Onena: zerrendarik botatuenak alkatea, erabakiak udalbatzan, eta denak lanera.

## ai, eñe!



**Erretzaileengen zalantza pizteko hautsontzia**

Askotan mezu kontrajariak helten zaizkigu alde batetik eta bestetik. Horren adibide garbia duzue horrako hautsontzi hori...

<http://tinyurl.com/yo266b>



Bisita ezazu Gipuzkoako sukaldetako armairu eta bainugelak erakusketa handiena

**31 sukaldetako gehiago ikusgai  
600 m<sup>2</sup> baino gehiagoko erakusketa  
Europako lehen markak**

**Armeko**  
Sukalde Integrala

Merkatuko prezio hoberenak



Ordutegia: 10 - 13 eta 16 - 19:30 . Larunbata: 10 - 13

Kataide Poligonoa 4 - ARRASATE - 943 770157



**Fabrikazio eta muntaia profesionala  
Aurrekontuak eta aholkularitza konpromisorik gabe**

**YOSUTHERMIK**  
LEIHO ISOLATZAILEAK

Kalitate-prezio erlazio paregabea

25 urte  
ZUREKIN